

## Jesus Mari Lazkanok lehen aldiz erakutsiko ditu artelanak Bergarako Aroztegi aretoan

'Lazkano. Bitakora koadernoan' margolan eta marrazki sorta erakutsiko ditu bere herrian; azkeneko bertan duela 45 urte egin zuen erakusketa bat / 40



Lazkano, Aroztegi aretoan, eguaztenean, artelan baten ondoan. ENEKO AZKARATE

**Fagor Ederlaneko Eskoriatzako lantokiko bulegoetan, hogeitik gora COVID-19 kasu** / 2

**1.247 bisitari izan dituzte Oñatiko Turismo Bulegoan Aste Santuan, 2019koaren bikoitza** / 4

### SINADURAK

	MAÑEN UGARTE IRIZAR / 8		XABIER IGARTUA / 36
	IBON ARRUPE / 14		ANDER ETXEBERRIA / 48

+  Plazako trukeak berrasmateko premia dauka

Aizpea Goenaga aktoreari elkarrizketa

## HOGEITA HAMAR URTETIK GORA AUTOGESTIOAN LANEAN

AGAKOK (Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua)  
Gala Galanta egingo du zapatuan, 30 urteak ospatzeko / 12



Arrasaten egon diren gaztetxeetan garai ezberdinetan aritu diren lau kide. XABIER URZELAI

**SUPERFAMILIA PLANA!**

**%30 deskontua**

VANILUX ESPECIALISTA

Kontratuatu optikan konpainaren ezaguerriak.



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE


Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

**MULTIÓPTICAS**

www.multiópticas.com


## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



# Bi astean bikoiztu egin da ibarreko tasa, kasuen gorakadak eraginda

Debagoieneko intzidentzia-tasa 766,86an kokatu zen atzo, lurraldeetako gairi. Bergarak, Elgetak eta Leintz Gatzagak izan ezik, gainerako seiak daude 400etik gora. Eskoriatzako Fagor Ederlanen eta Almen gunean izan dira positiboak, beste

### Maialen Santos ARRASATE

Joan den egunetik eguzten honetara arte, 301 lagun kutsatu ditu koronabirusak Debagoienean, joan den astean baino 105 gehiago -196 izan ziren-. Nabarmenezkoa da azaroaren 27ko asteaz geroztik ez dela zazpi egunetik kutsatu kopuru hori gairitu. Pandemia hasi zenetik aste bakarrean erregistratutako kopuru altuena 475 da; azaroaren 13ko astean izandakoa.

Herriak, Oñati izan da kasu positibo gehien zenbatu dituen azken egunetik (91), eta kasuen gorakadaren harira Izaro Elorza alkateak baheketan masiborako eskaera egin zien Jaurlaritzako osasun arduradunei: "Dena den, aukera baztertu egin zuten haiek, egoerari aurre egiteko behar besteko eraginkorra ez zela irizita". Aurrekoak ez be-

zala, oraingoak jatorri askotariko kasuak direla argitu du Udalak; ez baitago foku identifikaturik. Neurriak alor ezberdinetako zerbitzuetan aplikatzea ekarri du horrek.

Arrasate izan da kasu gehien baieztatu dituen bigarren herria (90), eta haren atzetik dago Aretxabaleta (42). Herri horretan, Pazko astean, apirilaren 5etik 11ra bitartean, 55 kasu baieztatu zituzten. 16 eta 18 urte arteko hainbat gazte daude horien artean, eta Osasun Sailak Arizmendi ikastolako Almen guneko batxilergoko ikasleak baheketara deitu zituen astelehenean.

Eskoriatzako Fagor Ederlanen ere izan dituzte koronabirus agerraldiak. Taldeko lehendakari Aitor Axpek GOIENARI azaldu dioenez, azken hamabost egunetik hogeita kasu inguru

izan dituzte bulego orokorretan; horietako zortzi inguru, Eskoriatzako zelula konkretu batean: "Elkarrengandik oso hurbil lan egiten duten langileak dira kutsatuak". Guztira, Ederlaneko lantegi ezberdinetan ari diren 2.500 beharginetatik 66 inguru daude konfinatuta, "koronabirusarekin lotuta, baina ez derrigor positibo emanda". Hori horrela, Axpek azaldu du "erabakiak" hartu dituztela enpresan, eta bulegoetan lan egiten dutenen erdiak telelanera bideratu dituztela, "neurriak hartu eta kontaktua are gehiago murrizteko".

Debagoienean, orotara, pandemia hasi zenetik 6.706 lagun kutsatu dira, eta 159 hil. Horren harira, aipatzekoa da azken egunetik aretxabaletar bat hil dela birusak jota.

## INTZIDENTZIA TASAREN BILAKAERA DEBAGOIENEN INTZIDENTZIA-TASA 700ETIK GORA, ATZO

Debagoieneko azken hamalau egunetik 100.000 biztanleko intzidentzia-tasak izugarri egin du gora azken bi asteetan; atzo, 766,86an kokatu zen. Hala, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako tasaz gairi dago eskualdekoa. Lurralde guztietan egin du tasak gora, baina ez eskualdean bezain nabarmen.

Debagoieneko tasak gora egin du herri handien artean, eremu gorrian daudelako Oñati, Arrasate eta Aretxabaleta; eta laranjan Bergara. Herri txikiei dagokienez, Eskoriatzak 877,41eko tasa erregistratu zuen atzo, eta Antzuolak eta Aramaio ere 400eko intzidentzia zeharkatu zuten.

## BILAKAERA EPIDEMIOLOGIKOA OSPITALERATZEAK ETA ZIU-ETAKO OKUPAZIOA, GORAKA

Kasu positiboek bezalaxe, ospitaleetan ingresatuta dauden pertsona kopuruak eta ZIUetako okupazioak ere gora egin dituzte, eta atzora arte 442 gaixo zeuden ospitaleetan; zaintza intentsiboko unitateetan dauden gaixo larriak, oster, 128 ziren. Debagoieneko Ospitaleari dago-

kionez, atzora arte hamabost ziren birusak jota ingresatutako gaixoak.

Azken egunetako egoera epidemiologikoak okerrera egin duela eta Gotzone Sagardui Osasun sailburuak esan du egoera "kezkarria" dela, eta ildo beretik jarraituz gero Osakidetza "lehentasunak" jartzen hasi beharko dela; esaterako, ebakuntza kirurgikoak atzeratzen.

### TXERTAKETA-PLANA

## 70 ETA 79 URTE ARTEKO HERRITARRAK TXERTATZEN DABILTZA

COVID-19aren aurkako txertaketa planaren baitan, asteburuan hasi dira 70 eta 79 urte arteko herritarrak Debagoieneko Ospitalean txertatzen, adinez nagusienak diren asteko hasita. Pfizer txertoaren lehen dosia hartu duenetako bat da Maribi Arregi oñatiarra, eta azaldu du txertoa hartzeko "gogoz" zegoela, eta horrek "lasaitasun pixka bat" ekarri diola: "Halere, oraindik ere segurtasun neurriak errespetatu beharko ditugu, biztanleriaren zati handi bat txertatzeke dagoelako oraindik". Horren harira, Osakidetza ohartarazi du 70 urtetik gorakoei poltsikoko telefonora SMS mezua bidaltzen hasi dela, mezuan ageri den estekaren bitartez txertoa hartzeko hitzordua eskatzen. Sistema horrek, baina,

## Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Oñati	91	51	1.098	95,74
Arrasate	90	71	2.770	125,44
Aretxabaleta	48	38	673	95,06
Bergara	34	23	1.415	94,11
Eskoriatza	26	10	334	81,40
Antzuola	6	3	213	97,75
Aramaio	6	0	144	97,30
Elgeta	0	0	51	45,09
Gatzaga	0	0	8	32,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>301</b>	<b>196</b>	<b>6.706</b>	<b>103,47</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

zailtasunak ekarri dizkio zenbaiti, mugikorra erabiltzen jakiteko zailtasunei lotuta. Gotzone Sagardui sailburuak adierazi du sistema "azkarra eta eraginkorra" dela, baina telefono deiak ere tartekatuko dituztela datu basean telefonorik jarrita ez duten pertsonen kasuan eta baita hitzorduak betetzen joateko ere. 70 eta 79 urte bitarteko pertsonen emateko Johnson & Johnson konpainiaren 6.850 dosi iristekoak ziren eguaztenean EAera. Halere, Estatu Batuetan sei odolbildu kasu larri atzeman dituzte eta txertoarekin lotura ote duten aztertzen ari dira. Europar Janssen txertoen bidalketa atzeratu egin da, prebentziozko neurri gisa.

Talde horri ez ezik, arrisku handiko kolektiboak osatzen dutenei ere hasi zaizkie txertartzen.

Bestetik, joan den asteburuan 80 urtetik gorako txertaketa amaitzea aurreikusten zuela azaldu zuen Osakidetza. Edozelan ere, aste honetan Pfizer txertoaren bigarren dosia jarri diete ibarreko zenbait laguni Debagoieneko Ospitalean. Felix Elorza aramaioarrak bigarren dosia hartu berritan GOIENari adierazi dio "itxaropena" ekarri diola, "eta baita lasaitasuna ere".

Azkenik, apirilaren 7ko Lurralde Arteko Kontseiluan, erkidegoek erabaki zuten 60 urtetik beherako herritarrei Astra-Zenecaren txertoa ez jartzea; hots, dosiak 60 eta 65 urte arte-

koei bakarrik ematea. Txertaketa etetearen ondorioz, Astra-Zenecaren lehenengo dosia jaso dutenekin zer gertatuko den zehazteke dago oraindik ere.

Orain arte, 558.000 txerto jarri dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, Sagardui sailburuaren arabera. 412.658k lagunek jaso dute lehenengo dosia, eta, bestetik, 147.219 dira biak jaso dituztenak; herritarren %6,69.

### OSTALARIK, PROTESTAN

## AZKEN NEURRIE LOTUTAKO HELEGITEA AURKEZTU DUTE

EAEko ostalariek astelehen honetan aurkeztu dute Eusko Jaur-laritzaren erabakiaren aurkako helegitea; izan ere, azken neurrien arabera, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 400 kasu baino gehiago pilatzen dituzten udalerrietan, ostalaritza-establezimenduek murriztu egin behar dute barruan kontsumitzeko ordutegia: 06:30etik 09:30era eta 13:00etik 16:30era, hain zuzen. Terrazetan orain arte bezala eskaini ditzakete zerbitzuak, lurraldeko gainerako lekuetan bezala; hau da, 06:00etatik 20:00etara.

Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako ostalaritza elkarteek azaldu dute ez dutela neurria ulertzen, eta sektorearentzat "kolpe latz bat gehiago" dela honako hau.

## Eremu gorriko herrietan zer egin daiteke?

### • Zein kasutan mugi daiteke udalerrri gorri batetik edo gorri batera?

Mugakide diren kasuetan, erosketak egiteko eta aire zabaleko jarduera fisikoa egiteko bada. Eta herri txikien kasuan, udalerrian bertan ez dauden zerbitzuetarako lekualdatzea ere baimenduta dago.

### • Zer zerbitzu eman dezakete taberna eta jatetxeek?

Terrazetan, 06:00etatik 20:00etara emango da zerbitzua. Baina barrualdean, ordutegia murriztu beharko dute 06:30etik 09:30era eta 13:00etatik 16:30ra.

### • Eta kirolari lotuta?

Kirol-jarduerak ez dituzte lau pertsonako taldeak gaudituko,

talde profesionalen eta federatuen entrenamenduei eta lehiaketei eragiten dietenak izan ezik. Horri lotuta, aldagelak eta dutxak itxi egingo dira kirol-instalazio mota guztietan, igerilekuetan izan ezik, %35eko edukierarekin. Aire zabalean, berriz, sei pertsona elkartu daitezke kirola egiteko.



## Gure ikasleen ahotan



## “LEINN graduoko egunero erronka desberdinetan murgiltzen gara”

Irene Aguriondo (Arrasate, 20 urte) LEINN graduoko hiru garren maila ikaslea da Mondragon Unibertsitatean, Oñatiko campusean. Arizmendi Ikastolan ikasi zuen eta kirola, gauza berriak ikastea eta pertsonekin erlazionatzea dira bere zaletasunak.

**Zergatik aukeratu zenuen LEINN? Eta Mondragon Unibertsitatea?**  
Batxilergo Zientifikoa egin ondoren, ez nuen neure burua gradu tradizional batean ikusten. Betidanik uste izan dut hezkuntzan berrikuntza sartu behar dela, pertsona bakoitzaren talentuak ateratzeko. Hori horrela, LEINN graduoko metodologia erakutsi zidatenean, motibaturik sentitu nintzen, kontuan hartuta barruan neukan ekintzaile sena landuko nuela.  
**Nola baloratuko zenuke LEINNEN bizitako esperientzia?**  
Hasieratik abentura berri batean sartu nintzela konturatu nintzen. Mundua ikusteko era ere aldatu egin zait eta egunero gauza desberdin bat ikasten dut.  
**Nola definituko zenuke ikasteko metodologia?**

Hainbat erronkatan murgiltzea da gure egunerokotasuna, ikasgaiak era dinamikoan erakusten dizkigute, errealtatera hurbilduz eta pertsonen beharrak detektatuz.  
**Unibertsitateetik zer gustatzen zaizu gehien?**  
Pertsona desberdinak ezagutzea, eta guztion artean sortzen dugun dibertsitatea.  
**Lehen egunetik enpresa bat sortu unibertsitatean eta proiektuak garatu; nola egiten da hori?**  
Esfortzuekin, nahiarekin eta ikasteko gogoarekin; bestela, ezinezkoa da eta. Egia da hasieran ez nuela sinesten enpresa bat sortzen ari nintzela, 16 gazte ezezagunekin helburua inpaktuzko proiektuak sortzea izanik.  
**Zer proiektu mota garatu dituzue graduon zehar?**

Mota guztietakoak. Hala ere, nire fokua hezkuntza emozionalean, hezkuntza berezian eta osasunean egon da. Hau da, gai horietan dauden hutsuneak detektatu ditudanean, talde-lanaren bidez hobekuntzak planteatzen dituzten proiektuak sortu ditut.  
**Atzerriko esperientziarik izan duzu?**  
LEINN graduoko abentura handienetakoa egiten ditugun bidaiak dira. Lehenengo urtean, Finlandiara bidaiatu genuen; bigarren urtean, Ameriketako Estatu Batuetara; eta momentu honetan, galdera hauek Seuldik erantzuten nabil.  
**Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?**  
Gustatuko litzaidake nire proiektuen bitartez munduan dagoen erronka bati irtenbide bat aurkitzea.



Arantzazuko Interpretazio Zentrora egindako bisita gidatuetako bat. IRINA ALVAREZ

# EAEko bisitariz bete dira tokiak

Ezohiko Aste Santuan turistaz bete da Debagoiena, eta berritasuna izan da euskaldun bisitariak izan direla gehienak. Bisita gidatuek arrakasta izan dute, landetxeak eta hotelak beteta egon dira eta jatetxeek eta tabernek bezero ugari jaso dituzte

## Maialen Santos ARRASATE

Bailarako herrietan antolatutako turismo eskaintza arrakastaz burutu da aurtengo ezohiko Aste Santuan, eta programatutako bisita gidatu guztiak lepo bete dira. Segurtasun neurri guztiekin eta edukiera murriztuarekin egin behar izan dituzte, halere.

Mugikortasun mugen eraginez, EAE osoko bisitariak izan dira nagusi Debagoieneko herrietan azken egunetan, eta bailarako herritar askok ere aprobetxatu dute inguruko herriak hobeto ezagutzeko aukera. Herrian bertan geratu denik ere izan da.

## Bisita gidatuek, jakin-mina

Eskaintza turistiko handieneko herria izan da Oñati. Arantzazu ez ezik, herriguneko monumentu historikoak, Arrikruz kobak, Gomiztegiko Artzain Eskola eta Txokolatearen Interpretazio Gu-

nea ikusteko aukera baliatu dute askok, eta Turismo Bulegotik azaldu dute bisita gidatuek jakin-min handia piztu dutela: "2019ko datuekin alderatuta, aurten bikoiztu egin dira bisitariak. Urte hartan, Oñatiko Turismo Bulegoak 580 bisitari turista jaso zituen, eta aurten, aldiz, 1.247 izan dira". Gehitu dute *Altxorren bila* bisita gidatuak bete egin direla eta Txokolateixara ere jende ugari hurbildu dela, "500dik gora pertsona". Arrikruztzeko bisita gidatuak, bestetik, ordu erdian behin egin dituzte, eta 494 pertsonak izan dute aukera kobak bisitatzeko, aurrez erreserba eginda.

Jatorriari dagokionez, bulegotik pasatu direnen %57 Bizkaikoak izan dira, %31 Gipuzkoakoak eta %12 Arabakoak.

Arantzazuko parkinga eta San Martingo autokarabana-gunea

## Arantzazu, topaleku

Batez ere, euskaldun bisitariak hartu ditu Arantzazuko Aste Santuan.

Bertako Turismo Bulegotik 605 lagun pasa dira: 603 izan dira EAE barruko bisitariak, eta nafar bat eta madrildar bat ere joan dira informazio eske. Lurraldeka, gipuzkoarrak izan dira bulegora gehien gerturatu direnak (275); jarraian, bizkaitarrak (245); eta gero, arabarrak (59).

Bestetik, Arantzazun egin dituzten 21 bisita gidatuetan 104 lagunek hartu dute parte.

beteta egon dira, eta, horrenbestez, herriko beste gune batzuetan ere izan dira autokarabanak: "Gogoratu behar da gune horiek ez direla kanpatzeko lekuak, baizik eta aparkatzeko".

Bergaran, bestalde, monumentu historikoetan hamar bisita gidatu egin dira, guztira. Laboratorium museotik 150 pertsona inguru pasa dira; gipuzkoarrak, gehienbat. Bergarako Turismo Bulegotik adierazi dute kanpotarrei "harrigarria" egin zaiela herria hain ezaguna ez izatea, "ondare aberatsa duela ikusi dutelako". Museoa dagoen material zientifikoak ere arreta piztu duela gaineratu dute.

Intxortako ibilbide gidatuan ere lau bisita egin dituzte Aste Santuko egunetan zehar, eta 22 lagunek erakutsi dute interesa -bisita bakoitzean gehienez ere sei pertsonak hartu dute parte-.

## Ostatuak, ia beteta

Eguna pasatzera ez ezik, egun batzuk igarotzera eskualdera hurbildu denik ere egon da, eta, hain zuzen, ibarreko hoteletan eta landetxeetan hartu dute ostatu turistek. Aretxabaletan, Urkulu landetxean "jende mugimendua" sumatu dutela azaldu du bertako arduradun Monika Lizaraburuk, nahiz eta azken unera arte gorabeherak izan dituzten: "Jende askok egin du erreserba, eta gero, bertan behera utzi". Halere, oro har, landetxea nahiko beteta izan dutela azaldu du, eta, bizkaitarrak ez ezik, Donostia inguruko jendea ere hartu dutela Urkulun.

Elgetako Maialde nekazaritza turismoa ere "guztiz beteta" izan dute jaiegunetan, eta ia beteta Pazko astean. Bertako arduradun Jesus Kalboetxeagak adierazi du duela bi urteko Aste Santuarekin aldera daitekeela aurten-

## "2019AREKIN ALDERATUTA, BIKOIZTU EGIN DIRA OÑATIKO BISITARIAK"

IKERNE ALTUBE, UDAL TEKNIKARIA

## "EUSKALDUN JENDEA HARTU DUGULA IZAN DA AURTENGO EZBERDINTASUNA"

JESUS KALBOETXEAGA, MAIALDE

goa: "Iaz, konfinatuta egon ginen, baina duela bi urte aurtengo antzera ibili ginela esango nuke. Ezberdintasun bakarra zera izan da: aurten, euskaldun jendea hartu dugu gurean, mugikortasun neurrien eraginez".

## Jatetxeetan, erreserba ugari

Tabernetan eta jatetxeetan mugekin aritu dira lanean; izan ere, zortzietarako itxi egin behar izan dituzte ateak, eta, ondorioz, ezin izan dute afaltzeko aukerarik eskaini. Edozelan ere, bazkaltzeko erreserba eta bezero ugari hartu dituztela azaldu dute.

Leintz Gatzagako Maulanda jatetxean "lanez gainezka" aritu direla azaldu du Itziar Fernandez de Arroiabek. "Inoiz baino lan gehiago izan dugu. Normalean, gainerako urteetan, Pazko asteko egun batzuetan jai hartu izan dugu, baina aurten ezin izan dugu, gainezka egon gare-lako". Gehitu duenez, bezero gehienak Donostia ingurutik joan zaizkie.

Gure Ametsa jatetxean ere ildo beretik aritu dira, "jaiegunetan lan handiarekin", bertako arduradun Josune Ibaberen hitzetan: "Izan ditugun bezeroak erkidego osotik etorri dira: Zarautzik, Zumaiatik, Bilbotik, Portugaletetik...". Hala eta guztiz ere, aste batetik bestera izugarizko alde sumatu dutela aitortu du: "COVID-19 kasuen gorakadari lotuta, udalerririk perimetralki ixten hasi ziren, eta bezero kopurua ere murriztuz joan zen".

Eguraldi onak terrazetara ere erakarri ditu bisitariak. Aretxabaletako Orly tabernako Igor Ezkibel arduradunak igarri egin du hori: "Arratsaldeetan ibili da jende gehien, eta, herriko jendeaz gain, mendizaleak ere izan ditugu gurean".

## "BERGARAREN ONDARE ABERATSAK HARRITU EGIN DITU BISITARIAK"

LABORATORIUM MUSEOA

## "INOIZ BAINO JENDE GEHIAGO IZAN DUGU, EZIN IZAN DUGU JAIEGUNIK HARTU"


ITZIAR FERNANDEZ, MAULANDA

# Errenta aitortpena egin daiteke jada, hiru eratan

Apirilaren 12an ireki zen Gipuzkoako 2020ko Errenta Kanpaina, eta ekainaren 30era arte iraungo du; bailarako udalek errenta aitortpena euskaraz egiteko dei egin dute, azken urteetako joerari eusteko: "14 urtean 16 puntu igo da euskarazko hautua"

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Debagoiendarrek hiru modu izango dituzte Gipuzkoan errenta aitortpena egiteko: alde bate-tik, Ogasunak egindako autolikidazio proposamena onartzeko aukera edukiko dute, joan den astelehenean abiatu zena. Bestetik, aitortpena Bergarako bulegoan bertan egin ahalko dute aramaioarrek, Gasteizen-, aurrez txanda hartzeko hitzordua eskatuz; aukera hori gaurtik aurrera balia daiteke, eta hitzorduei datorren astelehenetik aurrera ekingo diete. Eta, azkenik, Ogasunak hobesten duen aukera dago, Interneteko Zergabidea programaren bitartez



Zergadun bat errenta aitortpena egiten Bergarako Ogasun Bulegoan. UXUE IGARZA

egiten dena. Hiru aukera horiek euskaraz egin daitezkeela nabarmendu dute bailarako udalek, eta, egunotan, hautu horien aldeko eskuorriak banatzen ari-tu dira herriz herri.

**Euskarazkoak, goraka**

Herritarrak administrazioarekin euskaraz "gero eta gehiago" komunikatzea "positiboki" baloratzen dutela adierazi du Bergarako Ogasun Bulegoko ardura-dunak, Alvaro Gomezek, eta joera hori handitzen saiatuko direla nabarmendu. Izan ere, 2006an, hamar debagoiendarretatik bakarrak egiten zuen errenta aitortpena euskaraz, eta iaz, aldiz, lautik batek. Hurrenez hurren, antzuolarrak dira euskarazko harremanik handiena dutenak, iaz %41ek aukeratu baitzuten bide hori. Atzetik datoz elgetarrak -%38-, oñatiarrak -%31-, gatzagarrak -%31-, bergararrak -%26- eta aretxabale-tarrak -%26-. Bailaran proportzionalki arrasatearrak eta eskoriatzarrak izan ziren euskaraz gutxien hautatu zuten herritarrak, bietan %19k egin baitzuten bide horren alde.

**Diru-bilketan, "jaitsiera"**

Pandemiak eragindako Aldi Baterako Enplegu Erregulazio-ko Espedientea dutenentzat egokitzapenak egin dituztela adierazi du Ogasunak. Hala, iaz 14.000 euro baino gehiago kobratu zutenak derrigortuta egongo dira deklaratzera; 2020ko kanpainara arte, bi ordaintzailerengandik gutxienez 12.000 euro jasotzen zutenek egiten zuten deklarazioa. Hala ere, "ia denei" ordaintzera aterako omen zaie, "lan egoera horretan daudenek hileroko nominan errententziorik jasaten ez dutelako".

Aurreikuspenen arabera, iaz baino "39 milioi euro gutxiago" batuko ditu Gipuzkoako Ogasunak, Jokin Perona diputatuak azaldu duenez. Izan ere, 292,1 milioi euro itzuli eta 273,2 milioi euro jasoko dituzte, eta kanpainaren saldoak 18,9 milioiko defizita izango du. Ogasunak 382.000 aitortpen jasoko ditu, guztira -iaz baino 2.027 gutxiago-; horietatik 259.000 aitortpen itzultzeko izango dira, eta zergadun bakoitzak batez beste 1.128 euro jasoko ditu. Gainontzekoek 2.221 euro ordainduko dute, batez beste.

## DEBAGOIENeko EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"Guztion eskola, Guztion artean"

# BATXILERGOAK

### MATRIKULAZIOA

## APIRILAREN 12TIK 23RA

**ARRASATE - Arrasate Institutua**

- \* Zientziak
- \* Giza eta Gizarte Zientziak
- \* Arte Batxilergoa

**INFORMAZIOA**  
www. arrasatebhi.bezkuntza.net  
tel: 943 89 94 78

**BERGARA - Ipintza Institutua**

- \* Zientziak
- \* Giza eta Gizarte Zientziak

**INFORMAZIOA**  
www.ipintzabhi.bezkuntza.net  
tel: 943 89 94 44

**OÑATI - Oñati Institutua**

- \* Zientziak
- \* Giza eta Gizarte Zientziak

**INFORMAZIOA**  
www.onati.net  
tel: 943 89 92 98

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!**

**baikara**

**goieskola**  
debagoieneko euskal eskola publikoa

605 77 39 92

GOIESKOLA@GMAIL.COM

# Aramaion parke eolikoa eraikitzea aztertuko dute

Dagoeneko eskatu du Arlaban mendatean haize-neurketak egiteko baimena Energiaren Euskal Erakundeak eta Iberdrolak osatzen duten Aixendar sozietateak; Aramaioko Udalak azaldu du "herriari galdetu gabe" egin nahi dutela proiektua

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Joan den astelehenean argitaratu zen Arabako Aldizkari Ofizialean Aramaioko 8. poligonoko 142 B partzela interes publikokoa izendatzeko espediente hasiera, inguru horretan haize-neurgailua jartzeko baimena eskatzeko helburuarekin. Aixendar SA enpresak egin du eskaera, zeina akzioen %60 Iberdrolaren eskumena eta %40 energia berriztagarriak sustatzeko helburu duen Energiaren Euskal Erakundearenak diren.

Proiektuaren lehen pausoa urbanizazina den eremuan haize-neurketak egiteko 81 metroko dorre bat ezartzea izango litzateke. Instalazio horrek ez luke zimentazio beharrik izango eta lurrera ainguratutako kable bidez mantenduko litzake zutik, ingurua hesiz ixteko beharrik izan gabe. Lursailaren jabeak eta Aixendarrek lurzatiaren erabilera bi urterako uzteko kontratua sinatu dute.

Dorrea hartuko duen lurzati *Natura interesa dela eta babes-tutako zona* bezala dago kalifikatuta. Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak dio arrazoi zientifiko edo topografikoengatik edo antzeko arrazoiengatik lursailean kokatu behar diren onura publikoko edo gizarte intereseko jarduerak, eraikinak eta instalazioak baimentzen direla, Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 28.5. artikuluan jasotakoaren arabera.

## Foru diputatuaren onospena

Arabako Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak, Josean Galerak, 72/2021 Foru Agindua onartu zuen martxoaren 26an, "haizea neurtzeko Arlaban-3 estazio meteorologikoa instalatzeko zein desinstalatzeko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari" hasierako onospena emateko. Ara-



Elgeako parke eolikoa, Debagoienetik gertuen dagoena. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

## ALEGAZIORIK ONARTU EZEAN, 81 METROKO NEURGAILUA JARRIKO DUTE ARAMAIOKO LURSAILEAN

bako Aldizkari Ofizialean argitaratutako agiri horretan azaltzen duenez, Aixendar SAK obra lizentzia eskatu dio Aramaioko Udalari, eta hark, legeak hala behartuta, Arabako Foru Aldundira bidali du eskaera. Beraz, "proiektuaren interes publikoaren adierazpena izapidetu dadila" eskatu du Aldundiak, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

## Alegazioak, hogeit egunez

Behin espedientearen hasierako hobespena emanda, hogeit egunez egongo da jendaurrean jarrita, maiatzaren 2ra arte. Epe horretan, interesa duenak "egoki irizitako alegazioak" aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan azter dezakete espedientea. Azkenik,

72/2021 Foru Aginduaren aurka "errekurtsorik aurkeztu ezin dela" jasotzen du dokumentuak.

## Udalaren iritzia

"Alegazioak ez balira egongo edo aurkeztu direnak ez balira onartuko", partzela interes publikokoa izendatuko litzatekeela eta neurgailua jarriko litzatekeela adierazi du Aramaioko Udalak. Izendapen hori gauzatu balitz eta neurtutako emaitzak onak balira, parke eoliko bat jartzeko proiektuak argi berdea jasoko luke. Hori "interes publikoaren izenean eta udalerrriaren iritzia galdetu edo kontuan izan gabe" egingo litzatekeela argi utzi nahi izan du Udalak, eta, momentuz, gaia "sakon lantzen" ari direla gaineratu du Lierni Altuna alkateak.

## Beste lau parke, bidean

Arabian parke eolikoak eraikitzeak interes handia du Aixendarrek, Azazetan, Iturrietan, Labrazan eta Arkamon ere egin baitituzte eskaerak. Probintzia horretan bi parke daude oraingoz, Elgea-Urkilan eta Bidaian. Asmoak gauzatu balira, zortzi parke eoliko egongo liriteke.



Udalekuak 2021 egitasmoaren antolatzaileak, aurtengo eskaintza aurkezten. GFA

## Udalekuetarako 1.075 plaza, haur eta gazte gipuzkoarrentzat

'Gazte oporraldiak' eta 'Udalekuak' programak eskainiko ditu aurtun Foru Aldundiko Gazteria Sailak

H.L. DEBAGOIENA

Oporraldietan "gozamina, autonomia, bizikidetzatza, ingurumena, euskara, tokian tokiko ohiturak eta kultura baliabideak" sustatzeko asmoz, *Udalekuak 2021* kanpaina jarri du abian Foru Aldundiko Gazteria Sailak. Adin tarteak aintzat hartuta, bi egitasmotan parte hartu ahalko dute Gipuzkoan bizi diren neska-mutilek: 7 eta 13 urte artekoentzat *Udalekuak* programa izango da, 728 plaza izango dituen; eta 14 eta 17 urte bitartekoentzat, berriz, *Gazte oporraldiak* egitaraua, 347 neraberi tokia eskainiko diona. Lehenengoentzako ekintza-sorta uztailaren 7tik 29ra bitartean izango dute eta bigarren eskaintzako jarduerak uztailean eta abuztuan egingo dituzte, 7, 10 eta 12 eguneko oporraldietan. Horiek euskarazko zortzi txandatan eta gaztelerazko bost txan-

datan egongo dira banatuta, eta 258 eta 89 partaideko edukiera izango dute, hurrenez hurren.

Gazteenentzat zuzendutako programan, Hondarribiko, Orioko eta Zarauzko foru aterpetxeak, Arantzako aterpetxea, Irrisarri Land eta Azkoitiko Abaraxka aterpetxea erabiliko dituzte instalazio modura. Izen-ematea apirilaren 20ra arte egongo da zabalik, [www.gipuzkoa.eus/udalekuak](http://www.gipuzkoa.eus/udalekuak) atarian.

Nerabeek, bestalde, Baztango eta Urdaibaiko txokoak ezagutzeko, belaontzian ibiltzeko eta Pirinioetako abenturazko ekintzak egiteko aukera izango dute.

## Bailarako eskaintza

Txatxilipurdi (Ikus 14. orria) eta Jardun (Ikus 25. orria) elkarteez, berriz, euren egitarau propioa izango dute udara begira, Uemaren Salto udalekuak eta Arabako udalekuak ahaztu gabe.

## 95 milioi euro, "ehun ekonomikoari indarra emateko" Gipuzkoan

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Ekonomia indartuz* plana aurkeztu zuen joan den astelehenean. "Pandemiak gehien erasandako sektoreek" 40,5 milioi euro jasoko dituzte, "azpiegiturarako inbertsioak" 25,5 milioi eurokoak izango dira eta "ekoizpen sarearen lehiakortasuna sustatzeko" 29 milioi euro bideratuko dituzte, guztira.

## "Laster" ekingo diete Kataideko bidegorriko hobekuntza lanei

Aldundiko Mugikortasuneko Zuzendaritzak "690 metrotan espaloia bidegorri bihurtzeko oztipo administratiboak" ebatzi dituela adierazi du Rafaela Romero foru diputatuak. Arrasateko ekialdea eta Elorregi arteko ibilbide zatia "handitu, hobetu eta egokitzeko" lanek, orotara, 227.000 euroko kostua izango dute.

# CEBANC:

LANBIDE HEZIKETA

*Eman forma zure  
etorkizunari!*



**SORTU. PARTEKATU. ERAIKI**  
Zentro honetan bizipenak sortzen direlako.

## *ate irekien* SAIOAK

Cebanc-en mugiarazten gaituen eragilea profesionalen prestakuntza kualifikatua da. Ikasleak lan-mundurako prestatuak sentitzea eta izatea. Etengabeko irakaskuntza irekia eta inklusiboa sustatuz, ikasleen balioak eta gaitasunak indartuz.

Gure prestatzeko modua parte-hartze aktiboa sustatzea da. Cebanc-eko hezkuntza ereduak teknologia berriak ezartzen ditugu, egungo ingurune eta gizartera egokitzeko xedearekin.

### **OSTALARITZA & TURISMOA:**

Maiatzak 6 (osteguna), 18:30. (aurrez aurrekoa)

### **DIETETIKA:**

Maiatzak 27 (osteguna), 18:30. (aurrez aurrekoa)

### **INFORMATIKA:**

Apirilak 15 (osteguna), 18:30. (online)  Meet

Maiatzak 15 (larunbata), 11:00. (aurrez aurrekoa)

### **MERKATARITZA ETA MARKETINA:**

Apirilak 22 (osteguna), 18:30. (online)  Meet


Maiatzak 22 (larunbata), 11:00. (aurrez aurrekoa)

### **ADMINISTRAZIOA:**

Apirilak 24 (larunbata), 11:00. (online)  Meet

Maiatzak 20 (osteguna), 18:30. (aurrez aurrekoa)

### **OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA:**

Apirilak 29 (osteguna), 18:30. (online)  Meet

Maiatzak 29 (larunbata), 11:00. (aurrez aurrekoa)



ZABALIK

MALEN UGARTE IRIZAR

## COVID-lagunak

Zerbait hautsi zaigu eta ez dakigu zer, baina zerbait hautsi zaigu. *Jon Benito.*

100 bat pauso eman ondoren etxeko portxea begitantzean zitzaidan urrunean. *Oihane Amantegi*

Edozein erabaki, akats bat da funtsean. *Gari*

Ondo gogoan ditut aitaren nola zimurtuz joan ziren, zahartuz doazen adiskideen eskuetan bilatzen ditut harenak. *Mari Luz Esteban*

Mina denontzat al da mina? Negarra denontzat berdina? Ez al da gaitz bat maitemina? Latza eta sendaezina? *Alaitz eta Maider*

Joan zinen baina hemen zaude oraindik. *Peiremens*

Neure burua Positive Bomb, bilakatu nahi dut Positive Bomb!

*Joxe Ripiau*

Ai putzuak beteak ez baleude apoz, norik emango lioke bizitza honi poz? Penak uxatzen ditut eskusoinua joz, nahiago baitut bizi ahuspez baino, hauspoz! *Joseba Tapia*

Ez dugu nahi berorik zuen musuen sua baino. *Akelarre*

Amestea zer ote den galdetu zenidan zuk behin, nik jakingo banu bezala. *Olatz Salvador*

Lehenengo josteko makinak badabiltza oraindik, eskuak falta dira. *Uxue Alberdi*

Horrela bada bizitza, hartuko dut beti den moduan, horrela bada bizitza, beti aurrera egin beharko da. *Zea Mays*

Goizian jaikitzen

## AMESTEA ZER OTE DEN GALDETU ZENIDAN ZUK BEHIN, NIK JAKINGO BANU BEZALA

lehenbiziko gauza, Instagram ireki eta nolako zalantzak. *Chill Mafia*

Ispilu aurrean ikusi al da bakoitzaren funtsa mundu puta honetan? *Latzen*

Nik ez dut *hutsa* menderatu nahi, ez eta *hutsa-z* menderatua izan, nik neuk *hutsa hatsa hotsa* izan nahi baitut. *Hartzabal*

Zenbat denbora behar dugu bakarrik, zenbatero hartzen dugu denbora, behar dugu, etzan eta ixo. *Sara Zozaya*

Begira erlojuetako orratzak, uneka herdoiltzen. *Ruper Ordorika*

Ez daukat leziorik, ez onik ez txarrik, inori mokadutzat emateko. *Leire Bilbao*

Zerbait asmatuko dugu. *Berri Txarrak*

Aizu, esaidazu, euria gogor ari du, aterako al gara gauez? *Audience*

Kaleak, arnasa, arnasak, bizitza, bizitzak poza, pozak osasuna... Lehenbailehen! *Maialen Lujanbio*

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Zozomikoteak

**F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ**

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Arriskuaren gizarteaz mintza zitzagun Ulrich Beck. Tamalez, arriskuak ezbehar bihurtzen zaizkigu.

Badira ezagunak zaizkigun arriskuak.

Are gehiago, horietako batzuek erator ditzaketan ezbeharrak aurreikus genitzake.

Horren adibide, ama lurra behar bezala ez zaintzearen ondorioak.

Zientzialariek sarritan gogorarazten digute ama lurra artatu behar dugula.

Ezin omen gara konfiatu, lasaitu.

Halatan, zozomikoteen istorioa baliagarri zaigu naturarekin olgetan ibiltzerik ez dagoela ulertzeko.

Txarrak izan bide dira apirileko lehenengo bi egunak. Zozomikoteak deritze horiei. Esaera zahar batek ere argi dio: *Zozomikote-egunak, tristeak eta ilunak.*

Agidanez, *zozo-bikote*-tik dator izen hori, *zozo-bikoteak* sasoi horretan hasten direlako parekatzen.

Behinola, zezen batek desafio egin ei zion Martxoari, esanez ez zela negua, ezta udaberria ere, eta inoiz ez zuela mendean hartuko.

Martxoa, halakoak entzunda, zeharo haserretu

zen. Atoan, elurra mara-mara hasi zen, baso eta zelaia zurituz. Baina zezena babesean jarri zen, arta handi baten azpian.

Martxoa aurrera zihoan, eta zezenak jateko gero eta belar gutxiago zuen. Alabaina, Martxoa laster amaituko zela eta, lasai zegoen animalia, garaile aterako zelakoan.

Baina Martxoak laguntza eskatu zion Apirilari, esanez: "Apiril, Apiriltxo, emaniezazkidazu bi egun, eta nire asmoak beteko ditut". Bai eta Apirilak egunok eman ere.

Martxoak ekaitza gogortu zuen orduan, sekula ikusi gabeko tximista, eurite eta txingorradekin. Horrelaxe akabatu zuen zezena.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretrabaleako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



## BERBAGAI

# "Nola bizi eta hil erabakitzekeo eskubidea izango dugu laster"

TXEMA LORENTE EUTANASIAREN ALDEKO EKINTZAILEA

**Maialen Santos** ARRASATE

Alzheimerraz gaixotu zenean hiltzen lagun ziezaioten eskatu zien senideei Maribel Tellaetxek. Ezin izan zuten promesa hura bete, eutanasia legez kanpoko zelako. Asteon, Arrasaten izan da haren senarra, *La promesa* ikus-entzunezkoa aurkezten.

**Zergatik ekoitzi duzue ikus-entzunezkoa?**

Beti esaten dut sekula ekoiztu beharko ez litzatekeen dokumentala dela. Baina, zoritxarrez, legeak milioika pertsona euren borondatearen aurka bizitzera behartzen ditu: autonomiarik gabe, duintasunik gabe eta sufrimendu handiarekin.

**Oso gertutik bizi izandako istorioa jaso duzue...**

Esango nuke maitasunari eta errespetuari egindako keinua dela. Dokumentalak erakusten du hamazazpi urte luzeren ostean alzheimerrek jota hil zen nire emazte Maribelen egunerokoa. Bi egunegon ginen filmatzen nola bizitza



Txema Lorente, Arrasaten, Kulturaten, astelehenean. JONE OLABARRIA

duina izateko zailtasun handiak zituen.

**Duintasunez hiltzeko eskubidea aitortuta egongo da laster...**

Zorionez, bai. Diputatuen Kongresuko osoko bilkurak eutanasia arautzen duen lege

organikoa onartu zuen martxo amaieran, eta, horren ondorioz, araudia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera sartuko da indarrean, ekainaren 25ean.

Horrenbestez, duintasunez hiltzeko eskubidea aitortzen duen munduko zazpigarren estatua izango da Espainia.

**Zer ekarriko dizu eutanasia legeztatzeak?**

Legeak norbanako bakoitzaren erabakia errespetatuko du; eutanasiaren aurka eta alde dauden pertsonena, denena. Hori da lege honek duen onena. Orain arte, eutanasiaren alde geundenok berdin pentsatzen ez dutenak errespetatu behar izan ditugu, baina gu ez gintuzten errespetatzen.

**Zuentzako berandu dator legea?**

Bai, oso. Pena handia da Maribelek heriotza duinaz gozatu ezin izana. 2019ko martxoan hil zen bera. Hala eta guztiz ere, legea onartu zutenean izugarritzko poza sentitu nuen, aurrerantzean milioika pertsonak erabaki ahal izango dutelako nola bizi eta hil gura duten, beharrezkoa ez den sufrimendua saihestuz.

**Horri buruz ere jardun zenuten Kulturaten...**

Interesgarria izan zen: jende dezente elkartu ginen, eta galdera asko egin zizkiguten. Eutanasiaren bueltan jardun genuen hizketan, aurretiazko borondatearen dokumentua bereziki landuz.

**Zertan datza?**

Norbanako batek borondatea pertsonalki adierazi ezin duenean kontuan hartu behar diren jarraibideak jasotzen dira horretan. Medikuntza taldeari zuzendutako dokumentu bat da, eta legeak norbanakoa soilik babesten du; hau da, norberaren gaineko erabakiak soilik errespetatzen dira. Beraz, inork ezin lezake, adibidez, niretzat eutanasia eskatu.

**Noiztik ari zarete borrokan?**

Duela bi urte eta erdi hasi genuen. Semeetako batek, Danelek, oso gaizki ikusi zuen ama, eta gutun bat idatzi eta publiko egitea erabaki zuen. Harritu egin gintuen gutun hark emandako zeresanak, eta konturatu ginen badagoela kontzientzia sozial bat eta, beraz, borroka bat.

**Gerora etorri zen dokumentala. Hainbat sari irabazi dituzue...**

Nazioarteko hamalau sari: bost European, hiru Asian eta sei Amerikan. Izugarri pozik gaude, jakin-min handia piztu duelako, eta hausnarketara bultzatu.

**Non ikus daiteke?**

Nazioarteko jaialdian erreproduzitzen ari dira, eta ziko hori amaitzean jarriko dugu ikusgai. Bien bitartean, elkarrean edo udalen bitartean ari gara erakusten.

## ITURRI ONETIK

## Intsumisioa Bergaran, erakusketan

Bergarako Objeto Talde Antimilitaristan (BOTA) aritutakoak erakusketa prestatzen ari dira, soldadutza desagertu zela 20 urte betetzen direla eta. Erakusketa egingo dute urrian, Aroztegin. Hala, 1990eko hamarkadako materiala batzen ari dira: argazkiak, irudiak... Testigantzak ere jasotzen ari dira, Asier Altuna zinegilearen laguntzarekin. Soldadutzari uko egitearen epaitu edota kartzelara bidali zituzten bergararren testigantzak jaso dituzte erakusketarako.

## ALBISTE IZAN ZEN

2021-04-07

## Samuel Sanchez garaile Itzulian, Oñatin

Aurtengo Euskal Herriko Txirrindularitza Itzulia ikusgarria izan da. 2012koa ere izan zen, eta Debagoiena izan zuen protagonista. Azken etapa biak Oñatin jokatu ziren: amaierako erlojupekoa, Oñatin barrena, eta bezperako etapa amaiera. *Purito* Rodriguezek eta Samuel Sanchezek jokatu zuten azken aurrekoa esprintean, eta lehena nagusitu zen. Ostera, erlojupekoan, Euskalteleko asturiarra izan zen akarrena eta hark eroan zuen Itzulia.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

## Sofia erregina eta Ternua maskara

Ternua etxeko maskararekin azaldu da asteon Sofia Espainiako erregina, eta sare sozialetan umorea izan da nagusi:

*@ideiazabaldub*: "Ternua musukoak erabiltzen ditu Espainiako Sofia erreginak, euskal estetika *borrokilla* gustatzen zaio antza".

*@mcirez*: "Ternua maskarak errege jauregiraino iristen dira! Oso ondo".

*@abjamaiaa*: "Egiten badut txantxa bat erreginaren ternua maskarillari buruz kartzelara noa?".

*@jonurbietta*: "Ternua damakizuen danak oain monarkiaren alde zaudete".

## Arizmendiko DBHko lehen mailako EhKO HERRIA PROIEKTUAN lagundu gaituzuen guztioi

GADEA ERRASTI DIAZ DE GEREÑU

ARIZMENDI IKASTOLAKO DBH-KO LEHEN MAILAKO IKASLE ETA IRAKASLE TALDEA DEBAGOIENA

Bukatu dugu dagoeneko zuokin partekatu dugun EhKO HERRIA proiektua, eta ez genuke lana guztiz itxi nahi zuen parte hartzea eta laguntza eskertu gabe.

Iraunkortasuna ardatz izan duen PROIEKTU honetan ugariak izan dira landu ditugun ikuspegiak, jarduera ezberdinak burutu ditugu, gure herrietara hurbildu gara herritarren iritzia zein beharrak ezagutzera, eta, hobetzeko asmoz, proposamen zehatzak garatzera iritsi gara.

Prozesu guztian zeharreko zuen presentziak –hasierako ekarpenak, PROIEKTUAN zeharreko jarraipenak zein amaierako produktuen aurkezpenetan parte hartu izanak– askoz kutsu erreala eman dio gure ibilbideari, eta horrek motibagarriago bilakatu du lana bera.

Honegatik guztiagatik, beraz, mila esker!

## Gotzon Telleria, larriki gaixo

XABIER ARREGI MURGIONDO

SARE OÑATIREN IZENEAN OÑATI

Ehunka herritar batu ginen duela aste pare bat Joseba Arregi *Azpilleta* oñatiarraren

egoera salatzeke eta aske uzteko eskaria ozenki zabaltzeko Martuteneko kartzela atarian. *Azpilleta*-k itxita beharko lukeen kartzela erdoil horretan ospatu behar izan zituen bere 75. urteurrena. Aski da. Josebak aske behar du izan!

Oraingoan, Gotzon Telleria herrikidea izan nahi dugu gogoan, Josebaren ekitaldian halaxe izan bagenuen ere. Gotzonen egoera bereziki larria salatzea eta lau haizeetara zabaltzea gatoz, lerro hauen bitartez. Berrogei urte luze erbesteratuta egon behar izan ondoren, egun, preso dugu Duesoko kartzelan, Kantabrian. Bere etxetik urrun, ehunka kilometrotara oraingoraindik ere 65 urte betetzera doan oñatiarra. Gainera, Gotzonen sendaezina duen gaixotasuna garatu du. ELA gaixotasuna hain justu, alboko esklerosi amiotrofikoa. Halabeharrez, hilabeteetan heriotzara eramaten zaituen gaixotasun sendaezina. Gotzon larriki gaixo dago, eta, gainera, preso. Ezin du egun bat baino gehiago kartzelan egin. Gaixotasuna areagotzea besterik ez dio ekarriko kartzelan jarraituz gero. Are gehiago, egun bizitzen ari garen osasun egoeraren ondorioz, eta, bereziki, kartzelan dauden osasun-baldintza kaxkarrak aintzat hartuz gero.

Denok izan behar dugu salbuespenezko espetxe politika amaitzeko bidearen parte, behin betikoz presoekin eskubideak errespetatu dituzten

eskatzeko, espetxea ere gure gizartearen zati bat baita. Denon artean, konponbidearen eta bakearen bidean, lortuko baitugu euskal presoekin oinarritzeko eskubideak betetzea eta gaixo larriek bizi duten sufrikarioa amaitzea. Gaitza baldintza duinetan artatzeko osasunaren eskubidea errespetatua izan dadin, larriki gaixo dauden presoak etxera ekartzea eskatzen dugu.

Gotzon Telleriak bere etxean egon beharko luke, gaixotasunari eta bizitzari ere aurre egiten bere senideekin batera. Horregatik guztiagatik, ozenki eskatzen dugu Gotzon libre utzi dezatela, denbora galdu gabe.

Gotzon Telleria, etxera!

## Juanjo Ansoategiri, esker onez

KRISTINA PAVO NUÑEZ

EMUN KOOPERATIBA ELKARTEKO LEHENDAKARIA, EMUNENKO LANTALDE OSOAREN IZENEAN ARRASATE

Azkarregi eta isil-isilik joan zaigun Juanjo Ansoategiri esker ona eman nahi diogu EMUNeko kideok.

Frankismo bete-betean jaiotako beste askorentzat bezala, euskara ez zen indargunea izan Ansoategirentzat. Izan ere, Francoren diktadurak arrakasta izan zuen, eta belaunaldi bakarra nahikoa izan zen familia askotan euskararen transmisioa mozteko.

Hala ere, Ansoategirik ibilbide oparoa egin zuen euskarari

dagokionez: era guztietako bilerak natural gaztelaniaz egitetik, lehen urratsa egin zuen "nigatik ez hitz egin gaztelaniaz" esanda, eta, denbora batera, bileretan euskaraz egitera pasatu zen.

Are oparoagoa izan da Fagor Taldeko lehendakari eta euskaltzale gisa egindako bidea.

Lan munduko euskara planek bide labur-laburra zutela, hasieratik bertatik (1996-1997) bultzatu zituen Fagor Ederlanen eta Fagor Taldean. Eta, horrekin batera, proiektu hasi berria baino ez zen EMUNen aldeko apustua egin zuen. Ordudanik, Fagor Taldea gure kooperatibako bazkide da.

Urte batzuk geroago, konfiantzan, ea euskara planak hasierako asmoak eta helburuak betetzen ari zirenekin galdetzerakoan, bere erantzuna oso pozgarria izan zen guretzat: "Euskara planarena urrunago doa, enpresa bera aldatzen ari delako; zerbait desberdina da".

Ez gara luzatuko, *Esau*, zurekin izandako hartu-emanak kontatzen, bakar-bakarrik eskerrak eman nahi dizkizugu, bihotz-bihotzez. Eskerrik asko, besteak beste, kooperatibak euskararen bidean sartu eta gure aldeko apustua egin izanagatik. Ez da zalantzarik, EMUN gaur egun dena izan dadin ehunka pertsonaren eguneroko lana dago atzean, eta zu zara errealtate horren eragile garrantzitsu bat.

Juanjo, Ansoategi, *Esau*. Beti buruargi, lanerako beti prest, gehienetan itzalean edo isilik, ahal zenuen guztietan argazkitik kanpo, eta ezinezkoa zenean, argazkiaren ertzean. Egin duzuna handia izan da. EMUNetik zure osotasuna eta, zehazki, zure euskaltzaletasuna goraiatu nahi ditugu.

Guk emun eta emun jarraituko dugu eta, bide horretan, gurekin jarraituko duzu. Agur, Ansoategi!

## Suteak aireratutakoa

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Aurreko urtean sute asko izan ziren; entzutetsuenak, Australian, Portugalgoa baino azalera handiagoa erre zelako. Baina kezagarriena Txernobyl inguruan hauts erradioaktiboz kutsatutako lurretan gertatu zen; suteak, keaz gain, partikula erradioaktiboak lau haizeetara zabaltzen zituen.

Ukrainako Gobernua tramiteak egiten dabil Unescon, Txernobylgo parajea gizateriaren ondare aitortzeko, gizakiak ez dezan ahaztu teknologia nuklearrak egin dezakeen hondamendia. Ez dago aitzakiarik zorakeria honekin jarraitzeko.

Merkea dela energi nuklearra?

Nik hainbeste pentsatu beharrik ez daukat: zentral nuklearrak dituzten argindar-enpresei ez diet elektrizitaterik erosiko.

GUTUNAK: Karaktetereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Salaketa-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna

# Eraberritzeko proiektua, auzotarrekin elkarlanean

Altamirazpi eta Jose Luis Iñarra kaleak eraberritzekotan da Arrasateko Udala, eta, horretarako, parte-hartze prozesu bat jarri du martxan, auzotarren iritzia jaso ostean proiektu "aproposena" aukeratzeko; aste honetan egin dute lehen bilera bizilagunekin

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Proiektuaren helburua, Ibon Arrupe Hirigintza batzordeburenaren esanetan, irisgarritasuna hobetzea da. "Oinezkoak, aparkalekuak eta errepideak uztartzea zaila zen, eta ingeniari-ritza enpresa batek bi aukera sortu ditu, oinezkoak lehenetsi eta haientzako kalitatezko espazioak sortzeko. Behin oinezkoari dagokion espazioa emanda, aparkalekuen eta zirkulazioaren artean aukeratu beharko dute auzotarrek, bi aukera horien bitartez. Lehenengoak aparkalekuak lehenesten ditu eta bigarrenak, zirkulazioa. Hala ere, aukerak aldagarriak dira. Exekuzio proiektuaren idazketa oraindik esleitu gabe dago, eta, beraz, oso irekita daude aukera guztiak", gaineratu du Arrupek.

Horrez gain, bizilagun batzuek kezka erakutsi dute TAOren baitan. "Auzoan TAO jartzea gura dute batzuek, uste dutelako erdigunean jarritakoan auto askok han aparkatuko dutela. Beraz, galdetuko diegu TAO jarri gura duten ala ez".

## Prozesua, hiru fasetan

Lehen bilera eguaztenean egin zuten bizilagunekin eta bigarrena apirilaren 19an egingo dute, 18:30ean hasita, udaletxean. Osasun egoera dela eta, edukiera kontrolatu egingo dute, eta, beraz, aurrez eman beharko da izena, 688 64 80 40 zenbakira deituta edo [smartinez@aztiker.eus](mailto:smartinez@aztiker.eus) helbidera idatzita. Proiektuak aurkeztu ostean, galdetegi bat helaraziko diete auzotarrei eteko postontzietara, apirilaren 22an hasi eta 30a bitartean. Galdetegi hori entregatzeko, hainbat bide egongo dira: BAZen egongo den kutxa batean utzita edota horretarako "geroago" zehaztuko duten helbide elektronikoaren bitartez. Azkenik, proiektua aukeratzeko bilera egingo dute maiatzaren 13an.

## Aldatu daitezkeen bi aukera daude

Oinezkoentzako kalitatezko espazioak sortuko dituzte. Aparkaleku kopurua edo zirkulazioa lehenetsi beharko dute auzotarrek, eta, bi aukera dauden arren, guztiz aldatu daitezke, auzotarren arabera.



1. AUKERA

### Ezaugarriak

- Jose Luis Iñarra noranzko bakarreako izango da 17. ataritik gora.
- 22. eta 32. atarien artean gehienezko abiadura 20 kilometro ordukoa izango da, oinezkoen lehentasunarekin.
- Altamirazpi kalean gehienezko abiadura 20 kilometro ordukoa izango da. Bidea oinezkoek eta autoek partekatua izango da, oinezkoen lehentasunarekin.
- 124 aparkaleku: Altamirazpi (49); La Merced (28); besteak (47).



2. AUKERA

### Ezaugarriak

- Jose Luis Iñarra kalea bi noranzkoa izango da, orain arte bezala.
- Espaloi zabalagoak eta aparkaleku gehiago lortzeko, zati batzuetan errepidea noranzko bakarreako izango da.
- 22 eta 32 atarien artean gehienezko abiadura: 20 km/h.
- Altamirazpi kalean bidea oinezkoek eta autoek partekatua izango da, oinezkoen lehentasunarekin.
- 92 aparkaleku: Altamirazpi zonan, 49; gainontzekoak, 37.

## Udalak dio 392.853 euro jarri dituela ostalaritzari laguntzeko

Azken astean, Arrasateko Ostalariak taldeak salatu du Udalak ez dituela bete abenduan adostutako akordioak

### E.A. ARRASATE

Hainbat puntutan banatu ditu Udalak ostalariei emandako dirulaguntzak. Batetik, azaldu duenez, 201.600 euroko dirulaguntza zuzena jaso dute Arrasateko Ostalariek. "98 establezimenduk egin dute eskaera eta 94 izan dira onartuak".

Bestalde, dio ur eta zabor tasan hobariak ezarri zela 2020an, zabor tasetan 48.000 euro eta ur tasetan 15.000 euro.

Horrez gain, Udalak azaldu du 26.246,27 euro bideratu dituela terrazetako inbertsioetara –toldoak, manparak eta abar–.

Babes neurrietara, berriz, 19.507 euro bideratu ditu –gelak, maskarak, eta abar–.

Halaber, 2021ean zehar, terrazak jartzeko 85 eskaera jaso dituela adierazi du Udalak, eta 81 eskaerari baieztatu erantzuna eman diela.

Terrazen gaineko ordenantzarri dagokionez, azkenik, elkarlanean landu beharrekoa dela adierazi du. "Denon espazio publiko baten erabilera pribatiboa den heinean, Arrasateko herritar eta bizilagunekin elkarlanean landu behar da, prozesu parte-hartzaile baten bitartez".

### "Zintzotasuna" eskatu die

Udalak nabarmendu du herriko ostalariekin lankidetzan jarraitzeko "prestutasun osoa" duela eta elkarlana bultzatzeko "ahalegin guztiak" egingo dituela.

Hala ere, "errespetuz eta zintzotasunez" jarduteko eskaera egin die ostalariei. "Sare sozialetan alkatearen eta udal zinegotzien izenekin zabalduriko mezuak eta udal zinegotzi batek bere lantokian jasandako jazarpena salatu nahi dugu", nabarmendu du ohar bidez.



**Euskal Herria hobetzeko prest?**

Bertakon emakumezkoen kirola, gutxiengoa, egokitua eta inklusiozkoa babesten dugu, elkarrekin Euskal Herri hobea eraikitzeko.



**OROTARIKO ZERBITZUA**  
100 €-tik / hileko  
Arrunta 70€-tik / hileko

Garaia Berrikuntza Gunea  
20.500 Arrasate  
943 903 450  
info@bertako.eus  
www.bertako.eus



AGAKOren 20. urteurrenaren baitan egin zuten manifestazioa, Seber Altube plazatik irteten, 2011n. ARGAZKIAK: AGAKO



Ospitale zaharreko sarrera.



Egungo gaztetxeko sarrera, 2003an.

# Hiru hamarkada –baino gehiago– autogestioaren bitartez herria eraikitzen

1991ko apirilean sortu zuten AGAKO, eta hiru hamarkada bete ditu dagoeneko; ezin ahaztu, ordea, AGAKOren hazia izen zen AGA, urte batzuk lehenago bidea zabaldu eta 1987ko apirilaren 3an herriko lehen gaztetxea izango zena okupatu zuen asanblada

## Eneko Azurmendi ARRASATE

1987ko martxoan CCOO sindikatuaren eraikinean egindako batzarretako batean erabaki zuen orduko Arrasateko Gazte Asanbladak Gurea zinema areto zaharra okupatzea. "Udalari hiltegi zaharra eskatu genion –egungo Mankomunitatearen egoitzaren ondoan zegoen–, gaztetxea izan zedin, eta haren erantzuna hura eraistea izan zen", azaldu du AGAKO kide izan zen Alberto Encinasek. Bide horretatik aurrera egingo ez zutela konturatuta eta "nazkatuta", azkenean, manifestazio bat egin ostean, Gurea okupatu zuten, apirilaren 3an. Hurrengo egunean ertzainek eraikina hustu arren, AGAKO berriro okupatu zuen, eta ia bi urtez erabili zuten Gurea gaztetxe moduan, 1989ko hasierara arte.

Urte "politak" izan zirela gogoratzen du Encinasek. "Euskal Herrian mugimendu ugari zegoen eta mugimendu sozial berriak sortu ziren. Metafora batekin laburbilduko nuke: gazte asko atera ginen *armairutik*, gauzak egiteko gogoz. Errebeldia leherketa bat izan zen", dio. Horrekin batera, ordea,

heroinak gogor jo zuen garai hartan eta askok gaztetxe hura heroinarekin lotzen zuten. "Gizartea ez zegoen prestatuta arazo horri irtenbidea emateko, eta gaztetxea, are gutxiago. Batzuen apustua errazena izan zen: gaztetxea salatzea eta seinalatzea. Gure apustua, ordea, sortzaile eta errebelde izatea izan zen, gauza asko aldatzeko gogoz baikeunden".

Hori hala izan zen, askotariko ekintzak egiten zituzten-eta gaztetxe hartan. Esaterako, Sorgina Irratia sortu zuten,

herriko elkarte gehienak batzen zituena, eta kaleko mugimendu guztia islatzen zuena, eta Tuantantes del Norte izeneko antzerki taldea ere sortu zuten.

La Polla Recordsen kontzertu bat izan zen, baina, Gurearen bukaeraren hasiera, ezker abertzaleko bi pertsonak emanaldiaren erdian argindarra moztu zutenean. "Udala Gureari berriro argia emateko prest bazegoen ere, giltzak entregatu genizkien, nekatuta geunden haien zat diana erraza izateaz", nabarmendu du Encinasek.

## Gala Galanta bihar Amaia antzokian

Bihar, zapatua, Gala Galanta egingo dute Amaia antzokian, 18:30ean hasita, Ainhoa Aranek eta Iker Barandiaranek aurkeztuta, eta urteurrenaren harira prestatu dituzten liburu eta dokumentala aurkeztuko dituzte gala horretan. Biak ala biak, azken 30 urteak zein AGAren garaiak batzen dituzten lanak dira, bata argazki liburu eta bestea, ikus-entzunezkoa.

### Webgunea ere bai

Urteurrenako bideoklipa ere atera zuten duela aste batzuk eta webgunea ere aurkeztuko dute. Oraindik, halere, azken ukituak egiten ari dira.

Bestalde, apirilaren 24an, AGAKO eguna egingo dute. 12:00etan, Haizea eta Ningra rap abeslarien eta Assata taldearen kontzertuak egongo dira eta ilunkeran, ekitaldia.



Urteurrenako liburuaren azala. AGAKO

### Etena eta AGAKOren sorrera

1989ko hasieran izan zen hori, eta, ondoren, bi urteko etena egon zen, asanblada eta gaztetxe barik. Tarte hartan, baina, ondoko eraikineko klaustroan elkartzen ziren gazteak. Eraikin hori, egun Kulturate dena, tuberkuloso ospitalea ere izan zen aurrez, eta horregatik deitzen zaio ospitale zaharra, Iker Barandiaranek azaldu duenez. "Haurtzaindegi ere izan zen gutxiak ginela. Baina momentu haietan, itxita zegoen eraikina", gaineratu du. Barandiaran izan zen, hain zuzen, ospitale zaharra gaztetxe bilakatzeko sustatzaileetako bat. "1990ean eta 1991n, arte hamabostaldia egin zuten, eta, horretarako, pareta batzuk ere bota zituzten. Gu hor inguruan ibiltzen ginen eta batzuetan barrura ere sartzen ginen, ping-pong jolastera, gitarra jotzera edota egotera, besterik barik. Behin, barrurago sartu ginen, han elkartzen hasi ginen, eta hortik irten zen gaztetxea sortzeko ideia. Hala, Gurean aktibo zeuden gutxi batzuek eta Gurea ezagutu genuen beste batzuek gaztetxea sortu genuen".

"Oso argi" zuten Gurea eta AGA izan zirela hazia eta hori apurtzerik ez zutela gura, baina beste izen bat jartzea erabaki zuten. "Lehiaketa moduko batetik sortu zen izen berria: Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatua (AGAKO)". Era horretan, 1991ko apirilean, ospitale zaharrak bere bidea hasi zuen, AGAKOk kudeatuta.

Han ere askotariko ekintzak egin zituzten: "Gehienbat, kontzertuak; Su Ta Gar, Soziedad Alkoholika edota Etsaiak taldeenak, esaterako. Eta baita munduko txoko ezberdinetako taldeenak ere. Bestalde, AHTaren aurkako asanblada sortu zen, Udalarekin droga-menpekotasunaren inguruko hainbat kanpainak egin ziren, hiesaren inguruko ekimenak, sexualitateari buruzkoak, Martxoaren 8aren bueltakoak, askotariko tailerrak, AEDrekin eta Txaxilipurdirekin elkarlana, eta abar. Intsumisio garaia ere bazen, eta, intsumisio taldearekin elkarlanean, Intsumisio Eguna antolatu genuen hainbat urtez".

Udalak, ordea, hasieratik ohartarazi zien gaztetxe hori ez zela betiko izango. Gainera, Gurea bezala, ospitale zaharra ere ez zuten begi onez ikusten Udalak, Barandiaranek dioenez. "Bigarren gaztetxea itxeko erreparoa zutela uste dut. Luzaroan Udalarekin ospitale zaharreko gaztetxeari eta etorkizunekoari buruz negoziatu genuen; eta, azkenean, AGAKOk egin zuten Uarkapekoaren aurre-diseinua".

Gauzak horrela, 2002ra arte iraun zuten ospitale zaharrak, gero Kulturateren proiektua onartu zuelako Udal Gobernuak. "Hala ere, Altamiran lokal txiki bat utzi zien gazteei, materiala gordetzeko eta bilerak



Ospitale zaharreko barra, 1990eko hamarkadan.



Andoni Iñurritegi Pottoko, gaztetxean.



AGAKO hainbat kide, 1987ko martxoan, Gurea okupatzea erabaki ostean. AGA

egiteko, gaztetxe berri bat izan artean". Altamirakoa lokal soil bat izan arren, mugimenduak aurrera jarraitu zuen, eta horren erakusle da, adibidez, garai hartan *Gazta Ya* fanzinea jai izana.

#### Uarkapeko gaztetxerako jautzia

2003ko ekainean inauguratu zuten egungo gaztetxea, Udalak eraiki zuena. Gaztetxe berriaren hasierako urteetako asanbladak "oso masiboak" ziren, orduko AGAKOko kide Ane Gorosabelen esanetan. "Asanbladan erreleboa behar zutela eta, herriko gazteriar deialdia egin zioten, gaztetxea biziberritzeko. Gogoan dut nire lehen asanbladan 100 bat gazte izango ginela. Ez dakit horrenbeste aulki nondik atera zituzten! Hori izan zen nire lehen kontaktua gaztetxearekin, 2004 hasieran", azaldu du. "Belaunaldi berri bat sartzen hasi ginen arren, aurreko belaunaldiko kide batzuk ere geratu ziren eta hori ezinbestekoa izan zen aurrera egiteko". Hasiera hartan, gaztetxea "oso hutsik" zegoen, hotz. "Hala ere, denborarekin, betetzen joan da, eta ez bakarrik muralekin, ro-

kodromoarekin edo barrarekin. Esperientzia joan da gaztetxea janzten, eta guztion artean egin dugu hori".

#### Urteurrenean, "indarberrituta"

2021eko apirilarekin batera, hogeita hamargarren urteurrena ari da ospatzen AGAKO, izurrite betean. "Erabat baldintzatu du urteurrena. Pandemiaren erruz edo pandemiari esker, dokumentala, liburua eta bideo-klipa egin ditugu. Egoera lehengo balitz, herri bazkari erraldoi bat eta makro-konzer-tu batzuk egingo genituzke; ez ginateke horrelako memoria ariketa batean sartuko, eta emaitza oso polita izan da", azaldu du Inesa Ugalde AGAKOko kideak.

Azpimarratu duenez, 25. urteurrena inflexio-puntu bat izan zen, Euskal Herri mailan, gaztetxeak ere "militantzia eredu berri baterantz" abiatu zirelako. "Gaur-gaurkoz, asanblada eraberrituta ikusten dut, gazte askorekin. Azken urteetan egingo dako lana fruituak ematen ari da eta, aurrera begira, gogotsu gaude, indarberrituta, uanean uneko erronkei aurre egiteko".

#### "GAZTE ASKO ATERA GINEN 'ARMAIRUTIK'; ERREBELDIA LEHERKETA IZAN ZEN"

ALBERTO ENCINAS, AGA-KO KIDE OHIA

#### "UDALAK OSPITALE ZAHARRA IXTEKO ERREPAROA IZAN ZUELA USTE DUT"

IKER BARANDIARAN, AGAKO-KO KIDE OHIA

#### "HASIERAN, HUTSIK ZEGOEN GAZTETXEA, BAINA ESPERIENTZIAK JANTZI EGIN DU"

ANE GOROSABEL, AGAKO-KO KIDE OHIA

#### "PANDEMIAGATIK, MEMORIA ARIKETA EGIN DUGU; EMAITZA OSO POLITA IZAN DA"

INESA UGALDE, AGAKO-KO KIDEA

2021eko 03/18tik 05/05era



**CLEAN SITE**  
Datuak gure gurekin partekatzen

**dendan**  
segurtasuna  
**tienda**  
+ laguntza



**EROSKI**  
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30

# Lorategia Terraza

Lorategi eta terrazarako nahi duzun guztia\* ...

**Liburuxka hau**  
eroski.es webgunean eta gure app-ean ere kontsulta dezakezu.



**Dendarako katalogoan,**  
hipermerkatu hornetarako eskuragarri dagoen Terraza eta Lorategi gama aurkituko duzu.



**Erosketa etxera eramango dizugu.**  
Kontsultatu hurbilen duzun zentroan edo informazio gehiago eroski.es webgunean eta gure aplikazioan.



\*Kontsultatu eskuragarritasuna zure hipermerkatuan eta eroski.es webgunean

# Udalak 4,5 milioi euroko gerakina du 2021erako

Espero baino diru gehiago jaso du Arrasateko Udalak, bereziki, Diputaziotik eta obrak gauzatu ahal izateko zergetatik, eta zati handiena Juan Arzamendi eta Kulturola eraikinetara bideratu nahi du; ondorioz, ez dute mailegurik eskatuko, "oraingoz"

**Hasier Larrea** ARRASATE

Udal Gobernuak asteazken goizean egin zuen 2020ko likidazio-ko soberakinekin zer egin nahi duen azaltzeko agerraldia. COVID-19ak eraginda aurtengo eta iaizko udal aurrekontuei hainbat moldaketa egin behar izan bazizkioten ere, "espero baino diru gehiago" jaso dutela azaldu zuen Ander Garayk, Ogasun zinegotziak, eta kopuru handiena Diputazioaren foru funtsetik jaso dutela gehitu. Funts hori da, hain zuzen, Udalak duen sarre-ita-iturri nagusia. Gainera, udal eraikinen obrak gauzatu ahal izateko zergetatik ere jaso dute "aurreikusitakoa baino gehiago".

Ondorioz, 4,5 milioi euroko soberakina izango du aurten gastatzeko. Zatiirik handiena, 3.173.000 euro, Juan Arzamendi eta Kulturola eraikinetara bideratuko dute. Gainontzekoa, Garibaiko menpekotasun txikiko egoiliarrei begirako eguneko zentroan, Santa Teresako igogailuetan, Azoka Plazaren biziberritzean, alde zaharreko zuntz optikoan eta Elorregiko komun publikoan inbertitu nahi du Udal Gobernuak.

**"Etorkizunari begira"**

"Pandemia atzean utziko dugula sinetsita", etorkizunari aurre



Kulturola eta Juan Arzamendi eraikinak, obretan. GOIENA

## "AURRERA BEGIRAKO ERRONKEI AURRE EGITEKO" EGIN DU UDALAK PARTIDEN PROPOSAMEN HORI

egiteko Arrasatek "prest" egon behar duela aipatu du Maria Ubarretxena alkateak. Arrazoi horregatik banatu dute gerakina modu horretan: "Erdibidean geratutako Juan Arzamendiko obrei jarraipena emateko, Kul-

turola aurten amaitzeko eta, hauteskunde kanpainan hitz eman bezala, Garibaiko eguneko zentroko proiektua gauzatzeko bideratuko dugu dirua".

**Zorra, "hutsean"**

Udalak mailegua eskatzea "zenbakiak koadratzeko tresna bezala" hartzen badu ere, Aldundiaren funtsak "oraingoz mailegurik ez eskatzea" baimendu-ko diela adierazi du Garayk.

Inbertsio horien proposamena atzoko osoko bilkuran jorratu zuten udalbatzako kideek.

NIRE USTEZ



IBON ARRUPE

## Ekobulebarra zertarako?

Inguru seguruago, osasuntsuago, atseginago eta abegikorragoa lortzeko. Oinezkoentzako espazioak irabazteko. Arrasatearrok osatzen dugun komunitatea indartzeko. Hirigintzan genero ikuspegia txertatzeko. Irigarritasuna hobetzeko. Umeen aske ibiltzeko guneak handitu eta gehitzeko. Herrigunean ere naturaz gozatzeko aukerak hobetzeko. Kaleetako zarata murrizteko. Kutsadura gutxitzeko. Nagusiek atsedendu gehiago izateko. Zuhaitz gehiago landatzeko. Bidegorria modu seguruan eremu hiritarlean txertatzeko. Istripuak ekiditeko. Hau da, arrasatearren bizi kalitatea hobetzeko. Eta hau guztia 2003-2007 legealdian Ignazio Lakunza alkateak eta Agustin Ugarte Hirigintzako batzordeburuak izan zuten izugarritzko ausardia politikoari eta etorkizunerako ikuspegi ezin hobeagoari esker ari da errealitate bihurtzen. Ekobulebarraren oinarria beraiek ezarri baitzuten Garibai etorbidea ibilgailu partikularren pasabide izateari utzi ziotenean. Balentria hari esker, dagoeneko Maalako biribilgunearen inguruan hasi gara arestian aipatutako hobekuntza guztiak badatozela sumatzen.

## San Felipek beilatoki berria irekitzeko asmoa aurkeztu du

Elkartek Musakolako beilatokiarekin ordezkatu nahi du Pablo Uranga kalean, Banco Santanderren bulego zaharrea, ireki nahi duen instalazioa. Ojanguren Ehorztetxea arduratu-ko litzateke tanatorioaren kudeaketaz, Debagoieneko 12.000 bazkideri "zerbitzu hobea" eskaintzeko asmoz. San Felipeko arduradunek nabarmendu dute parrokiatik eta aparkaleku publikoetatik gertu egoteak sarbide eta aparkaleku-arazoak "minimizatu" egingo lituzkeela.

Proposamena asteazkenean aurkeztu zuten Kulturaten, eta apirilaren 23ko batzar orokorrean erabakiko dute bazkideek onartu edo ez.

## Txatxilipurdiko udalekuetako izen-ematea, hilaren 19an

Egun horretatik maiatzaren 14ra arte iraungo du elkartearen udaleku irekietan izena emateko epeak. Aisialdirako eskaintza uztailearen 5etik 23ra garatuko dute, 2 eta 12 urte arteko haur eta gazteek bailarako kale zein naturako espazio ezberdinez goza dezaten. Musakolako, San Andreseko eta erdiguneko guneetan edo online eran apunta daiteke, elkartearen webgunean edo QR bitartez. Adinaren eta gunearen arabera osatuko dira taldeak; hala, *Bilin-bolonka* taldea 2 urteko haurrek eta Haur Hezkuntzakoek osatuko dute, *Bihurrikeixetan* LH 1 eta 3 artekoek, eta *Erokeixetan* LH 4 eta 6 artekoek.

## OHARRAK

### Zuntza2021 taldearen elkarretaratzea

Herriko Plazan "bilkura jendetsua" egingo du gaur bertan, 20:00etan hasita, erdigunean zuntza jartzeko sortutako plataformak, irailerako zerbitzu horren jabe izatea exijitzeko.

### Baserritarren azoka

Hileko hirugarren zapatu goizero legez, herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera egongo da bihar Seberren.

### Zuztarrak Errotuz taldearen hitzaldiak

Apirilaren 21ean, lehen euskal hitzen jatorria azalduko du Aitzol Altunak; eta hilaren 28an, Joseba Asiron Nafarroaren konkistaz mintzatuko da. Kulturaten izango dira biak, 19:00etan.

## Inbertsioak, honako proiektu hauetan:

Udalak zazpi egitasmo nagusitan inbertitu nahi du dirua:

### Juan Arzamendi

- Musika Etxea bukatzeko 1,8 milioi euro jarriko dituzte.
- Ekipamendurako 300.000 euroko partida osatu dute.

### Kulturola

- Obrari amaiera emateko, 800.000 euro jarri dituzte.

- 273.000 euro, ekipamenduari aurre egiteko.

### Garibaiko eguneko zentroa

- 590.000 euroko partida, menpekotasun txikiko egoiliarrei begira.

### Santa Teresako igogailuak

- 190.000 euro gehiago bideratuko dira, aurrez jarritakoarekin batera.

### Azoka Plaza

- Biziberritzeko partida berria osatu dute, 55.000 eurokoa.

### Zuntz optikoa erdigunean

- Zuntza2021 taldearen nahie erantzuteko 50.000 euroko partida sortu dute.

### Elorregiko komun publikoa

- 50.000 euro bideratuko ditu Udalak.



German Olazabal eta Garikoitz Mendizabal, hurrenez hurren, Oñatiko Musikegunak jaialdian, iaz, azaroan. OÑATIKO UDALA

# Udaberriko Musikaldiak gaur izango du lehen zita

Garikoitz Mendizabalen eta German Olazabalen 'Metamorfosis' emanaldiak irekiko du XVII. edizioa; guztira, sei kontzertu antolatu dituzte, hiru asteburu honetarako eta beste hiru hurrengorako; Kulturaten eta San Frantzisko elizan izango dira hitzorduak

**Hasier Larrea** ARRASATE

Musikaldiak ibilbide luzea du Arrasaten, eta, urteak pasa ahala, "erreferentziatzeko jardunaldi" bilakatu dela diote antolatzaileek. Iaz, bertan behera gelditu zen pandemiagatik, baina aurten egitasmoarekin "aurrera egitea" erabaki dutela adierazi du Ramon Mendietak, Kultura zinegotziak.

Hala, sei emanaldiko eskaintza egongo da gaurtik hilaren 25era bitartean, 19:00etan hasita. *Metamorfosis* izeneko txistuaren eta pianoaren arteko fusioa eroango dute Garikoitz Mendizabalek eta German Olazabalek gaur Kulturateko areto nagusira, eta oraindik sarrerak gelditzen dira Udalaren webgunean.

Bihar, Musikenen zaildutako Aris hirukotearen txanda izango da, eta etzi, Asturiasko Entrepate gitarra laukotearena. Kontzertu horren harira, Karmelo Alberdi kultura programatzaileak aipatu du "maila handiko talde horrek Aita Madinak sortutako obrak" eskainiko dituela, besteak beste.

**Herriko musikariak, ere bai**

Arrasate Musikaleko hari instrumentuekin osatutako orkestrak ekingo dio, gaur zortzi, jaialdiaren bigarren asteburuarri. San Frantzisko elizan izango da kontzertu hori. Musika eskolako zuzendaria, Marta Eizagirre, "eskertuta" agertu da

berriz ere Musikaldian euren tokia izango dutelako: "Urte zaila pasa dugu, tartean hilabete batzuk egon garelako entseu ezinik, baina aurrera jo dugu".

Hurrengo egunean, hilak 24, Musikenetik datorren beste hirukote gazte batek joko du Kulturaten, Azul hirukoteak, hain zuzen. Eta jaialdiari amaiera emateko, KUP taldea igoko da hurrengo domekan San Frantziskoko oholtzara. Aipatzekoa da abesbatza horretan bailarako ordezkariak ere parte hartzen dutela.

Kulturateko kontzertuak doakoak dira, eta San Frantziskokoek bost euro balio dute. Udal webgunean eskura daitezke sarrerak.

## Liburuaren Egunerako lau proposamen Udal Bibliotekan

Gianni Rodariren ipuinak, gorputz txotxongiloak, ipuin kontaketa eta 'Bookface' lehiaketa programatu dituzte

**H.L. ARRASATE**

Apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Egunari begira, apirila eta maiatza artean antolatutako ekintza bereziak izango dira Kulturateko eta Santa Marinako biblioteketan.

**Orotariko eskaintza**

Gaztetxoekin egin zen bezala, 16 urtetik gorakoek izango dute oraingoan *Bookface* argazki lehiaketan parte hartzeko aukera, hilaren 19tik maiatzaren 9ra bitartean. Egitasmoa datza aurregia edo gorputzeko beste edozein atal liburu baten azalean agertzen den irudiarekin bat egitean. Argazkiak [kulturate@arrasate.eus](mailto:kulturate@arrasate.eus) helbidera bidali beharko dira, parte hartzailearen datu pertsonalekin batera.

Bestalde, datorren ostegunean, hilak 22, *Rodarika. Zaku bete ipuin* izeneko ikuskizuna eskai-

niko dute Eider Eibarrek eta Miren Larreak. Gianni Rodari idazlearen *Telefonozko ipuinak* bildumatik ateratako ipuin laburrak proiektore baten laguntzarekin kontaktatu dituzte, irudi eta imajinarioaren bitartez Rodariren pertsonaien mundu bisualera murgilduz ikuslea. Kulturaten izango da hori, 18:00etan, eta 5 urtetik gorakoek eman ahaliko dute izena aurrez.

Gainera, hilaren 28an, 18:00etan, Maite Frankok *Zorte txarreko otsoak* ipuin kontaketa eskainiko du Santa Marinan, 3 eta 4 urte arteko umeentzat, eta hor ere aurrez eman behar da izena.

Azkenik, Roberto White clown eta titiritero argentinarrak *Izaki bereziak* gorputz txotxongiloen ikuskizun mutua eskainiko du Kulturaten, maiatzaren 7an, 19:00etan, 16 urtetik gorako publiko helduari begira.

### Hilaren 25era arte parte hartu ahaliko da Literatur lehiaketan

AEDren narrazio, ilustrazio, bertsopaper, mikroipuin, poesia eta komiki lehiaketa LH-5etik batxilergoko 2. mailara arteko gazteei begira dago antolatuta. Aurrez argitaratu gabeko lanak [aed@aedkartea.eus](mailto:aed@aedkartea.eus) helbidera bidali beharko dira, egilearen datuekin batera. Finalisten zerrenda maiatzaren 21ean kalderatuko dute antolatzaileek.

### Margo Taldearen pinturak, hurrengo zapatura arte ikusgai

Arrasate Margo Taldeak asteon berrireki du Kulturateko klausuroan martxoaren 18an inauguratutako erakusketa, Aste Santuko oportetaren itxita egon ostean. Hala, hilaren 24ra arte egongo dira herriko margolarien koardoa ikuslearen begi-bistan. Maiatzean, dena ondo bidean, kaleko azoka egingo dute Seber Altube plazan.

## Matrikulazio epea zabalik!

- Kuota ezberdinak, diru sarreren arabera.
- 18.000 € baino gutxiagoko irabaziekin, **DOAN**.
- Bigarren seme-alaba, **DOAN**

2020-2021  
JAIOTAKOENTZAT

IZEN EMATEA  
Apirilaren 12tik 21era  
ON LINE  
[www.haureskolak.eus](http://www.haureskolak.eus)

Arrasateko  
**HAURESKOLAK**  
Zure lasaitasuna gure helburua



**MUSAKOLA** haureskola  
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

**BEDOÑABE** haureskola  
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTU DE EDUCAZIOA



Martxoaren 30ean egindako ezohiko osoko bilkura. A.E.

## Sarrera gutxiago, aurrekontu txikiagoa

Udalbatzak 2021erako aurrekontua onartu du: 1.817.895,65 euro izango da. Proposamenak Udal Gobernuaren aldeko botoak izan zituen; aldiz, EAJko zinegotziek kontra bozkatu zuten. Argindar Banatzailearen aurrekontua 393.336,54 euro izango da

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Aramaioko udalbatzak 1.817.895,65 euroko aurrekontua onartu du 2021erako. Iazko hasierako aurrekontuarekin alderatuta %6,17ko jaitziera izan du aurtengo aurrekontuak. Udal Gobernuaren proposamenak aldeko zapi boto izan zituen; EAJko bi zinegotziek, aldiz, kontra bozkatu zuten.

Sarreraren atalean, jaitziera nabarmenena Fofeletik jasotako sarreretan eta kapital transferentzietan izango dute, dirulaguntza gutxiago jasotzea aurreikusuten dute eta. "Sarrerak asko jaitsi dira, egoerak hala behartuta. Egokitu egin dugu aurrekontua, sarrerak eta gastuak berdinak izateko. Baina soberakin ona daukagu, eta, likidazioa

ere ona izan denez, gure asmoa da inbertsioetan txertatzea", azaldu du Lierni Altuna alkateak. 2020ko likidazioa positiboa izan zen: 24.973,4 euro.

### Irisgarritasuna hobetu

Behin aurrekontua onartutakoan -ALHAOn publikatu eta 15 egunez ikusgai egon ondoren-, soberakinetik dirua jasoko du, eta

hor txertatuko dituzte inbertsioak. Inbertsio aipagarriena, Nardeaga kaleko eta Pedro Ignazio Barrutia kaleko bidegurutzean irisgarritasuna hobetzea izango da.

Diputazioko Foru Planetik jasotako laguntzarekin kiroldegiko teilatua konpondu eta kanpoko pilotalekua estaltzeko asmoa ere badago. Aurtengo urtea hartuko dute proiektua antolatzeko eta ikusteko eguzki plakak gehitu ditzaketan edo ez. Datorren urtean aterako litzateke lehia-ketara proiektua.

### EAJren kritika

EAJko bi zinegotziek aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu zuten. Pedro Elosegik azaldu zuen zergatia: "Uste dugu onartu den aurrekontua ez dela tresna ekonomiko ona Aramaio-

rendako. Uste dugu inbertsioak egiteko unea dela. Aramaioko egoera ekonomiko oso ona da. Zorra eskatzeko aukera daukagu; krisi egoera momentu egokia da inbertsioak egiteko".

Lierni Altuna alkatearen erantzuna hau izan zen: "Iritzi kontua da. Egin dugun lanarekin aurrezpena daukagu, eta horrekin egin daitezke inbertsioak. Gauza askotan Foru Aldundia- ren menpe gaude, eta, askotan, arazoak ditugu eurekin biltzeko".

### Argindar Banatzailea

Aramaioko aurrekontuarekin batera, Aramaioko Argindar Banatzailearen aurrekontua ere onartu zuten ezohiko osoko bilkuran. 2021erako 393.336,54 euro izango da AABren aurrekontua. Bi aurrekontuak batuta, 2.211.232,19 euro izango dute.

## Zuntz optikoa etxe guztietara iristeko lanean dihardute

Aramaioko hainbat auzunek oraindik ez dute zuntz optikorik; egoeraren berri ematea eskatu du Udalak

### A.E. ARAMAIO

Aramaioko Udalak lanean dihardu zuntz optikoa Aramaioko etxe guztietara irits dadin. Orain dela bi urte hasi ziren lan horrekin Arabako Aldundia, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako

Gobernua. Hain zuzen, Europatik etorritako funtsa baliatu zuten lanok egiteko. Aldundiak Telefonicari esleitu zion zuntza jartzeko ardura; Telefonicak kilometro kopuru bat jarri zuen, baina ez da nahikoa izan.

Auzune bat baino gehiago duten elizateetan ez dago zuntzik: Eguzkierripan, Zalgon, Arragan, Errotabarrin, Suñan, Murun, Zabolán, Altzagan, Aldeko-Argarre-Mendakon eta Zubietan, adibidez. Horiez gain, auzunetatik urrun dauden etxeetara ere ez da zuntza iritsi. Bi kasuistika horietatik aparte kasuistika baten dauden herri-tarrei mezua helarazi die Udalak: egoeraren berri eman dezatela udaletxean, eta Udalak Foru Aldundian jakinaraziko du.

## Bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratu behar dira

Aramaioko bake epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko prozesua zabaldu du Udalak. Astelehenean, apirilaren 12an, argitaratu zuten iragarkia ALHAOn; hala, maiatzaren 4a izango da eskaera egiteko azkeneko eguna. Udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu behar da eskaera. Hautagaiei jakinaraziko zaie zeintzuk diren baldintzak.

## Obrak direla-eta trafikoa moztuko dute Azkoagarako bidean

Datorren astelehenean, apirilaren 19an, obrak hasiko dituzte Azkoagako bidean; hain zuzen, Iñurritik Labienarainoko zatian. Hori horrela, astegunetan bidea moztuta egongo da 08:00etatik 16:00etara bitartean. Gainerako orduetan semaforoarekin kontrolatuko dute zirkulazioa. Gutxienez, hamabost egun iraungo dute obra horiek.


## 2021eko inbertsioak

Inbertsio errealak	Kopurua
<b>Hirigintza</b>	
AFA: obra txikiak, Arriola-Arrikoiti asfaltatu	34.898,70
AFA: auzolanak, Untzillako hilerriko horma	15.392,19
Lurrak erostea	4.000,00
AFA: Etxaguengo errota	11.155,48
AFA: Santana	10.000,00
AFA: Andramariko ermita	15.407,05
Kiroldegiko proiektua eta zuzendaritza	23.860,00
Udal laguntza eskola: isolatzaile finkoa jarri	20.275,41
<b>Mendia</b>	
AFA: desbroze, poda, klareo lanak	9.652,77
AFA: San Adrian/Asensio pasabidea	15.105,64
AFA: Kruzetako kargalekua	4.670,60
AFA: Gantzagako kargalekua	6.490,44
AFA: Landaketak Ametzu	11.264,00
AFA: Ibilbide seinaleztapena	5.459,52
<b>Inbertsioak guztira</b>	<b>218.331,80</b>

OHARRA: INBERTSIOEN ZATI BAT AGERTZEN DA HEMEN

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA





Goian, Oihana Arana eta Paula Amilburu; eta behean, Ainhoa Agirreazaldegi eta Haizea Arana. GOIENA

## 'Señora' izatea aldarrikatu nahi dute

Emakume bertsolarien saretzea eta ahalduntzea sustatu nahi duen sariketa abiatuko da bihar, zapatua, Aramaion. Umorea ardatz hartuta bestelako lehiaketa bat antolatu nahi dute. Paula Amilburuk hartuko du parte sariketan, baina ez biharko saioan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Belaunaldien arteko saretzea izan nahi du I. Señora sariketak. Emakume bertsolarien saretzea eta ahalduntzea lortzeko jarri dute abian lehiakortasuna alde batera utzi eta bertsolariak eroso sentiaraziko dituen plaza bilatu nahi duen lehiaketa.

Sariketa Aramaion hasiko da. Bihar, zapatua, izango da lehenengo saioa, 17:00etan, kultura etxean. Bertsotan arituko dira Haizea Arana eskoriatzarra, Oihane Perea, Itsaso Piquer, Maddi Aiestaran, Miren Artetxe eta Alazne Unzalo. Gai jartzaile lanetan, berriz, Ainhoa Urien ibiliko da. Sarrerak *bertsosarrerak.eus* atarian edo leihatilan eros daitezke, 5 euroren truke.

### Plazetara iristeko aukera

Maidar Arregi bertsolaria da ekimenaren antolatzaileetako bat: "Gazteak garenean sariketa askotan parte hartzen dugu, eta, broma moduan, horrelako sariketa bat egin beharko genuke-

la esan izan dugu. Bada, azkenean, forma eman diogu".

Belaunaldien arteko saretzea izango da helburuetako bat: "Saiatu gara belaunaldi ezberdinetako bertsolariak elkartzeko. Gazteen sariketetan bertsolari gazteak elkartzeko dira, baina identifikatu dugu behin adin batetik aurrera plazetara iristea zailagoa dela".

Bertsolarien ahalduntzea ere bada bilatu nahi dutena; eta, hain zuzen, *señora* berbak emakume indartsu bat, ahalduntza dagoena, esan nahi duela dio Arregik. Ohiko lehiakortasuna kendu nahi zaio sariketari: "Lehiakortasun barik, umore giroan kanta dezatela nahi dugu. Plazara irtetea gozamen izatea

bilatu nahi dugu". Hain zuzen, azkenaldian plaza kopurua asko jaitsi delako garrantzitsua dela sariketa antolatzea aldarrikatu du Arregi bertsolariak.

### Paula Amilburu, Mutrikun

Bi saio izango ditu sariketak, eta bigarrenean parte hartuko du Aramaio bertsolari bakarrik, Paula Amilburuk: "Pentsatzen dut sariketa polita izango dela. Ni gogotsu nago abesteko; izan ere, pandemia honekin, denboratxo bat noa kantatu barik". Apirilaren 24an izango da Mutrikuko saioa, Kalbaixo ermitan. Hantxe izango dira, baita ere, Debagoieneko Oihana Arana eta Ainhoa Agirreazaldegi.

Finalerdi bakoitzetik bi bertsolari sailkatuko dira finalerako. Gainera, finalerako zuzenean sailkatuko dira ohorezko *señora* bi –ezin dute oraindik izenik aurreratu–. Finala Lesakan izango da, maiatzaren 8an, Arranoko terrazan.

**LEHIKORTASUNA ALDE BATERA UTZI ETA UMORE GIROAN KANTATZEKO SAIOA IZANGO DA BIHARKOA**

## Bihar hasiko dute Arabako binakako bertsolari txapelketa

Bertsolarien artean sei aramaioar daude; Xabi Igoak eta Andere Arriolabengoak biharko saioan kantatuko dute

### A.E. ARAMAIO

Arabako binakako bertsolari txapelketari aste bukaeran emango zaio hasiera. Egoerak hala baldintzatuta, binakako txapelketa izan behar zena egokiago ikusi dute binakakoa izatea. Hain zuzen ere, bederatzi bikotek parte hartuko dute txapelketan. Horietatik sei bertsolari aramaioarrak izango dira: Xabi Igoa, Andere Arriolabengo, Martin Abarrategi, Peru Abarrategi, Manex Agirre eta Aitor Ugarte. Bikote bakarria izango da bertsolari aramaioarrez osa-

tutakoa: Martin Abarrategik eta Manex Agirrek osatuko dutena.

Txapelketa bihar, zapatua, hasiko da, Izarran. Hiru bikote lehiatuko dira: Iñaki Viñaspre eta Unai Anda, Xabi Igoa eta Felipe Zelaieta eta Xabier Antia eta Andere Arriolabengo. Sarrerak *bertsosarrerak.eus* atarian eskura daitezke. Bigarren finalerdi apirilaren 18an izango da, Araian; eta hirugarrena, apirilaren 24an, Oionen. Finalerdiak, berriz, Amurrion eta Gasteizen izango dira eta finala, azkenik, Legution.

## 'Emakumeak mugimenduan' tailerra bete egin da

Orbeialdeko Berdintasun Sailak antolatuta, *Emakumeak mugimenduan* tailerra egingo dute bihar, eskolako gimnasioan, 11:00etatik 12:30era bitartean. Oihane Vicentek gidatuko du saioa eta Amaia Arantzabalek eta Idoia Asurmendik musika jarriko dute. Plaza kopuru mugatua duenez, dagoeneko agortu dira plaza guztiak.

## Gazteei zuzendutako bilera irekia egingo dute bihar, 11:00etan

Aramaio gazteei zuzendutako bilera irekia egingo dute udaltxeko osoko bilkuren aretoan, 11:00etan, bihar, zapatua. Aramaion nerabeentzat dauden aisialdirako aukerak aztertzea izango da bileraren asmoa. 12-16 urte bitarteko gazteen aisialdian jarriko dute indarra, eta bilera irekia gidatuko dute Txatxilipurdiko kideek.



ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA

## Arabako txapeldunak

Gazte mailan, Arabako probintzia mailako txapeldunak dira Markel Arriolabengo eta Xabi Errasti aramaioarrak. Apirilaren 10ean Ogetan jokaturako finalean, 22-13 irabazi zieten Omar Torresi eta Aitor Alavari. Finalerako sailkatzeko finalerdi Aramaio pilota elkarterako Mikel Sanz gasteiztarraren eta Iñaki Cariñanos legutiarraren aurka irabazi zuten.



Felix Lete, behiak inguruan dituela, Kurtzebarri mendiaren azpialdeko zelaian, Arkarazo auzoan. FELIX LETE

# Pandemiak agerian utzi du lehen sektorean dagoen bizimodu gogorra

Abeltzaintzatik eta nekazaritzatik bizi dira hainbat herritar Aretxabaletan, eta azken urtea ez da samurra izan haiendako ere; dena den, sektore horretan lanean dihardutenen egoera zaila azaleratu besterik ez du egin pandemiak

## Mirari Altube ARETXABALETA

Orain dela urtebete pasa ezarritako pandemia egoerak gabezia eta behar asko utzi ditu agerian hainbat arlotan; osasungintzan, bereziki. Beste sektore batzuetan, abeltzaintzan eta nekazaritzan, esaterako, urteetako ziurgabetasun egoera eta bizimodu gogorra berretsi ditu. Aretxabaletan hainbat dira hortik bizimodua ateratzen dutenak, eta samurra ez dela diote guztiek.

## Lanean geratu barik

Lanerako orduan pandemiaren eraginik apenas igarri dute, "ohi legez" jardun dute guztiek, pentsurik ez delako falta izan ganadua edo etxearen eta ekoiztutako elikagaiak saltzen jarraitu delako. Galartzako Etxezuri baserrian, esaterako, hasieran ogia egin barik egon ziren, hori salterik ez zegoelako, baina, behin

lehenengo hilabeteak pasatuta, normaltasun berrira egokitu ziren. Horren harira, esnea ekoizteko behiak hazten dituen Julen Abasolok berretsi egin du hark esandakoa.

## Bizimodua ateratzen, kostata

Kostata ateratzen dutela bizimodua hortik diote okela ekologikoa saltzen duten Mendibitzu baserriko Lete anaiek zein barazkiak ekoizten dituen Marije Revueltak, eta pandemiak hori erakutsi duela. "Nire lanbidea da, bai, baina bizimodua hemendik ateratzen dudala esatea asko esatea da", dio Revueltak.

Onartu dute bertako produktuari, ekologikoa eta sasoikoa, balioa ematen diola erosleak, baina hor ere nahaste handia dagoela uste dute Lete anaiek, eta ez duela mesederik egiten.

## Aparteko laguntzarik ez

Dirulaguntzaren bat edo beste jaso izan dute, baina asko ez direla iristen diote. "Guk jakin ere ez dakigu laguntzarik dagoen; hortaz, zelan eskatu?", diote Mendibitzu baserrikoek.

Abasolok azaldu du orain artekoan ez duela laguntzarik eskatu beharrik izan pandemiagatik. Hala ere, onartu du azken hilabeteetan pentsuaren prezioak gora egin duela nabarmen, eta horrek ondorioak ekarriko dituela: "Badakit ate batzuk jo dituztela, Jaurilaritzan, esaterako, eta entzun egin dituztela eta ulertu ere bai; lehentasunak, baina, beste toki batzuetan daude orain".

Etorkizunak zer ekarriko duen jakin ez, baina guztien nahia da egoera oneratzea poliki-poliki eta bizimodu horrekin jarraitzeko aukera izatea.

## Esnekien salmenta, behera

Areantza auzoko Etxebarri baserrian esnetarako hazten dituzte behiak Julen Abasolok eta anaia. 260 buru dituzte, erdiak inguru behiak, hau da, dagoeneko esnea ematen dutenak, eta beste erdiak bi urtetik beherakoak.

Kaikuri saltzen diote esnea, eta hark jakinarazi die esne likidoaren salmenta hazi egin dela, baina gainerako produktuena, esnekiena zein esnearekin egindako beste hainbatena, asko jaitsi.

"Ostalaritza zerbitzuetan dauden gorabeherak, hori dela arrazoia uste dute. Izan ere, beste produktu horiek ez dira erosten hainbeste etxerako", azaldu du Abasolok. Esnea gehiago saldu arren konpetentzia handia dagoela sektore horretan dio, eta irabaziek gora egitea oso zaila dela: "Irabaziek beste produktuekin ateratzen dira, marjina handiagoa uzten dutelako horiek".

Azken hilabeteetan "igoera handia" izan du behiei jaten emateko pentsuak: "Ez dakit pandemiaren ondorioa den, espekulazio kontuagatik dela jakinekoa da. %20 inguru egin du gora. Eta pentsuaren garestitzeak dakar abeltzainok gutxiago irabaztea".

Etorkizuna zelakoa izango den ez du aurreratu gura: "Esnekietatik ateratzen zen diru apur bat orain arte, eta horretan inbertitu izan du Kaikuk produktu berriak ateratzeko. Baina salmenta beherakadaren aurrean jakin ez zer gertatuko den".



Julen Abasolo. MIRARI ALTUBE

## Kontsumo taldea, euskarri

Eskoriatzako Eraña auzoan 7.000 metro koadro inguruko ortua du, bi berotegirekin, Marije Revuelta aretxabaletarak. Barazki ekologikoak ekoizten ditu han eta Aretxabaletake kontsumo taldeari saldu gero. Dagoeneko hamabi urte daramatza horretan eta gaur egun hemezortzi bezero ditu, iaz baino bi gutxiago.

Azoketan ere saltzen du, Biolurrek antolatutako azoketan, hain zuzen ere, baina azken urtean bakarren baten egon dela aitortu du. "Gutxituta daude halakoak; asko, gainera. Aretxabaletan bertan ere ez ziren egin ez sanmigeletako azoka ezta tomatearen astea ere".

Etorkizun iluna begitantzen du, gaur-gaurkoz: "Bultzada handia beharko luke sektore honek. Askok saldu behar da bizimodua hemendik ateratzeko; gastu asko daude, eta lan ikaragarria; izan ere, hemen ez dago ordutegirik. Gainera, gero eta gehiago gabilza kontu onetan".

Aretxabaletake kontsumo taldeko ateak zabalik ditu bezero gehiago hartzeko: "Oso eskertuta nago bertako kideei, batzuk hasiera-hasieratik daudelako nirekin. Begi onez hartzen dituzte nire proposamen guztiak, baita barazki berriak eta ezezagunak sartu izan dizkiedanean ere". Uda sasoiko jeneroa gusturago kontsumitzen dutela herritarrek gaineratu du, eta hori laster izango du banatzeko gertu.



Marije Revuelta. MARIJE REVUELTA

## Azoken gutxitzeak, kalte

Arkarazoko Mendibitzu baserrian okelatarako hazten dute ganadua eta gaztak egiten dituzte. Artaldean 110 buru dituzte, 20 behi inguru, guztira, eta pottokak, 30 bat. 2009tik okela ekologikoa ekoizten dute, eta zuzenean saldu bezeroari.

Gorka Letek eta Felix anaiak diote baserriatik bizimodua ateratzea gero eta zailagoa dela eta pandemiak okertu egin duela egoera: "Hobera doala entzun izan dugu han eta hemen, baina guk ez dugu halakorik bizi.

Salmenta zuzenak gora egingo zuela uste genuen, etxera zuzenean eroaten dugulako produktua, baina ez da halakorik gertatu, inondik inora". Azokatan ere izaten dira, baina horiek gutxitzeak kalte handia egin die: "Horregatik, gazten ekoizpena jaitsi egin dugu azken urtean. Eskoriatzan ekainean egoten den Ferixia ez dela egingo ere badakigu, eta hor ondo saldu izan ditugu beti".



Gorka Lete. MENDIBITZU

## Dendetako salmentak, txukun

Galartza auzoko Etxezuri baserrian 320 ardirekin osatutako artaldea daukate, eta behi batzuk ere bai. Urritik maiatz erdira bitartean etxean izaten dituzte, eta gero, Kurtzebarri ingurura eroan. Idiazabal izendapena duten gaztak ekoizten dituzte eta ogia ere egiten dute kalean zein azoketan saltzeko. Herritarrek bertako produktuei balioa ematen dietela uste du.

"Herriko eta Eskoriatzako hainbat dendatan saltzen ditugu gaztak, baita Ereindajanan ere, eta horietan salmentek gora egin dute", dio Jon Murgiondok.

Azken hilabeteotan pentsuaren eta irinaren prezioak gora egin badu ere, salmenta prezioei eustea erabaki dute, ohiko igoerak bakarrik aplikatuta. Aurrerantzean ere orain arte legez lanean jarraitzeko itxaropena dauka Murgiondok.



Jon Murgiondo. JON MURGIENDO



Erabiltzaile bat igerian Ibarra kiroldegiko igerilekuan. GOIENA

## Athlonek jarraituko du izaten kiroldegiko zerbitzuen ardura

Aho batez onartu du udalbatzak hari esleitzea, eta aldaketa nabarmenena da langileen baldintzetan hobekuntzak

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Ibarra kiroldegiko zerbitzuen kontratazioa esleitzeko ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak martitzenean, eta zerbitzu horien ardura Athlon kooperatibari ematea onartu zuten, aho batez; orain dagoenari, alegia.

**Baldintza ekonomikoak hobetu**

Hiru enpresa aurkeztu ziren lehiaketara eta eskaintza teknikoan puntuaziorik altuena Athlonek jaso zuen. Ekonomikoan hala ez bazen izan ere, batez bestekoan garaile suertatu zen.

Aurrekontuaren zenbatekoa 502.812 euro da, eta bi zatitan banatu dute hori: batetik, harre-ra, sorosle-zerbitzua, mantentzea, rokodromoa eta koordinazioa 323.186 euro –BEZa gehitu behar horri, 67.869 euro–; eta bestetik, kirol jarduerak eta fitness gela-ko aholkularitza, 26,66 euro or-

duko –estimatu duten ordu kopurua urtean: 4.216–.

Orain, hamabost eguneko epea dago errekursoak aurkezteko, eta, halakorik egon ezean, kontratua sinatuko dute. Kontratu hori urtero luzatu ahal izango dute; gehienez, bost urte arte.

Udal Gobernuaren zein oposizioa pozik agertu ziren onartutakoarekin, eta azpimarragarriena langileen baldintza ekonomikoak hobetu izana dela aipatu zuten. Kirol jarduerari dagokienez, eskaeraren arabera ordu gehiago emateko aukera zabalik utzi da, orduko prezioa ezarri delako.

**Aldagelak, itxita**

Bestetik, kiroldegitik jakinarazi dute aldagelak itxita egongo direla Aretxabaeta eremu gorrian dagoen bitartean, Osasun Sailak zehaztutako legez. Igerilekuko aldagelak soilik daude zabalik, eta dutxa bakarrarekin.

## COVID-19ari aurre egiteko babes neurrientzat laguntzak

Udalak iragarri du COVID-19ri aurre egiteko higiene eta babesneurri bereziak ezartzeko establezimenduentzako dirulaguntzen bigarren deialdia martxan dagoela. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 15a arte izango da zabalik.

Foru Aldundiaren programaren bidez, Aretxabaletako Udalak 25.689 euro jaso zituen iaz, azaroan. Kopuru hartatik 19.666 euro geratzen direla oraindik jakinarazi dute. Aurreko deialdiko baldintzak berdinak dira oraingoan ere. Establezimendu bakoitzak eginiko material erosteta edo inbertsioaren %60 finantzatzeko dute; gehienez, 300 euro lokal bakoitzeko.

## 29. Literatura Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan

*Liburu bat...* ardatz hartuta Literatura Asteari ekingo diote datorren astelehenean Kurtzebarri eskolan. Liburu bat irakurtzeko dakarrenaren gainean hausnartzeko tarte hartuko dute, eta iritziekin horma-irudi erraldoi bat osatu. Aste osoko egitaraua osatu dute eta hainbat ipuin-kontalariren saioak eta antzezlanak izango dituzte. Egu-bakoitzean, gainera, Yolanda Arrieta idazle bizkaitarraren bisita jasoko dute Lehen Hezkuntzako lehen eta bosgarren mailako ikasleek.

Literatura Astearen barruan klasikoa den Irakur Maratoiak ez du hutsik egingo; hilaren 22an, egunean, izango da hori.

**Durana**  
Hartz Klinika

<b>Odontologia estetikoa</b>	<b>Ortodontzia</b>
<b>Endodontzia</b>	<b>PADI zerbitzua</b>
<b>Inplantologia</b>	<b>Hortz protesiak</b>

Asteleheneetik ostegunera: 08:30-20:00  
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55



Yolanda Dominguez aktibista hitzaldi bat egiten. YOLANDA DOMINGUEZ

## Irudiak eta genero eraikuntza aztergai

Gaur, arroparen kontsumo arduratsuen gaineko hitzaldi tailerra izango da Arkupen. Apirilaren 22an, berriz, irudiek nortasunaren eta generoaren eraikuntzan duten garrantziaren gaineko hitzaldi-topaketa, Yolanda Dominguez aktibistak gidatuta

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Udaleko Berdintasun Sailak bi ekintza antolatu ditu apirilera-ko. Batetik, arroparen kontsumo arduratsuen gaineko hitzaldi tailerra izango da gaur; eta bestetik, irudiek nortasunaren eta generoaren eraikuntzan duten garrantziaren gaineko hitzaldi-topaketa izango da apirilaren 22an. Izena aurrez eman behar da baterako zein besterako, [berdintasuna@aretxabaleta.eus](mailto:berdintasuna@aretxabaleta.eus) helbidean edo Arkupen.

*Zer ezkututzen da zure arroparen etiketen atzean?* izenpean, kontsumo arduratsuen gaineko hausnarketa sustatuko dute The Slowear Project y de Educa-Eco plataformaren sortzaile Angels Biosca Peris-ek eta Gu Haziak Gara elkarteak kideek. Ehungintzaren ekoizpena eta kontsumo sistema globala aztertuko dute ikuspuntu lokal eta globalaz, sistema honek pertsonen aurka, eta, zehazki, emakumeen kontra eragiten dituen kalteak eta, bereziki, ingurugi-

roaren kontrakoak ere ikusaraziz. Ekoizpen eta kontsumo modu sostengarri konkretuak proposatuko dituzte eta Gu Haziak Gara elkarteko kideek gizarteratze ildotik eskaintzen dituzten aukeren berri ere emango dute. Hitzaldi-tailerra gaur izango da, Arkupen (17:00-20:00), euskaraz eta gaztelaniaz.

**Irudien irakurketak egiten**

Apirilaren 22rako, berriz, *Revelando estereotipos que no nos representan. Cambiar las imágenes para cambiar el mundo* izeneko hitzaldi-topaketa antolatu dute. 18:00etan izango da, eta Yolanda Dominguez kontzientzia feministaren eta generoarekin harremandutako

**IRUDIEK NOLA ERAGITEN DUTEN AZALDUKO DU YOLANDA DOMINGUEZEK**

gizarte kritikaren inguruan gaiak lantzen dituen artista bisual, argazkilari eta aktibista izango da gidaria. Bertan, irudien historian zehar ibilbidea egingo du Dominguezek, eta irudien irakurketak nola egiten diren ere erakutsi, besteak beste: "Ordu eta erdiko saioa eskainiko dut, eta irudien historiari arituko naiz, artearen historiaren ikuspegitik hitz eginda. Irudiek nola eragiten diguten pertsoneri adieraziko dut, eta, horrekin batera, modaz ere arituko naiz. Bereziki, emakumearen figuraz... Arropa bat erostean hainbat faktore kontuan izan behar ditugula azalduko dut, keinu horrek gizartean izan ditzakeen ondorioez...".

**Izena emateko egin beharrekoa** Hitzaldi-tailerreko gehienezko edukiera 50 pertsonakoa izango da, eta, izena emateko, [berdintasuna@aretxabaleta.eus](mailto:berdintasuna@aretxabaleta.eus) helbidera idatzi, Arkupera joan edo bertara deitu daiteke.

## Zirika Zirkus taldearen 'Zinemaz blai' antzezlanaren etzi, domeka

Publiko guztientzat zuzenduta dagoen antzezlanaren ikusteko sarrerak salgai daude, hiru eurotan, Arkupen

**I.B. ARETXABALETA**

Domeka honetan, Zirika Zirkus taldearen *Zinemaz blai* antzezlanaren mundua oholtzara eraman nahi izan du lan honetan Zirika Zirkus konpainiak, eta publiko familiarrentzat zuzendutako saioa izango da. Sarrerak salgai daude, hiru eurotan, Arkupen bertan.

Asteburu honetako saioaz gain, apirila betea dator; izan ere, apirilaren 21ean, *Ganbaran aurkitu dudana altxorra* ipuin kontaketa izango da, udal bibliote-

kan, Iñaki Carreteroren eskutik, 18:00etan. Apirilaren 23an, berriz, Maite Arrese & Mau Ziemkiewicz musikariak *Basatiaren mintzoa* ipuin musikatu eskainiko dute, helduentzat, Arkupen, 19:00etan. Sarrera lau euro da.

Horrez gain, Irati Garaitonandia aramaioarraren erakusketa ireki zuten hilaren hasieran, eta apirilaren 30era arte ikusgai egongo da, *Marrazkiak* izenpean. Askotariko materialak lantzen dituen arren, bere obraren zatirik handiena paperean egiten du 11 urteko gazteak.

## UDAk babes eskatu die bazkideei, aurrera egiten jarraitzeko

Indarrak batzeko dei egin du klubak, eta, bide batez, eskerrak emateko aprobetxatu dute bidalitako gutuna

**I.B. ARETXABALETA**

Pandemiak baldintzatutako "saso gogorra" igarotzen ari direla adierazi die UDAk bazkideei, gutun bidez. Adierazi die COVID-19aren pandemiak partidetak sarrerarik gabe, babeslerik gabe eta futbol zelaiko tabernarik gabe utzi dituela UDA, baina guztien artean indarrak batuta aurrera egingo dutelakoan daude elkartekideak.

"Beste behin, guztion indarrak batuta egoera hau ere kudeatzea lortuko dugu. Aurtengo bazkidekuota aspaldian pasatuko kuo-

tarik garrantzitsuenetakoa izango da, ziurrenik, eta beharrezkoa izango da aurrera egiten jarraitu ahal izateko".

Era berean, gutuna eskerrak emateko ere erabili du elkarteak. "Esan ohi da klub batek herriaren nortasuna jasotzeko gaitasuna behar lukeela izan. UDAREN kasuan, alderantziz da. Herriak ematen dio nortasuna klubari. Herritar, bazkide, zale, boluntario, babesle, kirolari... zaretzen horiek idatzi duzue UDA Kirol Elkartearen historia", dio oharrean.

## Etorkizun hurbileko ideiak partekatzeko hitzaldia Arkupen

Hilaren 19an, 16:00etan, Basotxokoek antolatutako *GSR Etorkizunaren aurrean* izeneko hitzaldia izango da, Arkupen. Marije Zabaleta GSRko gerenteak egingo du hitzaldia, eta etorkizun hurbileko ideiak partekatuko ditu bertaratuko direnen artean. Gehienezko edukiera 50 pertsonakoa izanda, izena eman behar da bertaratzeko: 943 08 10 01.

**Mobiliario ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

2019an, Zaldibar antzokian egindako *Literatura juntaixe* ekitaldian, beteta egon zen aretoa. ESKORIATZAKO UDALA**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eskoriatzako bibliotekak irakurzaletasuna sustatzea izanda helburu nagusia, ez da lehenengo aldia *Literatura juntaixe* egitasmoa antolatzen dutena herrian. Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna izanda, horren baitan antolatutako ekintzan, liburu gomendioak emango dituzte egitasmoa batu diren herritarrek, eta, bide batez, euren gustuko pasarteak irakurriko dituzte, zuzeneko musikaz lagunduta egongo den ekitaldian. Hala, *Literatura juntaixe* gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian, eta bertara joateko gonbidapena jaso beharko da, nahitaez, edukiera neurriak betetze aldera.

**Genero askotako pasarteak**

Hainbat herritarrek eman dute izena *Literatura juntaixe* egitasmoan, eta norbanako bakoitzak liburu baten pasarte bat irakurriko du. Parte hartzaileak honako hauek izango dira: Jon Errasti, Jaione Fernandez de Jauregui, Txaro Julian eta Arantzazu Loidi. Hala, euren irakurketekin, iritziak, gustuak, sentazioak, eta abar konpartitzea aukera izango dute, ekitaldian animatzen diren herritarren aurrean. Gainera, Beñat Arrieta eta Gari Barandiaran arituko dira zuzeneko musika jartzen, eta saioa gidatzen, berriz, Dorleta Kortazar eskoriatzarra arituko da.

# Parte hartzaileen liburu gustukoaren pasarteak irakurketa, musikarekin

'Literatura juntaixe' egitasmoa izango da gaur, egubakoitza, Eskoriatzako Zaldibar antzokian, 19:00etan. Zenbait herritarrek euren liburu gustukoaren pasarteak irakurriko dituzte, eta, gainera, musikaz lagunduta egongo da irakurketa saioa

"Liburuaren Nazioarteko Eguren bueltan, Eskoriatzan antolatu dugun egitarauari hasiera emateko ekitaldia izango da gaurkoa. Azken urteetako ohi-turari jarraiki, *Literatura juntaixe* egingo dugu liburu eta musika artean, Zaldibar antzokian. Ekitaldi xumea izango da, eta hasiera batean bost irakurle izan behar ziren arren, lau izango dira, azkenean, oholtzan", adierazi du Arantxa Unzueta, Eskoriatzako Kultura teknikariak. Literatura ardatz izango duen hitzordura begira, egingo diren irakurketen gainean au-

**LAU HERRITARREK JARDUNGO DUTE EUREN GUSTUKO PASARTEAK IRAKURTZEN**

rreratze aldera, poesiak bere tartea izango duela nabarmendu du Unzueta: "Parte-hartzaile batek Xabier Leteren poesia zati bat irakurriko digu. Beste batek, aldiz, Alfonsina Storni poetaren lanaren zati bat...".

Ordubeteko saioa izango da, eta Zaldibar antzokira gerturatu gura duenak gonbidapena eskatu beharko du; horretarako, bibliotekara deitu daiteke, 943 71 31 35 telefono zenbakira, *whatsapp*-a bidali 674 11 19 55 zenbakira, edo bibliotekatik pasa. Edukiera mugatua izango da, eta 60 lagunendako lekua izanda, gehienez.

**Liburu azoka eta hitzaldiak**  
*Literatura juntaixe* ekitaldiaz gain, apirilaren 19tik aurrera liburu azoka txikia egongo da bibliotekan, eta liburu aukera handia izango da bertan. Hala,

jarriko duten liburu bakoitza euro baten truke erosi ahal izango da.

Literaturaren Nazioarteko Eguneko ekintzekin jarraituz, hilaren 23an, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketaren sari banaketa egingo da Zaldibar antzokian, 18:30an, eta, amaitzean, Asisko Urmenetak *Sorgin ehiza Euskal Herrian XVI. eta XVII. mendeetan* hitzaldia eskainiko du. Apirilaren 24an, zapatuan, berriz, Jakoba Errekondo *Balkoiko loreak* liburuaren aurkezpena egiten izango da Ibarraundi museoa, 11:00etan.

**BEÑAT ARRIETA ETA GARI BARANDIARAN ARITUKO DIRA ZUZENKO MUSIKAZ EKITALDIA GIROTZEN**

## Erlijiotik zientziara



**JAIONE FERNANDEZ DE JAUREGI**  
HERRITARRA

Yuval Noah Harari israeldar historialariak idatzitako *Sapiens. De animales a dioses: Una breve historia de la humanidad* liburuaren izango du hizpide Jaione Fernandez de Jauregi *Literatura juntaixe* saioan.

"Gizadiaren historia labur bat marrazten du idazleak, lehen gizakietatik hasi eta *Homo sapiens* sortu bitartean gure espezieak egindako bidea kontatuz. Irakurteraza da, eta erlijioak sortu zirenetik eta zientzia iritsi zen arteko atalean zentratuko naiz ni. Erljioa jakintza totala izatetik zientzia iritsi eta gizakia nolako ezjakina den jabetzen den zatian, hain zuzen ere".

## Musikarekin gozatzen



**BEÑAT ARRIETA**  
HERRITARRA

Beñat Arrieta eta Gari Barandiaran eskoriatzarrek hainbat euskal kantaren bertsoak eskainiko dituzte Zaldibar antzokian, *Literatura juntaixe* saioan. Abesti guztiak era akustikoan eskainiko dituzte; batzuk bi gitarrarekin joko dituzte eta beste batzuk, berriz, gitara eta pianoarekin izango dira. "Saioaren hasieran, amaieran, eta irakurriko dituzten pasarte batetik besterako tartetan joko ditugu kantuak. Irakurriko dutena girotzeko euskal bertsoak talde hauenak izango dira, besteak beste: Ruper Ordorika, Itoiz, Eñaut Elorrieta...".



Julen Exposito Morales, tandem bizikletarekin, Santa Marinako kiosko aurrean. GOIENA

# Tandema gidatzeko kide bila ari da Julen Exposito

Kemen Pertsona Ezinduen Kirol Klubeko txirrindularia da Julen Exposito eskoriatzarra, eta deialdia egin du, sare sozialetan, bere afizioa partekatzen duen kirolaria aurkitzeko. Interesa dutenak Kemenekin jar daitezke harremanetan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Txirrindularitza egokituko txapelketetan parte hartu nahi du Julen Exposito eskoriatzarrak. Orain dela zortzi urte, itsu gelditu zen ebakuntza baten ondorioz, eta orain, tandem bat erosi du, txapelketetan parte hartzeko ilusioarekin. Baina tandem hori gidatuko duen pilotua falta zaio, eta, hain justu ere, horren bila dabil.

Tandemean, ikusteko zailtasunak dituena atzean eserita joaten da, eta aurrean, berriz, gidari lanetan, pilotua. Horren baitan, txapelketetan aritzeko gogoz dago Exposito, eta lehiatzeko lagunaren ezaugarriak zeintzuk izan daitezkeen adierazi du: "Tandema gidatuko duenak gizonezkoa izan behar du, txapelketetan gizonezkoen sailean parte hartu ahal izateko. Hori horrela, pilotuak txapelketetan lehiatzeko gertu egon behar du. 30-32 urtetik gorako pertsona bat izatea uste dut dela egokiena, eta, astean zehar bi edo

hiru bider entrenatzeko aukera izateaz batera, txapelketetarako prestutasuna ere izatea izango litzateke egokiena".

Tandemari dagokionez, Valentzian erosi duen arren, Txekiatik ekarri diote. Duratec markakoa da, eta 2,45 metro ditu luzeran; horrez gain, bi plater eta bi kate ditu.

**Txapelketetarako ilusioz**

Duela zortzi urte egindako ebakuntza baten ostean itsu gertatu eta lehen urtea gogorra izan zela azpimarratu arren, handik gutxira kirola egiteko gogoia eta bizikleta gainean lehiatzeko grina piztu zitzaizola adierazi du Julen Expositok, eta horregatik erosi du tandem: "Itsu

**IRAILEAN EUSKADIKO TXAPELKETAN PARTE HARTZEKO ILUSIOZ DAGO JULEN EXPOSITO**

izateak gauza asko kendu dizkit, baina eman ere bai. Kendu didan gauzetako bat, eta pertsona batzuek, agian, ulertuko ez dutena da kalean ni bakarrik aritzea, esaterako. Eman, berriz, ilusioa eman dit. Hori horrela, orain, Kemen pertsona desgaituen kirol klubean ari naiz. Kirol ezberdinak daude bertan: mendira joateko aulki gurgildun bereziak, tiro olimpikoa, eski egokitua... Nik halakorik ez dut probatu. Hasiera batean, tandemean aritu nahi dut, txirrindularitza baita gustatzen zaidana".

**Harremanetarako**

Bidelagunak konfiantzazkoa izan behar duela azpimarratzeaz batera, tandem probatu eta Julen Expositorekin batera lehiatu gura duten interesdunak Kemen Pertsona Ezinduen Kirol Klubarekin harremanetan jarri daitezke. "Nire ametsa aurtengo irailean Euskadiko txapelketan parte hartzea izango litzateke".

## 'Non dago Mikel?' filma proiektatuko dute Zaldibarren

Domekan 19:00etan izango da ikusgai, eta sarrerak hiru eurotan lor daitezke, alde zurretik, kiroldegian

**I.B. ESKORIATZA**

Mikel Zabalza kasuaren inguruko *Non dago Mikel?* pelikula proiektatuko dute domekan, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrerak aurrez eros daitezke, hiru eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian.

1985ean Mikel Zabalza nafar gaztea desagertu zeneko kontakizuna egiten da. Guardia Zibila ETako militante batekin nahasi eta atxilotu egin zuen, eta, Zabalza desagertuta egon zen hogeitun egunetan, bertsio ofizialak eragindako mesfidantzak

bultzatuta jokatu zuen euskal gizarteak. Horren adierazle da ikus-entzunezkoan agertzen diren irudiak. Gizon gaztearen gorpua Bidasoa ibaian agertu zenean, protesta ugari eta ez-tanda sozial handiak egon ziren. Zabalza torturatuta hil zela uste zuen jendeak, oro har, baina inoiz ez zuten inor epaitu ezta zigortu ere. Zabalza hil zutenetik 35 urte pasata, bere familiak egia jakin nahian jarraitzen du. Lana *Ahotsa.info*-k ekoiztu du, eta Mikel Zabalza Gogoan Herri Ekimenak bultzatu.

## Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko deialdia

Eskoriatzan hurrengo lau urteetarako bake epailea eta haren ordezkoa hautatzeko deialdia egin du Udalak, eta apirilaren 9an publikatutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri dira deialdi horri buruzko xehetasun guztiak. Hautagai izan nahi dutenek zenbait baldintza bete beharko dituzte, eta udal webgunean daude ikusgai.

Besteak beste, 18 urtetik gorakoa izatea eta Espainiako nazionalitatea edukitzea, lanean diharduen abokatua edo prokuradorea ez izatea, edo kargu politikorik edo sindikalik ez edukitzea.

Hautagaitzak aurkezteko azkeneko eguna 2021eko apirilaren 30a izango da, eta bi modutara egin daiteke: presentzialki udaleko arreta zerbitzuan, 09:00etatik 14:30era bitartean, edo online; horrela egin nahi duenak ziurtagiri digitala beharko du.

## GORA ETA BEHERA



### Musika eskola aurreko pasabidea

Hidalga kaleko pasabidea egoera kaskarrean dago. Oinezkoentzako eguneroko pasoa izateaz batera, Beheko Errota musika eskolako itxaron-lekua ere bada, eta, leku iluna dela jakinekoa bada ere, pintaketa askoren eremu da eta txori-kakaz josia dago.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo 688 69 00 07.



# "Marko urdin batean ondo gordeko dut sarea"

ADRIAN BELOKI KAZETARIA

Realzale amorratua da, eta Sevillan, Cartujan, jokaturako Realaren eta Athleticen arteko Errege Kopako finaleko sare zati bat opari egin diote

Imanol Beloki ESKORIATZA

Madriilen bizi da Adrian Beloki eskoriatzarra. Hara Kazetaritza ikasketak egitera joan ostean, zenbait lan egin ditu; gehienak, kirolaren bueltan. Gainera, Twitterren oso aktiboa da, eta ate berriak irekitzeko aukerak eskaini dizkio horrek, beste hainbat proiektu ere egin izanarekin batera. Realaren eta Athleticen Errege Kopako finaletik, gainera, sekulako oroigarria ekarri diote bere lagun Gorka Otxoak eta Diego Compyok, eta ilusioz ari da komunikatzen eta Reala animatzen.

**Madrilera ikastera joan, eta urte dezente pasa dira. Ordutik, lanbide honen baitan kontu asko eta lan dezente egin duzu. Baita sare sozialetan oso aktibo ibili, ezta?**

2010ean etorri nintzen Madrilera Kazetaritza ikastera. Kirolari dagokionez, berriz, oso futbolzalea naizenez, Twitterren ere oso aktibo aritu naiz betidanik, Realaren inguruan idazten. Ikasketak amaitu, eta *Marca Plus* aldizkarian hasi nintzen idazten, eta hura izan zen kirol kazetaritzarekin izan nuen lehenengo kontaktu profesionala. Gero, *La Grada* aldizkarian aritu nintzen, eta, bertan ari nintzela, *A la sombra de Darko* podcasta atera nuen.



Adrian Beloki, Errege Kopako sare zati bat erakusten du. A.B.

**La sombra de Darko podcasta zer da? Zer egiten duzue, zehazki?**

Diego Compyo Youtuben ezaguna den Madrilgo lagunarekin jarri nuen proiektua martxan. Bertan, futbolaz eta Realaz hitz egiten dugu, bereziki; betiere, umore puntu bat emanez. Podcasta martxa hartzen ari zela, eta audientzia onak izaten hasi ginenean, Gorka Otxoa aktoreak idatzi zigun entzulea zela... eta, berarekin harremanetan jarri ostean, geroztik *La sombra de Darko* podcasteko kide bat gehiago da.

**Solasaldi umoretsuak egiten dituzue, baina ez soilik zuen artean.**

Mikel Gonzalez, Jon Bautista, eta abarrekin egin ditugu solasaldiak. Betiko komunikabideetara jo beharrean, gu bezalako podcastetan, amateurragoak direnekin erosoago aritzen dira futbol jokalariek; hori uste dut, behintzat.

**Zaletasuna lanbide bihurtzeko moduan bai?**

Pelidano izeneko enpresan ari naiz lanean orain, eduki estrategikoen zuzendari. Lanak ez dauka kirol kazetaritzarekin loturarik, baina iaz, Radio Marca Donostiako zuzendari Jon Cuevak deitu zigun, eguenetan sekzio bat egiteko, eta hor ere ari gara. Hori bai, lanetik kanpo, denbora librean. *La sombra de Darko* podcastean ere berdin ari gara. Izan ditugu aukerak monetizazioak bilatzeko, baina erabaki genuen ez sartzea hor. Gustura egiten duguna ez dugu betebeharrak izatea nahi.

**Kopako sarea ekarri dizute. Nola izan da hori?**

Gorka Otxoa eta Diego Compyo partiduan izan ziren, eta jaso dudako oroigarriak sekulako ilusioa egin zidan, izugarria. Ez nuen espero. Orain, marko urdin realzale bat bilatzen ari naiz sarea ondo gordeta izateko.

## Parisko Opera Nazionalaren lanak zuzenduko ditu Encinak

Bi estreinaldi izango ditu urrian: disko aurkezpena, batetik, eta zuzendari moduan debuta Garnier jauregian

I.B. ESKORIATZA

Frantzia bost hilabete baino gehiago daramatzate kultur ekintza barik. Baina tarte honetan, uda osteko programazioa prestatzen ari da Iñaki Encina orkestra zuzendari eskoriatzarra.

Encina duela hamasei urte iritsi zen Parisera, operak artista gazteentzat duen programan parte hartzeko, eta bertan gertatu zen. Orain, bere zuzendari-tzapean egongo dira hurrengo sasoko lan bi.

Zein opera izango diren ez dute ofizialki jakinarazi, eta artistak sorpresa gorde nahi du. Hala, urrian estreinaldi bikoitza izango du Eskoriatzako maisuak, pandemiak uzten badu. Adriana Gonzalez Operalia mundu mailako lehiaketaren irabazlearekin batera, Isaak Albenizen abestekin prestatutako disko berriaren aurkezpena, batetik, eta, munduko operarik garrantzitsuenetako batean, Garnier jauregian, zuzendari moduan debuta, bestetik, hain zuzen ere.

# LEINTZ GATZAGA 23



Goierriko Azken Sustraiak taldeko musikariak talde argazkian. AINGERU BIDAURRETA

## Mendia eta musika uztartuko dituzte 'Makila Korta fest' jaian

Goizean Makila Korta mendira igo eta ginkana izango da bertan; arratsaldean, berriz, kontzertuak herrigunean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 24rako, 09:00etan, herriko plazatik irtenda, Makila Korta mendira paseoa antolatu du Gatzagako Udalak, Gatzaga City Krew gazte taldearen laguntzarekin. Bertan ginkana herrikoia egingo dute, eta arratsaldean, 17:00etan, berriz, Azken Sustraiak eta Talka taldeen kontzertuak izango dira.

"Martxoan zenbait ekintza egin ginen, eta, hortik abiatuz, hileroko ekintza kulturalen bat antolatzea erabaki genuen. Hori horrela, hilabete honetan, udaberriari ongietorria egiteko,

*Makila Korta fest* antolatu dugu... Ea posible dugun gauzatzea", adierazi du Garazi Orobengoa zinegotziak.

**Kontzertuen edukiera, beteta**

Herrigunetik irtenda, Gatzagainera igo, Jarindora bidea hartu eta Makila Kortara iritsiko dira, goizean, bertan jolasak egiteko. Eta arratsaldeko kontzertuei dagokionez, 100 pertsonarentzako edukiera-muga jarri zuten, gatzagarrek preferentzia izanda, eta sarrerak atera bezain pronto agortu zirela adierazi dute antolatzaileek.

## Aste Santuan bisitari gutxi egonda, egoera aldatzeko zain

Gatzagako Gaztainuzketa Leintz zuhaitz etxeetako webgunea berrituta, proiektuan sinisten jarraitzen dute

I.B. LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako Leintz zuhaitz etxeetako egoera ez da ona izaten ari pandemia hasi zenetik, eta bezeroren bat edo beste izan dute Aste Santuko oporraldian. Hala ere, "egoerarekin kezkatuta" dago Kepa Atutxa jabea.

Pandemia hasi zenetik izan duten egoera ez da ona izan Gaztainuzketan. Hala ere, *Basoaz blai* egitasmoaz ilusioz dago Kepa Atutxa jabea, eta naturan murgildu nahi duten bisitari kopurua igoko dela aurreikusten du, maiatz aldera. "Bezero batzuk

izan ditugu, baina erreserbak bertan behera utzi dituztenak ere asko izan dira. Azkenaldian, Gipuzkoara mugatu dugu eskaintza, baina, kasu honetan ere, herri asko eremu gorrian izanda eta kasuak goraka doazela ikusita, ez da erraza asmatzea. Hala ere, sinisten dute egiten duten horretan, eta egoera hobetuko den esperantzaz daude. Hala, webgunea berrituta, interesa dutenek, *Cabanase-nelbosque.eus* webgunea arakatu dezaketela gaineratu gura izan du Atutxak.



Musika Eskolako ikasle eta irakasle talde bat eskolan bertan, Apirilean Musika zikloa aurkezteko agerraldian. MAIALEN SANTOS

# Eskolatik kalera, etenaren ostean

Iazko Apirilean Musika zikloa konfinamenduagatik suspenditu ostean, gaur hasiko da 17. edizioa, askotariko 25 ekitaldirekin; antolatzaileek diote neurri guztiak "zorrotz" beteko dituztela, eta "ilusio bereziarekin" daudela berriz ere herritarren aurrean jotzeko

## Jokin Bereziartua BERGARA

Iazko Apirilean Musika zikloa prentsaurreko bidez iragarri eta egun gutxira heldu zen konfinamendua. Pandemiak bete-betean harrapatu zuen musika zikloa iaz eta bertan behera geratu ziren ekitaldi guztiak. Aurten, baina, antolatzea erabaki dute. "Egoera zein den ikusita, zalantzak izan genituen. Baina gure eginkizun nagusia ikasleen formakuntza da eta prozesu horretan oso garrantzitsua da etxe barruan egiten dena plazaratzea. Segurtasun neurriekin oso zorrotzak izango gara", adierazi du Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek. Jendaurrean jotzearen aurreko entseguak bereziak direlako, Ugaldek dioenez: "Egunotan sekulako giroa dago eskolan, ikasleak ilusio handiarekin daude. Eta batzuk pena

handiaz, gertuko positiboren bategatik konfinatu eta kontzertua ematerik izango ez dutelako. Azken ordura arte ez dugu jakingo prestatu dugun guztia eta musikari guztiak parte hartu ahalko duten emanaldietan; ilusioa inoizko handiena da".

## "Giro berezia" dago egunotan

580 bat ikasle izanda, ikasturte osoan dago mugimendu handia Musika Eskolan, baina egunotan igartzen da zerbait berezia datorrela. 17. aldi honetako egitarauari dagokionez, kontzertuez harago ere badira hitzaldiak,

## "PARTEKATU GABE EZ DU ZENTZURIK; GURE MUSIKA KALERA ATERA BEHAR DUGU"

MARIJE UGALDE, BME-KO ZUZENDARIA

ikastaroak, ipuin musikatuak... "Egunerokotasunean eskaini ezin dieguna eskaini nahi diegun ikasleei; Apirilean Musika zikloak irauten duen bitartean klaseak eten egiten dira ekitaldi publikoak egiteko. Eta, nola ez, Bergarako herriak erakusten digun babesa bueltan emateko modu bat ere bada, eskertzeko era bat. Azpimarratu nahi dugu oso zorrotzak izango garela neurriekin, eta, beraz, gonbidapena egiten dugu antolatu ditugun ekitaldietara gerturatzeko", dio Ugaldek.

Musika Eskolako komunitate osoa dago bereziki gogotsu Apirilean Musika zikloari ekiteko. Gaur bertan, Musikeneko Meraki laukotea izango da Seminarixoan: "Gure ikasleei Musikene gerturatzeko modu bat izango da, hor dagoela ikusteko; goimailako musikari gazteak etorriko dira, etorkizun handikoak".

## 25 ekitaldi, neurriak "zorrotz" beteta

### Apirilak 16, egubakoitza

- 18:30 Meraki Musikeneko hari laukotea eta Bergarako Musika Eskolako orkestra sinfonikoa, Seminarixoan.
- 19:00 Martxa Kalera-Konboak, Seminarixoko karpan.

### Apirilak 17, zapatua

- 09:30 Ate irekiak, Musika Eskolaren Youtubeko kanaletik.
- 17:30 *Arratsalde bat operan*. Puciniren *Turandot* operaren aurkezpena eta proiektzioa, Seminarixoan.

### Apirilak 18, domeka

- 17:30 / 19:00 *Kaixo, Stoltz Jauna. Hor zare?* ipuin musikatua, Seminarixoan. Hasiberrien abesbatza, umeen abesbatza eta talde instrumentala.

### Apirilak 19, astelehena

- 13:55 / 16:40 *Zure instrumentuaren bila*, Musika Eskolan.
- 18:30 Inprobisazio tailerra orkestrako kideentzat, Quico Pugesen eskutik, Musika Eskolan.
- 18:30 Piano ikasleen emanaldia, Seminarixoan.
- 18:30 Musikoterapiaren gaineko hitzaldia Maite Vicuñaren eskutik, Irizar jauregian.

### Apirilak 20, martitena

- 17:30 *Zure instrumentuaren bila*, Musika Eskolan.
- 17:30 Piano eta gitarra ikasleen kontzertua, Seminarixoan.
- 19:00 Txistu taldea eta flauta ikasleak, ospitaleko Elizan.
- 19:00 Biolontxelo ikasleen eta hari taldearen emanaldia, Seminarixoan.

### Apirilak 21, eguaztena

- 15:00 / 16:30 Piano eta gitarra ikasleak, Antzuolako Olaranen.
- 17:30 Dantza ikasleen emanaldia, Seminarixoan.
- 18:00 *Zure instrumentuaren bila*, Antzuolako Olaranen.
- 18:30 Perkusio eta trikiti ikasleen emanaldia, Seminarixoan.
- 19:00 Klarinete, biolin eta biola ikasleen emanaldia, Mariaren Lagundiko elizan.
- 19:30 Helduen kontzertua, Musika Eskolan.

### Apirilak 22, eguena

- 18:00-19:30/19:30-21:00 Gorputza eta mugimendua, Natxo Monteroren eskutik. Zabaltegi dantza lokalean.
- 18:30 *Musika kalera!* ekimena, Seminarioko karpan; askotariko instrumentuak ezagutzeko eta probatzeko aukera egongo da.

### Apirilak 23, egubakoitza

- 14:00 / 16:45 *Zure instrumentuaren bila*, Musika Eskolan.
- 17:00-18:30/18:30-20:30 Gorputza eta mugimendua, Natxo Monteroren eskutik. Zabaltegi dantza lokalean.
- 17:30 Musika tailerra: *Baltasar sagutxoa eta pentagrama enea*, Seminarixoan.
- 19:00 Kantu ikasleen emanaldia, Seminarixoan.

### Apirilak 24, zapatua

- 11:00 Musika Eskolako Suzuki ikasleak, Seminarixoan.
- 12:30 Tronpa, tronpeteta eta oboe ikasleak, Seminarixoan.

### Apirilak 27, martitena

- 19:00 *Ahotsaren garrantzia izeneko haur eta gazteengan izeneko hitzaldia*, David Azurzaren eskutik, Irizar jauregian.

### Apirilak 28, eguaztena

- 18:00 / 18:45 / 19:15 *Zure instrumentuaren bila* ekimena, Musika Eskolan. Gurasoei zuzendutako saioa izango da.



# Hiru eskolen "elkarlana" udalekuak antolatzen

Ekainaren 28tik uztailearen 23ra egingo diren udalekuak antolatzeko lehen aldiz elkartu, eta euren instalazioak lagako dituzte hiru eskolek; aldezturik eman behar da izena, ezinbestean, apirilaren 25erako, eta gero, ordainketarako Udalak pasatuko du abisua

**Jokin Bereziartua** BERGARA

San Martin Agirre eskolak, Mariaren Lagundia ikastetxeak eta Aranzadi ikastolak Bergararako udalekuak "elkarlanean" antolatzeko "apustua" egin dute, Udala Gobernuak adierazi duenez: "Elkarrekin herri mailako udalekuak antolatzeko apustua egin dute, Jardunekin eta Udalarekin batera. Eskolen arteko zubiak eraikitzeke plana egiteko asmoa du Udala Gobernuak, *Bergara izan, bizi, ekin* planean jasotzen denez, eta elkarlan hau urrats bat da bide horretan".

Hiru eskolek instalazioak lagako dituzte udalekuak antolatzeko, egoera aldakorrari hobe erantzuteko. "Udan egongo den eskaintza bakarria izango da, herrikoa. Haur guztiak batuko dituen, euskaraz, eta aisialdi hezitzailea oinarri", gaineratu dute Udaletik. Osintxun eta Angiozarren ere izango dira udalekuak. Kirol eskaintza, Laboratoriumeko udako eskaintza eta Liburutegia Usondon ekimenak ere antolatuko ditu Udalak.

**Hiru edo lau asterako aukera**

Ekainaren 28tik uztailearen 23ra izango dira udaleku irekiak, 10:00etatik 13:00etara, eta 2009 eta 2016 urteen artean jaiotako umeei egongo da zuzenduta.



Gorka Artola, Gotzon Iparragirre, Jose Ramon Lasa, Saioa Garitano eta Garbiñe Martinez. B.U.

## BIZTANLEEN ARRETA ZERBITZUAN, UDAL LIBURUTEGIAN EDO UDAL WEBGUNEAN EMAN DAITEKE IZENA

Aldez aurretiko izen-ematea apirilaren 25erako egin beharko da, leku eta ordutegi hauetan: Biztanleen Arreta Zerbitzuan, astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 14:45era; eta eguenean, 16:00etatik 19:00etara. Libu-

rutegian ere eman ahalko da izena: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 20:30era eta zapatuan 09:00etatik 13:00etara. Eta Udalaren webgunean ere eman daiteke izena.

**Eskola bat, adinaren arabera**

Umeak adinaren arabera ikastetxe batean edo bestean arituko dira udalekuan: 2016an edo 2015ean jaiotakoak, Aranzadi ikastolan; 2014an edo 2013an jaiotakoak, Mariaren Lagundian; eta 2009-2012 urteen artean jaiotakoak, San Martin Agirren.

## Galdetegia bete, eta ostean ordaindu

Aldez aurretiko izen-ematea apirilaren 25erako egin beharko da, beranduenez, ordainketarik egin gabe; galdetegi bat bete beharko da, eta bertan zehaztu beharko da, besteak beste, Bergarako herrigunean, Osintxun edo Angiozarren eman nahi den izena. Epez kanpo eskaerarik ez da onartuko. Behin betiko izen-emateari begira, ezinbestekoa izango da aldez

aurretikoa eginda izatea. Udala posta elektronikoz harremanetan jarriko da aldez aurretik izena eman duten familiekin, ordainketa egiteko eta bestelako datuak edo baimenak eskatzeko. Udalak zehaztuko duen epe barruan izen ematea berretsi ez bada, umeak dagokion plazari uko egin diola ulertuko da.

Aste kopuruaren eta izena eman duten seme-alaba

kopuruaren arabera izango da tarifa. Egoera zaurgarrienean dauden familiei begira ere tarifa soziala atera dute; bi baldintza bete behar dira: Bergaran erroldatuta egotea eta urtean elkarbitzita unitate horrek honako diru sarrera hauek ez gaintzea: bi pertsonako unitate familiarak, 20.105 euro; hiru pertsonako unitate familiarak, 23.776 euro; eta, azkenik, lau pertsona edo gehiagoko unitateak, 27.447 euro.



Ipintzako ikasleak Jon Olivaresekin, Goiena telebistako platoan. MARKEL ARRAYAGO

## Jon Olivares aktore osintxuerra elkarrizketatu dute Ipintzakoek

'Patria' eta 'Altsasu' telesailak galdetu diote, batez ere, ikasleek; apirilaren 21ean ikusi ahalko da (21:30/23:30)

**J.B. BERGARA**

*Galdegazte* saioaren barruan, Ipintza institutuko Eider Lazpiur, Ayelen Edroso, Ainhoa Insausti eta Nora Rodriguez ikasleek Jon Olivares aktore osintxuerra elkarrizketatu dute. *Patria* telesailak egin zuen ospetsu Olivares, baina aspalditik dihardu interpretazioaren munduan, eta, hain zuzen ere, antzerkigintzan egindako lehen urteak oso presente dituela argi utzi du. *Patria* telesaila eta *Altsasu* grabatzea oso ezberdina izan zela dio Olivaresek, lehenengoa HBO plataforma erraldoiak ekoiztu

zuelako eta *Altsasu* askoz txikiagoa izan zelako: "Ezberdinak bezain aberasgarriak izan ziren bi telesailak".

**Osintxu, betirako bihotzean**

Bergara du bizileku egun, baina alde batetik bestera dabil, lanagatik. Hala ere, Osintxuko alkattea izan zenak ez du ahazten nondik datorren, eta aitortu du tarteka Osintxura bueltatzeko "beharra" duela, bertan beti dagoelako eroso. Jon Olivaresi elkarrizketa apirilaren 21ean ikusi ahalko da, Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

## OHARRAK

### Berdintasun Kontseiluaren hurrengo bilera

Apirilaren 19an izango da, osoko bilkuren aretoan (18:30). Gaiak: Martxoaren 8aren balorazioa; bigarren Berdintasun Planaren balorazioa eta hirugarrenaren diseinua; eta zaintzaren gaineko diagnostikoa eta gaia Jabekuntza Eskolan lantzeko aukera.

### Odol emailek telefono zenbaki berria dute

Honako telefono zenbaki hau erabili behar da: 747 42 99 20.

### Deba Bailarako Kontseilu Sozialistaren zozketa

Elkartasun zozketako zenbaki sarituak dira 621 -ordezkoa, 197- eta 298 -ordezkoa, 206-. Zenbaki irabazlea duena jar dadila harremanetan haiekin, Twitter, Instagram edo Facebook bidez.

### Gipuzkoako eta mendebaldeko lau eta erdikoa

Gipuzkoako eta mendebaldeko pilota txapelketetako final-laurdenak eta finalerdiak jokatuko dira kadete mailan, hurrenez hurren. Domekan izango dira partiduak, 10:30ean hasita.

### Zaborra, estolderia eta ura ordaintzeko aukera

Hiru tasok ordaindu behar dira ekainaren 10erako. Helbideratu gabekoak ordaintzeko argibideak, biztanleen arreta zerbitzuan.



Hainbat auto lbgarain; bizikleta gutxi erabiltzen da eta garraio publikoa bergararren %25 inguruk erabiltzen dute. JOKIN BEREZIARTUA

# Barruko mugimenduen %66, norberaren autoan

'Bergara 2030 egin herrixa' planaren "oinarri" izango den diagnostikoa aurkeztu zuten atzo Seminarixoan; ingurumenaren, mugikortasunaren, soldata arrakalaren, herriko balio erantsi gordinaren eta euskararen erabileraren gaineko datuak eman zituzten

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Gorka Artola alkateak honako hitz hauekin azaldu zuen *Bergara 2030 egin herrixa* planaren helburua, ekimena martxo hasieran aurkeztu zutenean: "2030eko Bergara herritarren artean nolakoa izatea nahi dugun adosteko jarri dugu martxan. Denon artean etorkizuneko he-

rria diseinatuko dugu eta prozesu parte-hartzailearen bitartez herria, komunitatea egingo dugu". Atzo aurkeztu zuten lehen diagnostikoa herritarren artean, Seminarixotik, *streaming* bidez jarraitu ahal izan zen ekitaldian. Herritarren arloko arduradun Ekaitz Aranberri zinegotziaren arabera, "oinarri

sendoa" jarri du Udal Gobernuak diagnostiko hori egitean: "Etor-kizuneko gure herriaren diseinua berau osatzen dugunon artean partekatutakoa izan behar da. Tempus politikoetatik haragokoa behar du izan, epe luzerako proiektuak behar bezala gauza daitezen, bidean hausturarik eman gabe agintaldi aldaketetan.

## Trantsizio ekologikoan herrietatik ere eragin behar dela dio Oterok

EH Bilduko legebiltzarkide Mikel Otero izan zen martitzenean UNEDen, trantsizio ekologikoaz berba egiten. Oteroren esanetan, krisi ekologikoan gaude, klima larrialdiaz gain beste hainbat erpin dituen arazo baten erdian. Euskal Herriko datuak kaskarrak direla dio, menpekotasun energetiko handia dugulako eta ekonomia martxan izateko erregai fosilak erretzearen ondoriozko isuriak munduko batez bestekotik askoz gorago daudelako. Krisi ekologiko globala izan arren udalerrietatik eragin daitekeela dio: "Oso garrantzitsua da udalek, eragileek eta herritarrek trantsizio ekologikoaren beharraz kontzientzia hartzea".

## ELAk greba deitu du Industrias Betikon, hilaren 19tik aurrera

Industrias Betiko enpresako langileek greba mugagabea egingo dute, apirilaren 19an hasita. ELAk dioenez, hilabeteak darmatza enpresa hitzarmen duin bat berritzeko negoziatzen, enpresako langileen beharrei erantzuten diona. Industrias Betiko enpresak 17 langile ditu gaur egun eta gehienek greba mugagabea babestu zuten batzar orokorrean. Langileen aldarrikapenak dira, besteak beste, 2021era soldata %1,5 igotzea, gaixotasun arruntek eragindako bajetan osagarria hobetzea eskatzea eta gaueko laneko osagarria handitzea. ELAren arabera, zuzendaritzak ez ditu, oraingoz, eskaera horiek onartu.

## Lanerako orientazioa: Udaleko aukeraz gain, Miguel Altunan ere bai

Urtarrila ezker, bi puntutan eskaintzen da Lanbideko lan orientazio zerbitzua Bergaran, udaletxeokari Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentrokoa gehitu zaio eta. "Harrera ona" izan du orain arte Miguel Altunan zabalduetako zerbitzuak, eta lanerako orientaziorako hitzorduaz harago ere kontsulta asko egiten dira. Herritarrek bata zein bestea hauta dezake. Martxoan, lanerako orientazio zerbitzuak 36 pertsona artatu zituen: 23 emakume eta hamahiru gizon. Langabezia tasa %7,8koa da Bergaran, martxoan 563 pertsona zeuden langabeen zerrendan izena emanda: 260 gizon eta 303 emakume.

Guztion proiektua izatea nahi dugu eta herritarrek eta eragileak gonbidatu nahi ditugu".

**Beste era batera mugitu beharra** Izadi 21 aholkularitza enpresa izan da diagnostikoa egin duena, askotariko arloak aintzat hartuta. Mugikortasunari eta irisgarritasunari dagokionez, Udal Gobernuak mugikortasun diagnostikoa osatu zuen 2019an eta Mugikortasun Plana egiteko lanean dabil. Datuei erreparaturaz, kanpoko mugikortasun globalean, %70 garraio motordun pribatuan egiten da eta garraio publikoa herritarren %25 inguruk erabiltzen dute. Herri barruko lekualdatzeen %66 ibilgailu pribatuz egiten dira eta bizikletaren erabilera "txikia" dela adierazi zuten atzoko aurkezpenean, besteak beste.

Ingurumenaren kalitateari dagokionez, iazko udan airearen kalitatea neurtzeko sistema bat ezarri zuen Udalak herrian. Asmoa da neurketa-tresnen sare bat sortzea Bergaran, auzo eta gune zehatzen neurketak egin ahal izateko. Ingurumenarekin lotuta, hondakinen gaian, Bergarako birziklapen tasa %81,2ra iritsi zen 2019an. 2014an "gorakada nabarmena" izan zuen gaika bildutako hondakin-kopuruak; batez ere, etxeko hondakin organikoaren bilketari esker. Konpost-programan herriko 605 familia ari dira parte hartzen. Bestelako datu esangu-

ratsu batzuk ere eman zituzten atzoko aurkezpenean: errenta jasotzerakoan genero arrakala "nabarmena" dela, oraindik ere emakumezkoen urteko soldatak gizonetzkoenekiko 11.000 euro txikiagoa delako, batez beste; 50 urte baino gehiagoko familia etxebizitza-kopuruak pixkanaka gorantz egin duela, 2001 eta 2019 urteen bitartean %13 hazi delako, harik eta %44ra iritsi arte; Bergaran industriaren sektoreak zerbitzuen sektorearekin batera duen eragina azpimarragarria dela, Bergarako Balio Erantsi Gordinaren %47 hartzen du eta; eta euskarari dagokionez, bergararren %39k "bakarrik" egiten dute euskaraz etxean. Herritarren ia %70 euskalduna dela kontuan izanik, zer hobetu badago.

## "Lehentasunezko jardura arloak"

Udal Gobernuaren arabera, diagnostikoari eta herritarrekin izandako elkarrizketa saioei esker "lehentasunezko jardura arloak" antzeman dituzte, eta hortik abiatuta gorpuztuko dute plana bera. Herritarrekin beste bi bilera ireki egingo dira, oraindik zehazteke dauden datetan.

## "LEHENTASUNEZKO JARDURA ARLOAK" ANTZEMANDA, BESTE BILERA IREKI BI ANTOLATUKO DITUZTE

## GORA ETA BEHERA



SORALUZUKO BASO BIZIAK

## Eukaliptoak landatzen ari direla salatu dute

Bergarako eta Eibarko lurrik gai kimikoz betetzen eta eukaliptoak landatzen ari direla salatu du Sorraluzeko Baso Biziak taldeak sare sozialetan: "Nora begira gaude? Nora goaz? Zer arraio da hau?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



Martitzenean aurkeztu zuen Txerra Rodriguezek 30 urte mihigintzan tesia Irizar jauregian. JOSU BILBAO

# Euskara elkarteek lana eta etorkizuna landuz

Euskara elkarteek egin duten ekarpenaren inguruan jardun zuen Txerra Rodriguezek joan den martitzenean Irizarren. Soziolinguista eta Emun taldeko aholkulariak bere liburua aurkeztu, eta azken 30 urteetako euskara elkarteek jarduna errebasatu zuen

**Jone Olabarria** BERGARA

1987 eta 2017 artean euskara elkarteek euskararen biziberritzean izandako eragina aztertu du Txerra Rodriguez soziolinguistak *30 urte mihigintzan* izeneko doktore tesian. Lau urte eman ditu euskara elkarteak aztertzen; besteak beste, 26 elkarrizketa eta hamabost galdegi egin ditu. UEUK orain dela gutxi argitaratu du Rodriguezen doktore tesia, eta, hain zuzen ere, galdera hauei erantzuten die egileak: "Zer lortu dute euskara elkarteek azken 30 urteotan? Zer ekarpen egin diote euskararen biziberritzeari?".

**"Mila ertz dituen gaia"**

Bolumen horretako ikerketarik ez dago aurretik, eta, Rodriguezen arabera, euskara elkarteak aztertu eta horien ekarpenak lantzea "mila ertz dituen gaia" da: "Herri bakoitzean sortu eta daude elkarteak, eta, hortaz, herriari oso lotuak izan dira; egoera soziolinguistiko eta so-

zialari, orokorrean. Elkarte gehienetan landu diren egitasmo nagusiak eta lan-ildo orokorrak aztertzen saiatu naiz, nahiz eta kontu batzuk kanpoan geratu".

**Bergaran ere, 30 urteko bidea**

Iaz bete zituen Jardun Euskara Elkarteak 30 urte, eta martitzenean egindako solasaldian ere izan zuten zeresana bertatik urte hauetan guztietan pasa diren herritarrek. Txerra Rodriguezen lanak biltzen dituen pasarte askotan "konplize" izan direla azaldu du Jarduneko Maitane Arizabaletak: "Tesi honetan, elkartearen egondako askok bizitako egoera eta pasarteak oso ondo islatzen dira. Hogeita hamar urtean jende

**"BAZKIDE AKTIBO GEHIAGO IZAN NAHIKO GENITUZKE, KONTZIENTZIAGATIK ETORRI DIRENAK"**

asko pasa da elkartetik eta ondo islatzen du euskara elkartearen errealitatea".

**Datorrenari aurre egiteko**

Etorkizunera begira hainbat erroka identifikatuta dituzte: "Bazkide aktibo gehiago izan nahiko genituzke, kontzientziagatik bazkide egiten diren horiek. Benetan sinisten dutelako euskara elkartearen etorkizuneari eta egitekoan. Egun, bazkide asko zerbitzuagatik gerturatu dira".

**"Ilusioa berriz ere piztea"**

Euskara elkarteekiko ilusioa berriz ere piztea eta euskara bera agendetara eramatea beharrezkoa dela azaldu du Jardunek, "aurrerantzean elkarlanean oinarrituz aurrera egiteko. Bazkide aktiboak egitea, erroka berriei ekitea eta gaitzak erakartzea eta erabilera gehiago zabaltzea gustatuko litzai-guke, leku guztietara, ilusio eta kontzientzia hori berriz piztea jendartean".



Kiroldegia estreinatzearekin batera, jantzi berriak ere badituzte jokalariek. BE

## Labegaraietak eskubaloit taldeen bi partidu hartuko ditu bihar

Bigarren Territorialak Hernaniren aurka jokatu du, 15:30ean; lehen taldeak Ordiziaren kontra, 17:30ean

**J.O. BERGARA**

Labegaraietak eskubaloiko bi partidu hartuko ditu asteburuan. Bigarren Territorialak zapatuan jokatu du, 15:30ean, Hernaniren aurka. Jarraian, Lehen Territorialaren partiduen txanda iritsiko da, 17:30ean, Ordiziaren aurka.

**Partidu "garrantzitsuak"**

Josetxo Muniategik azaldu duenez, lehen taldeari hiru partidu falta zaizkio lehen fasea bukatzeko, eta asteburu honetako hitzordua, Ordiziaren kontrako partidua, "oso garrantzitsua" da:

"Azken partiduetan taldeak eduki duen hobekuntzarekin, asteburu honetan garaipena lortzea da helburua. Hala ere, Ordizia joko zuzena eta indartsua duen taldea da. Talde beteranoa du, eta esperientzia handia duena".

Azken partiduetan izan dituzten baja batzuk berreskuratzea espero dutela azaldu du Muniategik. Era berean, aurtengo liga "arraroa" izaten ari dela aitortu du: "Gazte jokalariekin jokatzeko ari dira talde asko. Azken urteetan izandako emaitzak ez dira erreferenteak, taldeak asko aldatu eta maila jaitsi egin da".



BERGARA KIROL ELKARTEA

## Gozatuz jokatzeko, horma-irudiak

Bizikidetzak, kiroltasuna, euskara eta emozioen kudeaketa sustatu nahi dituzte BKEn, eta helburu horri forma emateko *Gozatuz jokatu* proiektua abiarazi du klubak. Elkartearen ehun bat lagunek hartu zuten parte, joan den astean, balio horien inguruan gogoeta egin eta emaitza horma-irudietan jaso duen dinamikan.

# "Lanak herrian aurkezten ditugu beti lehenengoz"

**JUAN RAMON UNAMUNO** MUGA IKUSKIZUNeko MUSIKARIA

Poesia eta musika bateratuz, 'Muga' ikuskizuna eskainiko dute Balea Zuriako kideek Jon Makuso biolin jolearekin eta Juan Ramon Unamuno gitarra jole bergararrarekin

**Jone Olabarria** BERGARA

Apirilaren 24an iritsiko da Seminarixora *Muga* ikuskizuna. Poesia eta musika oinarri, emanaldi berezia izango dela azaldu du Juan Ramon Unamunok.

**Nolako emanaldia eskainiko duzue datorren asteburuan?**

Musika eta poesia uztartuko dugu, eta hiru atal izango ditu: lehenengoan, aipua eskainiko dira, musikatuta, eta, Balea Zuriako kideek errezitatzen dituzten bitartean, Jon Makutok biolinarekin eta nik gitarrarekin musikatu egingo ditugu; bigarren zatian, poeta bakoitzak bere poesia errezitatuko du; eta azken zatia kanta bat izango da, Charles Baudelaireren jaiotzaren 100. urteurrena dela eta. Bere poema oso poema polita eta hunkigarria da, neskato eskale baten istorioan oinarritua.

**Muga ikuskizunarekin izango zarete Bergaran, baina aurretik ere baduzu esperientzia poesia musikatzen...**

Miguel Altunako aretoan egin nuen musikatutako lehen errezitala, 1971. urte inguruan. Aurretik ere Gabriel Aresti, Xabier Lete, Machado, Lorca... irakurtzen nituen, eta niretzat oso garrantzitsua izan zen. Idazten dut poesia, baina niretzako, ez dut ostean partekatzen. Poesia-



Juan Ramon Unamuno, Zabalotegin eskainitako kontzertu batean. GOIENA

**"LEHEN ALDIA IZANGO DA SEMINARIXOAN JOTZEN, ETA NIRETZAT OSO AUKERA BEREZIA DA BERTAN IZATEA"**

ren bat noizbait kantatuz plazaratu izan dut, baina beti nirea dela esan gabe.

**Nondik etorri zen Balea Zuriakoekin kolaboratzeko aukera?**

Felipe Juaristirekin harreman handia nuen gaztetatik. Balea

Zuria izan aurretik, beste hiru poetarekin jarri ninduen harremanetan, eta hainbat errezitaletan aritu izan gara. Bergaran ere egon ginen, 2017an, Aroztegin. Orduetik, askotan eskatzen didate musikatzeko.

**Bergarara bueltan, kontzertu berezia izango da herrikoa?**

Disko edo lan bat atera dugun bakoitzean, Bergaran aurkezten dugu beti lehenengoz, eta oraingoan ere hala izatea nahi nuen. Lehen aldia izango da niretzat Seminarixoko areto berrian jotzen, eta oso aukera berezia da.



Autoekoiztitako lehen lana eramango du Dena taldeak kartzela zaharrera. KLIK KLAk

## Dena taldeak diskoa aurkeztuko du kartzela zaharrean bihar

Bizi dutena kantu bihurtuz, hirukote ondarrutarrak 'Ezer sentitzeko' izeneko lana taularatuko du, 17:30ean

**J.O.** BERGARA

Beñat Eizagirrek (ahotsa eta gitarra), Unai Aretxabaletak (baxua eta koruak) eta Xabat Ituartek (bateria eta koruak) osatzen duten Dena talde ondarrutarrak lehen diskoa aurkeztuko du bihar, 17:30ean.

**Askotariko gai eta doinuak**

Sentitzen dutena kantu bihurtuz, askotariko gaiak landu ohi dituzte: apatia, bakardadea, ignorantzia... "Horien artean, azpigiak ere agertzen dira. Kantuen interpretazioa ere nahiko librea dela uste dugu. Batari edo besteari sentiarazi diezaiokeena desberdina izan daiteke". Estiloari dagokionez, rock alternatibo, post hardcore eta stoner rock estiloetako musika egiten dutela azaldu dute, beste hamaika ukitu eta ñabar-durarekin: "Traparen oinarri batzuk erabili ditugu, musika

elektronikoa sartu dugu, pun-kera hurreratzen den kantu bat ere badugu... Alegia, ez dugu inolako aurreiritzirik".

**'Txapa jai', bueltan**

Azken urtean irratiko uhinak "bizi-bizi" eduki dituzten arren irratitik antolatu ohi dituzten ekitaldi asko bertan behera gelditu behar izan direla azaldu dute, eta, ondorioz "poz handiz" iragarri dute bueltan datorrela *Txapa jai*, irratitik kolektiboki antolatu ohi duten musika-ekitaldia.

Azken urtean kartzela zaharrean egindako gainontzeko ekitaldietan bezala, eta COVID-19ak eraginda, edukiera 35 pertsonara mugatuta egongo da, eta segurtasun baldintzak ezarri dira. Sarrerak kontzertua baino ordubete lehenago eskuratu daitezke, kartzela zaharrean bertan, bost euroren truke.

## Balea Zuriako kideekin elkarlanean

Duela hamar urte poesia jardunaldi batzuen harira elkaru ziren lau lagun eta poetak abian jarritako proiektua da Balea Zuria; tartean, argitaletxe bat osatu zuten: "Galderak egiten jarraitu nahi dugu, galdetza azalekoan ainguratuta ez geratzea baita". Aritz Gorrotategi, Pello Otxoteko, Felipe Juaristi eta Juan Ramon Makuso izango dira Bergarako ikuskizunean.



Muga ikuskizunean parte hartuko dute Balea Zuriako poetak. B.Z.

## Kultura Mahaia bilera irekia deitu du apirilaren 24rako

Aurretik ere sortuta zegoen arren, pandemia garaian hartu du indarra Bergarako Kultura Mahaia. Ekimenaren helburua da kulturaren inguruko interesa edo ardura dutenek elkartzeko gune bat sortzea, eta, Mahaira eragile eta norbanako gehiago erakartzeko asmoarekin, bilera irekia egingo dute apirilaren 24an, 10:30ean, Oxirondo

azokan. Aurrez izena ematea komeni dela zehaztu dute antolatzaileek, [bergara.kultura.mahaia@gmail.com](mailto:bergara.kultura.mahaia@gmail.com) helbidera idatzita.

Egungo egoeran, kontsumoa bera igo egin dela azaldu dute Kultura Mahaiko kideek, eta horren adibide dela Bergaran antolatu diren ekitaldiek herri-tarren partetik izandako erantzun beroa. Herriko eragileen arteko elkarlana eta elkar ezagutza sustatu eta *0 kilometro* kontzeptua landu nahi dute.

DEBAGOIENENKO



# OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

**ADUR HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

**ANE LASAGABASTER**  
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**  
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**  
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**  
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**DURANA HORTZ KLINIKA**  
Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

**GARAI HORTZ KLINIKA**  
Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

**GOROSABEL J. ALBERTO**  
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**  
Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**  
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**  
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

**BEATRIZ ZULUETA DIETISTA -  
NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA**  
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO**  
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**BIZI KIROPRAKTIKA**  
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**  
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA  
(AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**  
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**  
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA**  
Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**  
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**  
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

**NUÑEZ TXOMIN**  
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA  
(AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA  
(AITA MENNI OSPITALEA)**  
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



Apirilaren 11n iritsi zen *Kutxa bira* Aiherrara, eta, Antzuolan bezala, bertso artean hartu zuten han ere herritarrek. P.O.

## Aiherran bezala, 'Kutxa bira' Antzuolan izango da

Apirilaren 25ean, domeka, iritsiko da kutxa Antzuolara, Zumarragatik etorrita. Ongietorria eta ekitaldia egin ostean, Legazpira abiatuko da, Lakiolatik. Herritarrek bertan sartzeko mezuak lagatzeko aukera izango dute hilaren 23ra arte, udaletxean

### Jone Olabarria ANTZUOLA

Iparra-Hegoa elkarteak udaberriro antolatu ohi dituen ekin-tzen alternatiba gisa prestatu dute aurtengorako *Bizi gira... Kutxa bira* ekimena.

Diaspora eta hainbat euskal herri euskararen baitan batzeko helburuarekin abiarazi zuten, Argentinako Viedma herrian, martxoaren 20an, eta hala jarraituko du bidea Euskal Herrian barrena, maiatzaren 30era arte, tartean Antzuolatik pasata.

### Egurrezko kutxa protagonista

Ekimen horrek egurrezko kutxa bat du oinarri, eta euskara, lurraldetasuna eta bestelako hamaika aldarri batu nahi dira bertan. Hain zuzen ere, Argentinako Viedma herriko Rocio eta Imanol Basterrak euskararen aldeko mezua bidali nahi izan zuten kutxaren abiatzearekin batera: "Ez da distantziarik, ez gerrarik, ezta pandemiarik euskaraz bizitzea ezinezko egiten duena. Guk

euskaraz egiten badugu, zuek zergatik ez?".

### Ongietorria prest herrian

Apirilaren 25ean, domeka, goizean ekingo diote antzuolarrek harrera ekitaldiari. Aurreikusitakoaren arabera, 11:45ean iritsiko da kutxa, Zumarragakoei ekarrita, eta harrera egingo zaio plazan. Ondoren, soinu-joleek lagunduta, Torresoroara eramango dute kutxa.

12:00etan, ekitaldi nagusia egingo dute Torresoroa pareko muralaren aurrean. Jakinarazi dute COVID-19aren segurtasun neurriak betetze aldera derri-gorra izango dela elkarren artean gutxienez metro eta erdiko distantzia mantentzea.

**ZUMARRAGAKOEK EKARRITA, HARRERA EGINGO ZAIO KUTXARI, ETA TORRESOROARA ERAMANGO DUTE**

### Bertsoak eta manifestua

Ekitaldian bertan, proiektuaren aurkezpena, manifestuaren irakurketa eta bertsoak izango dira protagonista. Ostean, Aiherran Antzuola Muralaren berritzea egingo dute. Aurrekoa dantzatu ostean, Antzuolako mezua aditzera eman eta kutxan sartzeko egingo dute.

Apirilaren 11n Aiherran egin zuten bezala, bi herriak batzen dituen bertso berezi bat izango da Antzuolan ere. Ramuntxo Christyk egin du, Kabalkadako kantuaren doinu berarekin, eta bi herrien elkarlan eta urteetako konpromisoa ditu ardatz.

### Herritarren parte hartzea

Kutxara gehitu diren mezuei dagokionez, antolatzaileek jakinarazi dute aukera egingo dela nork bere mezua helarazteko, udaletxera eramanda apirilaren 23a baino lehen. Antzuolan egon ostean, 16:00etan, Lakiolan, Legazpiri kutxa entregatzea egingo dute.

## Azucena eta Rosa Ortiz de Lejarazu ahizpak, omenduak

Hilaren 24an Elgetako Espaloian egingo duten omenaldi ekitaldian egingo diete aitortza antzuolarrei, 12:00etan

### J.O. ANTZUOLA

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen ekimenez egingo dituzte omenaldi saioak, bost herritan. Antzuolako kasuan, elgetarrekin batera egingo da aitortza saio hori, eta, guztira, lau izango dira omenduak: Pilar Gorrotxategi Basauri eta Jose Luis Arantzeta Arregi elgetarrak eta Rosa Ortiz de Lejarazu Saez eta Azucena Ortiz de Lejarazu Saez antzuolarren familiako kideek jasoko dute oroigarria.

Gerrako haurrek jasan zituzten gorabeherak gogora ekarri, eta *Egiaren iturria* oroigarria

emango zaie, Iñigo Arregik diseinatutako eskultura.

### Hamabi urtez Mexikon

Antzuolako Fronte Popularreko ordezkari izanda, 1942an, Mar-seillatik *Nyassa* barkuan Mexikoko Veracruzera joateko aukera izan zuten Emeterio Ortiz de Lejarazuk eta haren emazte Juana Saezek, Rosa eta Azucena alabekin. Emeterio, baina, 1953an gaixotu eta hil egin zen. 12 urteren ostean, etxera itzuli ziren ama-alabak, eta Bilbon egonkor-tu ziren. *Mexikarrak* deitzen zieten gogoratzen dute bilobek.



Ortiz de Lejarazu Saez familia, Mexikon bizi zireneko argazkian. INTXORTA 1937

## Agorrosin auzia eta Eztalako obrak, martxoko osoko bilkuran

Eztalako obren atzerapenagatik enpresari kobratu beharreko kopurua murriztea erabaki du udalbatzak

### J.O. ANTZUOLA

Beñardo Kortabarria alkateak azaldu zuen sententzian ebatzi dela beste udal batek ez duela eskumenik Bergarako Udalaren zerga politika ezbaian jartzeko, kasu honetan Antzuolako eta Elgetako udalak ez direlako zuzenean kaltetuak. Horren harira, Agorrosin auziaren bueltan aurrerantzean egingo dituzten urratsak oraindik zehazteke daudela azaldu zuen. "Auzi honi dagokionez, norbanako batek ere salatu zuen Bergarako Udala. Sententzia hori noiz irtengo

zain gaude, emaitzaren berri izan eta zein norabide hartu abokatuarekin adosteko", adierazi zuen alkateak.

Eztalako obrari dagokionez, lanen atzerapenagatik enpresari kobratu beharreko diru kopuru osoa murriztea erabaki zuen udalbatzak. "Enpresari kobratu beharreko osorik ez pasatzea erabaki dugu, baita obra zuzendaritzaren parte ez ordaintzea, luzapena ez delako gure arrazoiengatik izan, eta hango zoruaren amaiera behar bezala egitea exijitzea ere".

# la mende erdia natura zaintzen eta maitatzen

Datorren urtean, 2022an, beteko ditu Arrola Mendizale taldeak 50 urte. Urtemuga borobila betetzear duen honetan, pandemiak naturari nola eragin dion hausnartu du mendi taldeak. Azken urtean auzolanean egindako ekimenen berri ere eman du

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

50. urteurrena betetzear duen honetan, Arrola Mendizale taldearekin izan da GOIENA. Pandemia urteak mendiari nola eragin dion eta urtean zehar taldeak egin ahal izan dituen ekimenen berri eman du.

Izan ere, Arrolak hainbat helburu ditu; ez bakarrik ibilbideak antolatzea, baita inguruko txokoak berreskuratzea eta ezagutzera ematea ere.

## Ibilbideak berreskuratzea

Azken urtean, inguruko iturriak berreskuratzen jardun du Arrolak. Eta, horrekin batera, auzolanean ingurua txukundu eta gune horien seinalez tapena ere egin du. "Ogeiturri eta Koroso inguruko bideen seinalez tapena egin dugu. Helburua da bide horiek berreskuratzea, galdu ez daitezen. Herritarrei bestelako ibilbideak eskaintzea, alegia. Izan ere, herritar askok ezagutu ere ez zuen egiten, adibidez,



Ogeiturriko seinaleak jartzen. ARROLA

Ogeiturriko bidea eta bertan berreskuratu dugun iturria", azaldu dute Arrolako kide Jon Kortabariak eta Iñigo Ramirez de Okarizek. Nabarmendu gura izan dute egurrezko seinaleak Antzuolan bertan eginak direla:

"Herriko zerbitzuak sustatzeko, seinaleak Ondarreko arotzak egin ditu".

## Mendian, jendetza

Pandemiak eraginda, mendietan jendetza ibili da. Arrolako kideek

igarri dute egoera hori, eta aurtun sekula baino federatu gehiago izan dituela Antzuolako mendi taldeak aitortu dute. "Pandemiaren ondorioz, jendea ikaragarri ugartu dela igarri dugu gure mendietan. Ez soilik oinezkoak, baita bizikletak, motorrak eta 4x4 ibilgailuak ere. Horrek elkarbizitza zailtzen du, eta inguru asko hondatu egin dira; bereziki, neguan, eguraldi txarrarekin. Hala, mendiko elkarbizitza hobetzeko asmoz eta irtenbidea emateko, harremanetan gaude Mendi Federazioarekin, Antzuolako Udalarekin eta baita mugakide diren herrietako udalekin ere. Elkarrekin bizikidetzeta hobe lortu gura dugu, eta, horretarako, egoera posible den heinean eta adostasunez arautzea", argitu dute.

## Mendi Astea

Iaz ez zen posible izan Arrolaren Mendi Astea gauzatzea. Aurtun, ordea, babes neurri zorrotzak bermatuta egingo dutela aurreratu dute. Apirilaren 24tik maiatzaren 1era bitartean izango dira ekintzak –hitzaldietan aurrez izena eman behar da: *labureus/sarrerakantzuela*–. Urtearen balorazioa ere egin dute: "Nolako urtea izan dugun ikusita, esan beharra dago ekintza aldetik nahiko pobrea izan dela. Egin ditugun ekintzetan, bai iturrien eta baita inguruen txukunketa eta berreskuratze lanei dagokionez, jende kopurua mugatu egin

behar izan dugu. Pandemiak mugatutako urtea izan da".

## 50. urteurrena

Pandemiak bertako mendietan ibitzeko joera handitu egin du, eta Arrolak pedagogia egitearen beharra dagoela dio: "50. urteurrenaren baitan, bertako lekuak ezagutzeko asmoz ekimenak egingo ditugu. Pandemiak gure mendietan ibiltzea ekarri du, eta, askotan, ez dakigu inguruko erreka edo pagadiak zein izen duten ere".

## Arrolaren Mendi Astea

Arrolaren egitaraua:

### 'Cholitas escaladoras'

- Apirilaren 27an, Torresoroan, 19:00etan.

### 'Mendian hil, hirian hil'

- Apirilaren 29an, Torresoroan, 19:00etan. Aurretik, batzar orokorra.

### Herriko bazterrak

- Maiatzaren 1ean, herriko mugarren bigarren etapa egingo dute.

**Oharra:** Pandemia dela-eta Kurtzberriko irteera bertan behera geratu da.

## 'Buhameak: Erik eta Win' antzezlanaren Torresoroan bihar

Umoreko antzezlan musikatua bihar, apirilak 17, izango da, Torresoroan, arratsaldeko seietan hasita

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Askotariko diziplinak batzen dituen ikuskizuna da *Buhameak: Erik eta Win*. Hala, ikusleek antzerkiak ez ezik, bertsoez, poesiaz eta musikaz gozatzeko aukera izango dute.

Ander Lizarralde eta Unai-Muñoa bertsoari gidaritzapean, harremanen inguruan hausnarketa egitera gonbidatuko dute ikuslea. Gertatutako bizipenetan oinarrituko dira, gainera, Lizarralde eta Muñoa.

Hori guztia, umorez jantzita, noski. Bidelagun izango dituzte

Imanol Kamio musikariaren piano eta akordeoi doinuak eta Aitor Atxegaren gitarra.

Sarrera 10 euro da eta aurrez erosi behar da, *labureus/sarrerakantzuela* webgunean.

Bestalde, eguaztenean, hilaren 20an, *Ezezagunerako bidaia. Mundua, klima eta ekologia krisian* liburua aurkeztuko du Iñaki Petxarromanek. 18:30ean Torresoroan izango da solasaldia, eta aurrez sarrerak erreserbatu behar dira, online edo liburutegian bertan –sarrera doakoa da–.

## OHARRAK

### Dirulaguntza

2021eko Ondasun Higiezinaren eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen zergen ordainetan hobaria dute familia ugariak. Eskaera egiteko azken eguna da gaur.

### Auzolanerako deia

Bihar, Azaldegietatik Mixo tarteko herriko mugarriak txukundu eta bistaratzera joateko 08:00etan Antiguako biltegitik abiatuko dira.

### Txotxongiloak

*Euskal ipuinak* txotxongilo emanaldia izango da hilaren 24an, beheko auzoan, 17:30ean. Abenturaz eta pertsonaia mitologikoz beteriko ikuskizuna izango da.



UBANE MADERA

## Balerdi eta Murua, txapelak

Manex Balardi antzuolarrak eta Ander Murua arrasatearrak klub mailako Espainiako 36 metroko txapelketa irabazi berri dute, Salamancako Paladin taldea ordezkatzeko. Hain zuzen ere, maila mantentzeko asmoz fitxatu zituzten bi pilotari debagoiendarrak. Hala, ezin hobeto jokatu, eta txapelketa irabaztea eta mailaz igotzea lortu dute.

# Gerran erbesteratuak izan ziren umeak gogoan

Pandemia dela-eta herriz herri egingo dituzte omenaldi ekitaldiak. Elgetakoan, Antzuolako zein Elgetako haur erbesteratuak izango dituzte gogoan, eta herrikideen artean Pilar Gorrotxategi Basauri eta Jose Luis Arantzeta Arregi omenduko dituzte

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Seinalatuak dira Elgetan apirilaren 20tik 24rako egunak. Iazko ekitaldiak atzeratu beharra izan zen pandemia egoeratik, baina, neurri bereziak hartuta bada ere, aurten horiekin aurrera egitea erabaki dute Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Elgetako Udalak.

Elgetako ekitaldia apirilaren 24an izango da, 12:00etan, Espaloian. Bertan, Elgetako zein Antzuolako haur erbesteratuak izango dituzte gogoan, eta, elgetarrei dagokienez, Pilar Gorrotxategi Basauri eta Jose Luis Arantzeta Arregi izango dituzte gogoan. Antzuolako Rosa eta Azucena Ortiz de Lejarazuk ere jasoko dute omenaldia.

Ez da ekitaldi luzea izango. Udal ordezkariak zein Intxorta 1937 kultur taldeko kideek hitza hartu ostean, ikus-entzunezko labur bat izango da ikusgai, non jasotzen diren erbesteratuak izan ziren askotariko protagonista



Omenaldia iragartzeko agerraldia, martxoaren 23an, Espaloian. HASIER LARREA

nistei asteotan grabatutako pasarteak. Aurrekua eskainiko zaie omenduei, eta Iñigo Arregiren *Egiaren iturria* oroigarria jasoko dute. Jose Luis Arantzeta 2009an hil zen, eta senitartekoek jasoko dute. Pilar Gorro-

txategi, berriz, 2013an hil zen, eta Hendaian bizi den semea zen oroigarria jasotzeko. Muga itxita egonik, ordea, ezingo da etorri, eta asmoa da oroigarria Hendaia eramatea, horretarako aukera dagoenean.



©INTXORTAGERRA

## 30 lagun bisita gidatuetan

Martxan dira, atzera ere, Elgetako memoria historikoaren ibilbidea ezagutzeko bisita gidatuak. Martxoaren 28tik, 30 lagun izan dira bertan. Barakaldo, Arrasate, Getxo, Hondarribia, Donostia, Errenteria eta Zarautz dira bisitarien jatorriak. Lubaki inguruan jende asko ibili da jaiegunotan; izan ere, ibilbidea nork bere kabuz egiteko aukera ere badago.

## OHARRAK

### Podologoa

Astelehenean, hilak 19, izango da apirileko kontsulta. Txanda hartzeko, deitu: 667 80 70 06 (Olga Fernandez).

### Erretiratuen oharra

Pandemiagatik Xalbadorpe elkarteak ez du, oraingoz, urteko batzarrik egingo. Dena den, zuzendaritza berritzeko boluntarioak beharko direla aurreratu dute.

### Artista liburuak

Udal liburutegiak martxan du aurtengo lehiaketa. Artista liburuak aurkezteko epea hilaren 30era arte dago zabalik. Hiru kategoria eta beste hainbeste sari daude. Argibideak, liburutegian.

## Omenduko dituzten bi elgetarrak



**PILAR GORROTXATEGI BASAURI**  
GERRAKO UMEA (1922-2013)

**Frantziako eremu militar batean, gosea eta miseria**

Elgetarrak 14 urte zituen gerra hasi zenean. 1936ko ekainean Bilbora egin zuen ihes amarekin. Gazteagoak ziren bi ahizpa Angiozarren gelditu ziren. *Habana* ontzian itsasoratu eta Arroxelara iritsitakoan, eremu militar batera bideratu zituzten. Gosea pasa zuten. Ama jostun ibili zen. Mahats bilketan ere ibili ziren biak. Dirua lortutakoan elkartu ziren Aurignac-en zeuden bi neba nagusiagoekin. Gerra amaieran, Hendaian elkartu zen familia, eta bertan bizilekua hartu zuen.



**JOSE LUIS ARANTZETA ARREGI**  
GERRAKO UMEA (1925-2009)

**'Lurdes Euzko Aur-Etxean' gustura bi urtez**

Goiz gelditu zen umezurtz elgetarra, eta Urrojolaegi Zahar baserrian hartu zuten, baina gerra heldu zen 12 urte zituela. *Habana* ontzian ebakuatu zuten, 1936ko maiatzean. Arroxelara iritsi, eta euskal errefuxiatuei laguntzeko Manuel Intxaustik eta Ana Larraurik sortutako *Lurdes Euzko Aur-Etxean* hartu zuten. Udaleku modukoak ziren, zerbitzu ugariarekin eta hezkuntza eskaintzarekin. Egonaldi zorionsua bezain aberasgarria izan zen; handik bi urtera itzuli zen Elgetara.

### Ikerketa lanak, aurrera

Artxibo historikoetan ikertzen dihardute Intxorta 1937 kultur elkarteak kideek. Asteon izan dira Alcalá de Henaresen. Inork halako bestelako kasurik eza-gutuko balu esateko eskatu dute.

## ELGETAKO EKITALDIA HILAREN 24AN IZANGO DA, ETA GONBIDAPEN BIDEZ IZANGO DA SARRERA

## GORA ETA BEHERA



J.S.

## "Trapua bezala dago ikurrina"

Irakurle batek astelehenean bidalitako argazkia da honako hau. Honela dio idatzian: "Gudarietzako horren garrantzitsua den herrian, trapua bezala dago ikurrina aste osoan".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



# Udalak azterketa sozio-ekonomikoa egingo du

'Elgeta danon artian 2030' parte hartze prozesuak zeresana ematen jarraitzen du. Udal Gobernuak balorazio positiboa egiten du, baina oposizioak uste du bermerik gabe egin dela eta herriaren egoeraren gaineko informazio zehatzagoa behar dela

L.Z.L. / Jone Olabarrieta ELGETA

Abenduko osoko bilkuratik elkartu gabea zen Elgetako udalbatza, eta martxoaren 30ean elkartu zen mahai gainean zeuden hainbat puntu aztertzeko. Dagoeneko aurreratuta dagoen *Danon artian Elgeta 2030* parte hartze prozesua izan zen protagonista, jeltzaleek aurkeztutako mozio bat tarteko. Beste behin, oposizioak egitasmoarekiko bere desadostasuna agertu zuen, eta argudiatu zuen erabilitako prozedura ez dela egokia izan. Parte hartze prozesuekin bat datoze esan zuen EAJko Aintzane Oiarbide, baina galdetegia berme handiagoarekin egin behar zela, eta parte hartze prozesu baterako herriak bizi duen egoeraren inguruko informazio sakonagoa behar dutela herritarrek.




Udalbatza, martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran botoa ematen. J. OLABARRIETA

## Azterketa sozioekonomikoa

Jeltzaleen mozioak Elgetako egoera sozioekonomikoaren inguruko azterketa sakona egiteko eskaera jasotzen zuen. Udalbatzak aho batez onartu zuen konpromiso hori. Udal gizarte zerbitzuetatik zein Mankomunitatetik egiten diharduten lan bat dela esan zuen Iraitz Lazkano alkateak, baina EH Bilduk ere ontzat eman zuen etorkizunera begira pandemia egoerak herriko familiei, elkarteei, enpresei, eta abarri nola eragin dien ezagutzeko azterketa sakon bat egitea.

Lazkanok gaineratu zuen askotariko iritzietako 30 bat elgetar bi arratsaldean elkartu zirela parte hartze prozesuan ekarpenak egiteko, eta parte hartu izana eskertzekoa dela. "Proposamen pila gelditu dira jasota, eta lanketa hori inportantea da etorkizunera begira". Behin betiko txostenaren zain dago Udala. "Asmoa da txosten hori herriko eragileekin kontrastatzea". Lanketa horrek, beraz, aurrera jarraituko du.


## Udal talde politikoen balorazioa



**AINTZANE OIARBIDE**  
EAJ-KO BOZERAMAILEA

### "Pozik hartu dugu eskaera aho batez onartu izana"

"Galdeketa martxan jarri zenean bertan behera uzteko eskatu genuen. Eskaera horren garaia pasa egin da, eta kendu egin dugu moztetik. Elgetaren egoera hobeto ezagutzeko azterketa sozioekonomikoa egitea ere eskatzen genuen, eta poztasunez hartu dugu aho batez onartu izana. Uste dugu ondo informatuta badago –gai ekonomikoak, sozialak, kultura kontuak...– jendeak erabaki eta ideia eraginkorragoak ematen dituela, eta parte hartze prozesua bera ere eraginkorragoa dela".



**IRAITZ LAZKANO**  
ALKATEA

### "Prozesuaren balorazioa nahiko positiboa da"

"*Elgeta danon artian 2030* parte hartze prozesuaren inguruan guk egindako balorazioa nahiko positiboa da. Jatorri eta iritzi politikoz ezberdinetako jendea egon ginen, eta giro oso onean. Prozesuarekiko desadostasuna kendu du moztetik EAJk, eta aho batez onartu duguna izan da etorkizunera begira azterketa sozioekonomikoa egin beharra badagoela erabakiak hartzeko. Etorkizunera begira halako azterketa bat egitea da hartu dugun konpromisoa".



MAIALEN SANTOS

## Puntuari ari dira, batez ere

Olga Fernandez, Ana Mari Royuela eta Maria Jesus Lete elkartu ziren Xalbadorpe elkarteak antolatutako puntu eta kakorrazt tailerreko saioan, eguaztenean. Nor bere eskulana egiten ari da, eta puntuari ari dira, batez ere. Udaberriaren asteroko saioekin jarraitu edo ez zalantzan daude. Dagoen parte hartzearen arabera hartuko dute erabakia.

## Hiru matrikula behar dira irailen haur eskola zabaltzeko

2021-2022 ikasturteko matrikulazio epea aurreratu egin du, aurten, Haurreskolak Partzuegoak. Hala, apirilaren 12tik 21era dago zabalik, biak barne.

2020 eta 2021 urteetan jaiotako haurrendako zerbitzua izango da. Matrikula Elgetako haur eskolan bertan –pandemia dela eta aurrez txanda hartuta– zein online egin daiteke. Elgetako

haur eskolak sei erabiltzaile eta bi hezitzaile ditu une honetan. 08:00etatik 16:00etara ematen du zerbitzua. "Orduetgia erabiltzaileen arabera izaten da; beraz, datorren ikasturtean ordutegi ezberdina egon daiteke", azaldu dute hezitzaileek.

Gaur egungo sei erabiltzaileak 2019an jaiotakoak dira; hala, eskolan sartuko dira hurrengo ikasturtean. 2021eko irailen Elgetako haur eskola zerbitzua irekitzeko hiru matrikulazio behar dira, gutxienez.

## GORA ETA BEHERA



@ELGETAKOUDALA

## Eskola inguruan hondakinak nonahi

Elgetako Udalak sare sozialetan zabalduzko mezua da. "Eskola ingurua horrela utzi dutenei eskatzen diegu, mesedez, txukuntzeko eta hondakinak dagokien edukiontzira botatzeko".



Zapatuan plaza bete egin zen, gaztetxea segurua dela adierazteko. GOIENA

# Gaztetxearekin aurrera jarraitzeko asmoa dute

Hemendik aurrera zer eta nola egin eta antolatuta zituzten ekintzak ahal den neurrian aurrera eramatea da oraingo asmoa, herriko beste gune batzuetan egiten badira ere. Broken Legacy eta Hellwatchen taldeek, esaterako, gaztelekuan joko dute bihar

## Oihana Elortza OÑATI

"Gaztetxea itxita dago orain, ezin gara eraikinerari sartu, ezin daiteke erabili, baina guk mar txan jarraitzeko asmoa dugu, ez gara geldirik egongo, nahiz eta gure espazio naturala itxita egon. Antolatuta genituen ekintza kulturalak egiten ahaleginduko gara, herriko beste espazio batzuk erabili, eta hemendik aurrera zer eta nola egin ere aztertzen ari gara", diote gaztetxeko kideek.

## Lizentziarik ez

"Gazte lokal moduan ikusten du Ertzaintzak gaztetxea, ez kultur-gune moduan, eta hori entzutea oso iraingarria izan da guretzako. Eraikin bizi bat da gaztetxea, ekitaldi asko egiten dira bertan eta herriko eragile ezberdinek erabili izan dute, herritar guztiendako zabalik dagoen espazioa da eta. Zortzi urteko ibilbideari erreparatu beharrean, lizentziari begira jarri dira, eta hori aitzakia hartuta erabaki dute itxtea", zehaztu du gaztetxeko

kide Inma San Martinek. Gaineratu du erabaki hori euren jardunari jarritako oztopo bat gehiago dela. Ertzaintzatik adierazi dute arrazoi lizentzia falta dela, lizentzia barik gazte lokal edo txoko moduan ulertzen dutelako gaztetxea eta pandemia garaian ezin delako erabili.

Ertzaintzak adierazi duenez, gaztetxeak ez du jatekoa eta edatekoa zerbitzatzeko lizentziarik eta arrazoi horregatik itxi dute eraikina. Gaineratu dute behin baino gehiagotan pasa zirela gaztetxetik eta azkenean itxi egin zutela ikusita zerbitzatzeko lizentziarik ez zutela. Horretarako lizentziarik ezean, "gazteen lokal edo txoko" moduan hartzen dute gaztetxea eta egungo egoe-

**GAZTETXEA KULTURA-GUNE BAINO GEHIAGO LOKAL BEZALA IKUSTEA "IRAINGARRIA" IZAN DA KIDEENDAKO**

ran, pandemian, itxita egon behar dira lokalak. Ertzaintzak gaineratu du, baina, barruko gauzak hartzea sartu ahal daitezkeela gazteak, baina ezin dutela jardun egin barruan.

## Ekintzekin aurrera

Hemendik aurrera zer egin eta antolatutako ekitaldiak ahal den neurrian nola burutu ari dira orain pentsatzen. "Aurreko zapatuko kontzertuak berdura plazan izan ziren eta biharko gaztelekuan egingo da. Herriko espazio ezberdinak erabiliko ditugu, akaso, baina pentsatutako kultur hitzorduak burutzea da asmoa. Domekako bertso saioa, baina, atzeratu egin da". Apirileko beste hitzorduak non egingo diren ziurtatu ahala jakinaraziko dute.

Aurreko zapatuan manifestaziioa egin zen Oñatiko kaleetan barrena. Jende asko atera zen kalera, gaztetxea "segurua" dela defendatzeko eta "jazarpen politikala" salatzeke.



Herritar bi, Santa Marinako plaza gurutzatzen. O.E.

## Prebentzio neurri gehiago hartu dira, kasuen gorakada ikusita

Kultur emanaldietan zein haurrei eta gazteei zuzendutako ekintzetan handitu dira, batez ere

## O.E. OÑATI

Oñatiko Udalak neurri berriak jarri ditu indarrean, COVID-19ak kutsaturiko herritar kopuruaren hazkundeagatik. Adibidez, maskara kirurgikoak banatuko dituzte gaztelekuko aisialdi zerbitzuan, hitzaldietan zein kultura hitzorduetan; bertan behera geratu dira gaztelekutik antolatuturik zeuden zenbait irteera eta eten egin da gaztelekuko oihal ikastaroa; lau pertsonako taldeetara mugatu da eskola-kiroleko barruko jarduna eta kanpoko ekintzak indartu egin dira; mugatu egin da igerilekuko dutxen

erabilera eta unean uneko jarraipenerako harremana indartu egin da herriko ikastetxeekin. Aurrera begira bestelako neurririk hartzea ez dutela baztertzen esan dute udal ordezkariak.

Izaro Elorza Arregi alkateak baheketara masiborako eskaera egin zien Jaurlaritzako osasun arduradunei, baina baztertu egin zuten aukera, "egoerari aurre egiteko behar besteko eraginkorra ez zela iritzita". Izan ere, oraingo kasuak jatorri askotakoak dira eta ez dago fokurik identifikatuta. Osasun adituekin harremanetan jarraitzen du Udalak.

## Errefuxiatuendako elikagaiak batzen ari da Hotz Oñati

Hotz Oñati janari bilketa egiten ari da, eta batutako elikagaiak Zapareak gobernuz kanpoko erakundeak Lesbosen duen proiekturako izango dira. Atzo, eguna, hasi ziren elikagaiak batzen herriko dendetan, eta zapatuta arte ibiliko dira jardun horretan 100 bat boluntario, hiru txandatan antolatuta. Eroski, Eroski Errekalde, Errekaldeko denda, Super BM eta San Migel Kooperatiba dendetan egongo dira, zehazki.

Kale Zaharrean dagoen elkartasun biltegian aritzen direnak ere bilketa honetan ari dira laguntzen, eta, horregatik, biltegia itxita egongo da apirilaren 21a arte.

## Beste bi hitzaldi egingo ditu apirilean Informa\*Tu taldeak

*Astearte informatiboak* izeneko hitzaldi sorta antolatu zuen martxoarako Informa\*Tu taldeak, eta, "izan duten harrera ona ikusita", jarraipena ematea erabaki dute. Hala, beste bi hitzaldi antolatu dituzte apirilerako. Lehena martitzenean da, Santa Anan, 19:00etan: *Nola indartu immunitate sistema elikaduraren bidez*; Isabel Moreno oñatiarra izango da hizlaria. Hilaren 27koan, berriz, *Pandemiari buruzko egia* kontatuko du Cristina Martin idazle eta kazetariak.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, martxoan egindako saioetan 100 lagun baino gehiago joan dira bakoitzera; 475 pertsona, guztira.

# "Gurasoei ez zieten esan Belgikatik itzuli ginela"

**JABIER OLALDE ITUARTE** GERRAKO UMEA

Etxekoekin gerratik ihesian, Bilbon gelditu zen aita, Frantziara joan ziren ama eta anaia eta Belgikara bera eta arreba. Gerra osteko gosea ondo gogoan du oraindik

**Oihana Elortza** OÑATI

1936ko irailean, 4.500 debagoien-darrek baino gehiagok egin zuten alde Euskal Herritik. Horietatik ia 500 adin txikikoak –16 urte artekoak– zirela ondorioztatu du Intxorta 1937 Kultur Elkarteak, eta iaz egin ezin izan zieten omenaldia egingo diete, datorren astean, identifikatuta dituzten eta oraindik bizi diren 50 gerrako umeri. Jabier Olalde Ituarte (Oñati, 1928) eta anaia Alfredo omenaldian egongo dira. Guztira, Oñatiko 28 gerrako ume ditu zenbatuta Intxortak.

**Nola gogoratzen dituzu orduko egunak?**

Nik 7-8 bat urte izango nituen, eta Oñatitik Bilbora joan ginen, lehenengo, etxeko guztiok, gurasoak eta hiru anaia-arreba. Akordatzen naiz bonbak jaurtitzeko zituztenean nola gordetzen ginen tunel baten azpian, tren pasatzen zen tunelaren azpian. Saskiak egin zituen gure amak Oñatin, eta Bilbon ere egiten zituen. Uste dut sufrimendugatik hil zela ama hain gazte.

**Eta Bilbotik, Belgikara.**

Gurasoek ikusi zuten han ere ez geundela ondo, ez zela toki segurua, eta kanpora joatea pentsatu zuten. Gizonek ezin zuten joan, eta ama eta hiru anai-arrebok joan ginen Frantziara, txa-



Jabier Olalde Ituarte, eurena den Berren-Zelai zerrategian, Goribarren. O.E.

**"GAZTE HIL ZEN GURE AMA, ETA USTE DUT BIZITAKO SUFRIMENDUAGATIK HIL ZELA"**

lupa baten lehenengo eta gerrako barku baten gero.

**Bilbon gelditu zen aita?**

Bai; koinata baten etxean. Norbaitek atea jotzen zuen bakoitzean komunean gordetzen ei zen.

**Zer zegoen Frantzian?**

Hareazko tontor edo menditxoak zeuden herri batean egon ginen, baina ez naiz akordatzen izenarekin. Dena dela, ez genuen denbora asko egin han. Banandu egin ginen berriz: arreba Maria Luisa eta biok Belgikara joan ginen, autobusean, eta ama eta anaia Frantzian gelditu ziren.

**Non egon zineten Belgikan?**

Liejara heldu ginen. Ez dakit non geunden, baina *Internazionala* abestu genuen oholta baten gainean, eta bi familia etorri zitzaizkigun eurekin joateko esanez. Nire adineko mutiko bat

zuten ni egon nintzen etxean, eta oso ondo moldatu nintzen harekin hasieratik, hizkuntza ez jakin arren. Arreba sarri ikusten nuen, beste etxe batean zegoen arren. Oso ondo egon ginen.

**Nola ulertzen zenuen gerra orduan?**

Etxeko gizona baserritarra zen, kalean bizi arren, eta alemanak sartu zirenean haren baserrira joan ginen. Alemanen aeroplanoak Ingalaterrara nola joaten ziren ikusten genuen, baita denak ez zirela bueltatzen ere. Baina gu ondo geunden.

**Joan zara inoiz Liejara?**

Bai. 25 urte nituenean eta baita eztei bidaian ere. Hangoak ere egon dira Oñatin: arrantzan ibili gara hemen, Urbiara ere joan ginen behin... Harreman handia genuen.

**Nola itzuli zineten herrira?**

Bilboko mojen komentu batera eraman gintuzten. Baina ez zieten ezer esan gurasoei; egunkarian gure izenak irakurrita jakin zuten non geunden. Komentura joan eta atera egin gintuzten gurasoek, ama eta anaia lehenago itzuli ziren-eta Frantziatik.

**Nolakoa zen gerra osteko Oñati?**

Zenbat negar egin nuen nik bueltatu ginenean! Ni oso ondo bizi nintzen Liejan, egunero nuen jatekoa han, eta hemen, berriz, sekulako gosea zegoen. Joan aurretik, etxeko oheak zerrategian gorde zituen gure aitak, eta haiek hartu eta senideen eta lagunuen etxeetan egin genituen urte batzuk.

**Zer giro zegoen?**

Ez zen giro onik egon gerra aurretik. Gure bi osaba, esaterako, tiroz hil zituzten Udanan; ezta ostean ere. Ea Oñatira bueltatzen atrebitu ginen galdetu zidan lagun min batek, adibidez. Baina eurak ere, nahiz eta gerra irabazi, goseak, gure modura.

## Automozioa da EH Bilduren apirileko hitzaldiaren gaia

Datorren eguaztenean egingo da Oñatiko EH Bilduk antolatutako hitzaldi zikloaren hurrengo hitzaldia. *Automatizazioa: Produktio modu desberdinen aukera eta arriskuak kontrajartzeko* da gaia eta horren inguruan berba egitera etorriko dira gaia ondo ezagutzen duten hiru lagun: Luka Eciolaza –MGEpN Robotika eta Automatizazio irakasle eta ikerlaria–, Jaione Martinez –Skura kooperatibako eta Tekes elkarte kidea– eta Xabier Ugartemendia –LABeko ekintza sindikaleko idazkaria–.

*Hamar gai, hamaika berba* izeneko hitzaldi zikloarekin, gaur egun munduan dauden joera nagusien inguruan lasai hitz egitea gura du Oñatiko EH Bilduk, gai bakoitzean adituak direnekin eta hitzaldietara doazen herritarrek izan ditzaketengalderekin eta zalantzekin. Apirileko hitzaldia eguaztenean, hilak 21, izango da, Santa Anan, 18:30ean. Aurrez hartu daiteke sarrera, udal webgunean.

## Zazpibidetako bidegurutzea itxita dago ibilgailuendako

Asteburuetan eta jaiegunetan bidegurutze hori itxita egongo da zirkulaziorako gero, baimendutako ibilgailuak bakarrik pasa ahal izango dira, eta horretarako pibote hidrauliko batzuk jarriko dituzte. Oztopo horiek jartzeko lanak egiten dihardute orain, eta itxita egongo da lanak egin bitartean, gaur eta baita datorren astean ere.



**Gualbi**  
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA  
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK  
KONTU IKUSKARIAK

*Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!*



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Enaitz Sagasta eta Kepa Aldekoa, Zubikoa kirodegiko igerilekuan. MIREIA BIKUÑA

## Sagasta eta Aldekoa, bizkar estiloan erosoan

Igeriketako estilo guztiak praktikatu arren, txapelketetan bizkar modalitatean lehiatzen dira. Enaitz Sagasta Espainiako txapelketan egon berri da. Kepa Aldekoa, aldiz, Espainiakotik kanpo geratu da, postu bakar bategatik

### Oihana Elortza. OÑATI

Igeriketako estilo guztiak egiten dituzte, baina, lehiatzeko orduan, txapelketetarako, bizkar estiloaren aldeko apustua egin dute Enaitz Sagasta eta Kepa Aldekoa oñatiarrek; estilo horretan egiten dute igeri erosoan. Euskadiko eta Espainiako txapelketa baten baino gehiagotan hartu dute parte eta dominekin bueltatu izan dira etxera. Gustura ari dira "tranpolin oso onak" dituen Zubikoako igerileku berrian.

### Atzerantz igeri

Martxoan izan diren Espainiako azken txapelketetan, baina, esperientzia ezberdinak izan dituzte biek. Enaitz Sagastak martxoaren lehen asteburuan hartu zuen parte Malagan jokatu zen txapelketan, eta bere denbora hobetu zuen. "Oso ondo baloratzen dut han egindakoa, ez naitzelako askorik entrenatu eta uste baino denbora hobea egin nuelako. Orain arteko txapelke-

tetan gutxieneko denborak eskatu izan dituzte horietara heltzeko. Aurten, baina, pandemia-gatik, beste sistema bat erabili dute proba horietarako sailkatze; kopurua mugatu egin dute, adibidez", dio Sagastak.

Eta, hain zuzen ere, muga hori izan zen arrazoia Kepa Aldekoa ez joateko martxoaren amaieran izan zen bere kategoriako txapelketara; postu bakar bategatik gelditu zen joan barik: "Beti ematen du pena horrelako txapelketa bat horrela galtzeak, baina udan beste aukera bat izango dugu. Rankingaren arabera izango da, eta nireari eusten saiatuko naiz joan ahal izateko". 100 eta 200 metroko distantzietan orain duen ran-

**NEGUKO TXAPELKETAK PASA DIRA, ETA UDAKOAK BURUAN DITUZTELA ARI DIRA ENTRENATZEN**

kinga mantentzen edo hobetzen saiatuko da orain Aldekoa, bizkar modalitatean. "Betidanik egin dut bizkar estiloa, umetatik. Nik uste dut behin *Artza*-k esan zidala bizkar igeri egiteko, eta harrezkero egiten dut. Beste estiloetan ere aritzen naiz, baina proba handietarako beti aukeratzan dut estilo hori", dio Aldekoak.

### Maite dute igeriketa

Kepa Aldekoak zein Enaitz Sagastak, biek maite dute igeriketa, eta gustura dabilta. "Urte hasieran erronka batzuk jarri eta horiek lortzeko saiakerak ematen dizu indarra eta gogoia igeri egiteko. Eta erronkak lortzeak motibatu egiten zaitu beste batzuk jartzeko", dio Aldekoak. "Igeriketan gauzak ondo ateratzen direnean harro sentitzen zara zeure buruaz, eta kirol polita dela uste dut, oso sakrifkatua ere baden arren", gehitu du igeriketa futbolarekin uztartzen duen Sagastak.

## 360 parte-hartzaile izango dira hurrengo zapatuko duatloian

Banan-banan irtengo dira herriko plazatik, erlojupekoan: 16:00etan lehenengoa eta 18:30ean azkena

### O.E. OÑATI

Bakarkako erlojupekoa izango da aurtengo Oñatiko duatloia. Banaka aterako dira parte-hartzaileak plazatik eta erlojupeko proba izango da. Batetik beste denbora tartea utziko dute: 16:00etan aterako da lehenengoa eta 18:30ean azkena. Formatu honekin, muga jarri diote aurtengo probari, iratuen duen bitarte horretan zirkulaziorako itxita egongo dira eta Oñati eta Elorregi arteko errepidea zein herriguneko eta auzo batzuetako bideak. Horrela, 360 parte-

hartzaile izango dira, denak federatuak eta denak EAEkoak, bailarakoak ere bai tartean. 60 bat dira emakumezkoak. "Aloña Mendiko triatloi taldeko hogeit bat lagun eta beste 80 bat herritar egongo gara lanean egun horretan: 100 bat boluntario, gutxi gorabehera. Egia da gogoz gaudela probarako, aurten egingo den lehenengoa izango da. Egin ahal izateko aukera gehien erlojupeko modu horrek eskaintzen zituela ikusita antolatzen genuen horrela, eta ea ondo ateratzen den", diote.

## Mendian federatuta daudenek ez dute muga perimetralik

Oñati gune gorrian egonda mendian ibiltzera herritik atera daitekeen edo ez galdetu diete mendian federatuta dauden herritar askok Aloña Mendiko mendi saileko zuzendaritzako kideei, eta erantzuna baiezkoa da. Hau da, mendian federatuta egonez gero, beste herri batera mugitu daitezkeela, intzidentziaz edozein dela ere. Hori bai,

entrenatzera eta lehiatzera bakarrik mugitu ahal izango dira. Federatuta egotearen lizentzia beti soinean eramatea gomendatu dute Aloña Mendiko mendi saileko zuzendaritzako kideek, eta erantzukizunez jokatzera.

Mendi sailak aurten oraindik ez ditu hileroko irteerak antolatu. Urte osorako egutegia prest izaten du hilean irteera bat egiteko, baina aurtengoa ere prest egon arren ez dira txangoak antolatzen hasi, egoera zein den kontuan hartuta.



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

## Oinarrizko zerbitzuekin zer?

Taberna berean bi pertsonak kaña bana. Bati 2 euro eta besteari 4 kobratuz gero zer irudituko litzaiguke? Eskandalagarria? Ba, oinarrizko zerbitzuekin horixe bera gertatzen da eta gutxi aztoratzen gara. Nola liteke posible, bestela, iragarkiez bonbardatzen gaituzten telekomunikazio operatzaileek zerbitzu bera emanda ere prezio erabat ezberdina kobratzea zuri eta bizilagunari? Oinarrizko zerbitzuekin, eta kasu batzuetan diru publikoz sortutako azpiegituz jabetuta, espekulatzan ari zaizkigu. Alta berria egiteko erraztasun guztiak emanez eta baja ematea ia ezinezko bilakatuz. Landa guneetara zerbitzua eramatea ukatzen dute konexio puntu hori errentagarria ez zaiela argudiatuta, baina, aldi berean, herri bereko Internet kontratuekin dirutza irabazten dute. Izugarriko deskontuekin bezeroak lortu eta konturatu orduko fakturaren zenbatekoa bikoizten edo hirukoizten duten enpresa tranpatiak. Komunitatetik sortutako proiektuak indartu behar ditugu, herritarra erdigunean izango duten aukera erreal eta justuagoek aurrera egin dezaten, oinarrizko zerbitzuak multinazionalaletatik aldenuz.

# Txotxongiloen itzalekin esperimentatzen

Hiru egunez, itzal txotxongilo tailerra eskainiko dute kultura etxean. 8 urtetik gorako neska-mutikoei parte hartu ahal izango dute eguaztenean hasiko den tailerrean, eta gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna, liburutegian

## Amaia Txintxurreta OÑATI

Zurrunka Teatro taldeko Eñaut Gorbearen eskutik, datorren astean, 8 urtetik gorako neska-mutikoei kultura etxean egingo den itzal txotxongilo tailerrean parte hartzeko aukera izango dute. Tailerra hilaren 21ean hasi eta 23ra bitartekoa izango da, eguaztenetik egubakoitzera bitartekoa, hain justu ere. Saio guztiak 17:30ean izango dira, liburutegian.

## Itzalak eta argia

Eñaut Gorbeak eskainiko du tailerra eta itzalekin eta argiekin jolastuko dutela dio: "Agian, munduko antzerki mota zaharrena dugu itzal antzerkiarena. Litekeena da kobazuloetan suaren argiak sortzen zituen itzalekin hasiko zirela jolasean lehenengo gizakiak. Garai batean mundu osoan zabaldua egon den teknika dugu, eta, bereziki, Txina, Indonesia, India, Turkia eta Greziako lurraldeetan mantendu den antzerki tradizionala

da. Horrekin esperimentatzeko aukera izango dute oñatiar gaztetxoek". Gaineratu du aspaldian mitologia eta jainkoen bizimodua zabaltzeko modu bat izan dela. Aldiz, beste garai batzuetan, debekatuta ere egon izan direla itzal txotxongiloen antzerki herrikoiak. "Gaur egun, itzalek geroz eta harrera handiagoa dute antzerki eta ikuskizunen munduan, eta haurren heziketa prozesuan berezko balioa ematen hasi zaio", adierazi du.

## Hiru eguneko tailerra

Datorren astean Oñatin egingo diren saioek bi zati izango dituztela azpimarratu du: "Lehenengoan, sortu egingo dugu, eta bigarrenean, oholtzan, oihal

## TXOTXONGILOAK SORTU ETA OIHAL ATZEAN INPROBISATU ETA JOLASTEKO AUKERA IZANGO DA

atzean inprobisatu eta jolastu egingo dugu".

Eguaztenean, tailerraren lehenengo egunean, itzal txotxongilo teknikaren oinarria ulertzen eta esperimentatzen saiatuko dira. Bigarrenean, gorputza eta elementu gehigarriak erabiliko dituzte; hau da, esaterako, maskara handi bat sortuko dute. Eta azken saioan, seguru aski, argi beltzarekin jolastuko dutela adierazi du Gorbeak. Apar txotxongiloak egingo baitituzte, margo fluoreszentearekin margotuta eta argi morea erabilita, itzalaren kontrakoaz esperimentatzeko. Hauxe gaineratu du Gorbeak: "Tailer honen helburua ez da izango mostra bat egitea, baizik eta gaztetxoekin esperimentatzea eta itzalen magiarekin disfrutatzea. Hori nahi izaten dugu gure saioetan".

## Izema emateko azken eguna

Liburutegian eman behar da izena, eta gaur, egubakoitza, da horretarako azken eguna.

## 'Zarramarra'-ren saio berria, Arantzazu Ibarredorekin

Hilaren 23an, egubakoitza, eskainiko dute, Santa Anan, umorezko ikuskizunaren bigarren emanaldia

## A.T. OÑATI

Saio berezia prestatu dute oraingoan ere *Zarramarra* ikuskizuneko kideek. Aurrekoan bezala, Iker Plazaolak gidatuko du umorezko saioa eta kolaboratzaile hauek izango ditu lagun, hilaren 23an, Santa Anan, 19:30ean eskainiko den saioan: Izar Biain –Star Party–, Iñaki Zabarte –Xabarrenas–, Eneko Ibabe –Potene–, eta Ander Zubiagirre –Pollan–. Zerrenda horri kolaboratzaile berri bat ere gehituko zaiela azaldu dute antolatzaileek, baina ez dute izenik aurreratu.

Gonbidatu berezia liburutegiko arduradun Arantzazu Ibarredorekin izango da. Ikuskizuna Liburuaren Nazioarteko Egunean egingo dute, eta, hori aprobetxatuta, herriko liburutegiko gorabeherak izango dituzte hizpide, besteak beste.

Sarrerak atzo, eguna, jarri zituzten salgai, Internet bitartez, eta azkar saldu ohi dituzte; beraz, bertaratu nahi izanez gero, azkar ibiltzea komeni da.

Goiena telebistak saioa osorik grabatuko du eta maiatzean ikusi ahal izango da telebistan.

## Dantza tradizionalak ikusgai, bi taldetako dantzarien eskutik

Iurretako eta Iruñeko dantza taldeak izango dira zapatuan 18:00etan plazako pilotalekuan

## Goiena komunitatea

### Oñatz / OÑATI

Apirilean, Euskal Herriko dantza tradizionala birsortzen duten dantza talde bi gonbidatuko ditugu: batetik, Iurretako Mikel Deuna dantza taldea; bestetik, berriz, Iruñeko Duguna dantza taldea. Hain zuzen ere, hilaren 17an, zapatuan, izango da ekitaldi hori, arratsaldeko seietan, plazako pilotalekuan. Eguraldi txarra balitz, Zubikoa kiroldegian. Sarrerak eskuragarri izango ditugu *Oñati.eus* webgunean

eta Txokolateixan, 5 euroren truke.

Biek ala biek ematen dituzte beraien herrietan dagozkien dantza tradizionalak. Lehenengo kasuan, Bizkaiko dantzari dantza errepertorio ederra eskainiko digute; bigarrenean, berriz, izango dugu azken hamarkadetan Iruñetik eta Iruñerako sortutako dantza errepertorioaz gozatzeko aukera. Euskal Herrian dugun ondarearen zati txiki baina ikaragarri handia izango dugu ikusgai gure herrian.

## Atzeratu egin dituzte 'Beita' antzezlana eta Marenen kontzertua

Gaur, egubakoitza, estreinatuta behar zuten Xup taldekoek *Beita* antzezlana, baina atzeratu egin dituzte saioak, "egoerak horrela aginduta". Sarrera guztiak agortuta zeuden, eta denak itzuliko dituztela adierazi dute: "Internetetik erosi zenutenoi kontu korrontera itzuliko zaizue dirua zuzenean. Txokolateixan erosi zenutenek, berriz, bertatik

pasa beharko duzue. Eta plazako makinan erosi zenutenek ere bertan jasoko duzue".

Atzeratu egin dute, baita ere, Maren artistaren domekako kontzertua. Taldeko kide batek COVID-19agatik positibo eman du, eta, momentuz, ezin izango da egin. Dena den, gaztelekuan biharko, zapatua, iragarrita zeuden beste bi zuzenekoak egin ahal izango dituzte; Oñatiko Broken Legacy eta Eibarko Hellwatchen taldeak igoko dira oholtzara, 18:30ean.



Mutiko bat, itzal txotxongilo tailer batean, itzalekin jolasean. ZURRUNKA TEATRO

# Tetraplegiak ere ez du Azkarate geldiaraziko

**DUATLOIA** Joan den asteburuan Avilesen egindako Espainiako Duatloi Txapelketan debuta egin zuen Joseba Azkarate oñatiarrak. Nazioartean lehiatzen dabilzan paratriatleten artean tetraplegia maila handiena duenak erakustaldia egin zuen

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Joseba Azkarate oñatiarrak hitzordu handia aukeratu zuen duatloian debuta egiteko, joan den zapatuan Avilesen (Asturias) egin zuten Espainiako Duatloi Txapelketan estreinatzen zen eta. Eta estreinaldia ez zen oñatiarrarena bakarrik izan, baita Antxintxikako kirol egokituaren sailarena ere, noski. Nahiz eta, oraingoan, Azkarate izan duten ordezkari bakarra. "Kontua da pandemia tarteko herri mailako lasterketak bertan behera utzi dituztela, eta, azkenean, zorionez edo zoritxarrez, Avileseraino joan behar izan genuen lasterketa batean esku hartzeko", azaldu dio GOIENARI Azkaratek.

Aste barruko egunak zapatuan hartu zuen jipoitik errekupe-razio lana egiten, dezente egurra jaso nuen eta".

**Ez zuten uste amaituko zuenik**

Azkaratek proba gogorra izan zela aitortu du, baina ez dio aparteko garrantzirik eman horri. Lasterketa bertatik bertara jarraitzen egon zen Antxintxikako kide Aitor Rementeriak, berriz, beste berba batzuk erabili ditu Avileskoa laburbiltzeko: "Kirolean daramatzadan urte guztietan nik ez dut halakorik ikusi". Ez Rementeriak eta ezta lasterketako antolatzaileek ere ez zuten uste oñatiarra lasterketa amaitzeko kapaz izango zenik, baina helmuga gurutatu zuen arte denak egon ziren txantxikuaren zain.

**Euriak zaildutako proba**

Egunean zehar kategoria ezberdinetako lasterketak egin zituzten, eta arratsaldeko azken orduan, paratriatleten txanda iritsi zenean, euria gogotik ari zuen. Guztira, 5 kilometro egin behar zituzten korrikako tartean,



Debagoieneko Antxintxikako ordezkariak Avilesen. ANTIXINTXIKA TRIATLOI TALDEA

ondoren 18 kilometro egin behar zituzten bizikletan eta azken 2,5 kilometroak osterera ere korrika, eta 30 paratriatleta inguru abiatu ziren: "Nik korrikako tartea aulki gorpildun berezi batean egiten dut, eta ondoren, bizikletako tarterako *handbike*-a daukat. Bietan besoekin egiten dut indarra, baina ez dute zerikusirik; aulkian eserita noa, *handbike*-an etzanda... Bada, aulki gorpildunean izugarri sufritu nuen, eta, bereziki, lasterketa hasiera izan zen txarra. Zorua bustita zegoen eta bultzada bakoitzean heldulekuak

**HURRENGO PROBA  
APIRILAREN 24AN  
IZANGO DU, HERRIAN  
BERTAN, OÑATIKO  
DUATLOIAN**

irrist egiten zidan, edo, bestela, gurpilek. Hala, lehenengo 200 metroak tortura hutsa izan ziren, eta ondoren, hala edo nola moldatzen hasi nintzen. Gero, ibilbideko zati batzuk aldapatsuak ziren, bihurtuak batzuk itxiegia ziren niretako... Halako zailtasunei ere aurre egin behar izan nien. Pentsa, arratsaldea aurrera zihoanez eta zirkulazioa osterera ere zabaltzeko ordua iritsi zenez, bizikletako tartea laburtzeko eskatu zidaten antolatzaileek, ez dakit 18 kilometroetatik zenbat egin nituen, baina oso gogorra izan zen, bai. Eta antolatzaileek euren ere esan zidaten asko ikasi zutela; izan ere, nirea moduko lesioa duten paratriatletak kontuan izan behar dituzte ibilbideak diseinatzeko orduan".

Hain zuzen, lasterketa amaituta, Antxintxikako kideak za-

lantza horrekin bueltatu ziren Avilestik: badago nazioartean Azkaraterena moduko tetraplegia graduarekin duatloiak egiten duen kirolaririk? Eta paratriatletak baloratzeko ardura duen Samuel Garcaren eskutik iritsi da erantzuna: "Joseba moduko kasurik ez dut orain arte ikusi. Nire lankide batek nazioarte mailan egiten ditu epaile lanak eta baieztatu digu munduan ez dagoela Josebak baino muga funtzional handiagoa duen paratriatletarik, sekulakoa da egin duena".

Rementeriaeren ustez, Azkaratek eman duen ikasgaiak balio handia dauka, erakusten duela mugak izatea ez dela aitzakia gura den hori lortzeko. Hala, hurrengo hitzordua apirilaren 24an izango dute, Oñatiko duatloian. "Ibilbidea ikusten ibili naiz eta lasterketa hori berezia izango da, zalantza barik, herrikideen aurrean izango da eta", dio Azkaratek. Aldi berean, Antxintxikarendako kirol egokituaren proiektuari Oñatiko herriak eman dion bultzada eskertzeko eguna ere izango da: "Sekulako babesa izan dugu".

## "Halakorik inoiz ikusi gabe nengoen"

Antxintxika Triatloi Taldeko kirol egokitu sailaren debuta ere izan zen joan den zapatukoa, eta Joseba Azkaratek taldeko hainbat lagun izan zituen ondoan; tartean, urteetan klubeko presidente izan den Aitor Rementeria bergararra: "Inoiz ikusi dudana kirol erronka handiena izan zen Josebak egin zuena. Hunkitu egin ginen denok, baita antolatzaileak ere, ikustekoa izan zen zer-nolako gogoia eta sufritzeko gaitasuna erakutsi zituen lasterketan zehar, ikasgai galanta izan zen han batu ginen guztiendako. Sufritu egin genuen asko, COVID-19 protokoloa tarteko ezin ginen harengana gerturatu, ezin animatu, eta guretako ere gogorra izan zen".



Etxabetarrak podiumean. MONTSENY ANT.

**MENDI LASTERKETAK**

## Etxabetarrak, Katalunian nagusi

Bergarako Jokin Etxabek eta Beñat Etxabek sasoi onean hasi dute 2021eko mendi lasterketen denboraldia. Joan den asteburuan, Montsenyko maratoi erdian, lehenengo eta bigarren sailkatu ziren bergararrak. Jokin 2.24.41ko denbora egin zuen, eta bi minutura helmugaratu zen Beñat anaia. Hirugarren postua ere euskaldun batek bete zuen, Ion Artetxek.



Haizea Tornay. J. TORNAY

## XAKEA Haizea Tornay Euskadiko txapelduna da

Joan den asteburuan, Euskadiko Xake Txapelketa jokatu zuten Getxon, maila absolutuan eta baita gazte mailan ere. Ibarreko ordezkari bakarrak Josu Tornay eta Haizea Tornay izan ziren. Haizea zazpigarren sailkatu zen gazte mailan, eta emakumezkoen artean lehenengoa; hala, Espainiako Txapelketarako sailkatu da. Josu, berriz, 7.a izan zen hamasei xakelariren artean.



Burdinola taldeko jokalariek joan den asteko partiduan, Madrilén. BURDINOLA

# Multari iskin eginda, maila gorenean lehia

**HOCKEYA** Burdinolak pandemia urtean ere lehiatzeko erabakia hartu zuen eta bidean trabak baino ez dituzte izan; tartean, Kirol Diziplinako Batzordeak ezarritako hiru mila euroko zigorra. Errekurtsoa onartu egin diete, eta orain, pistan dabilta 'berba egiten'

**Xabier Urzelai** ARAMAIO

Aste Santuan ere ez dute atsendenik izan Burdinola Hockey taldeko neska-mutilek –talde mistoa dute–. Iaz, Espainiako Liga gorenean lehiatzeko txartela eskuratu zuten, eta horrek ordaindu du: orain arte jokatutako hiru partiduak Madrilén izan dituzte eta egunotan ez dute

oporraldirik izan. Baina lan hori guztia badabil emaitzak ematen, asteburuan 2-3 irabazi diote eta Tres Cantos taldeari.

Hala, infantil mailako Deba-goieneko hockey taldeak apustu handia egin zuen denboraldi hasieran, eta, hilabete hauetan laino beltzak izan badituzte ere, hasi dira argia ikusten. "Irailean

Espainiako Federaziotik esan ziguten lehiatzeko seguru egon behar genuela. Jokalariek federatzeko arazoak izan genituen, jende faltan geundelako eta Diputazioak adin tarte batzuetan ez duelako lehia baimentzen. Eta ondoren, lurraldeen arteko mugak jarri zituztenean, gure esku ez zegoen motibo batenga-

## 'Play-off'-etarako sailkatzeko bultzada dago jokoan derbian

**FUTBOLA** Zapatuan, bigarren dagoen Bergarak laugarren dagoen Aretxabaleta hartuko du Agorrosinen

**X.U. ARRASATE**

Bi jardunaldi geratzen dira Oho-rezko Erregional Mailako lehenengo fasea amaitzeko, eta *play-off*-etarako sailkatzeko lehia Mondra dagoeneko jokoz kanpo geratu da. Hala, Bergara da, 10 punturekin, bailarako taldeen artean oraingoz aukera gehien dituen, eta aretxabaletarrek, 8 punturekin, oraindik ez dute amorarik eman.

Hala, bi talde horien arteko derbia izango da bihar, zapatua (16:00), Agorrosinen. Norgehiagoka publiko barik izango da,




2018ko derbiaren irudi bat. GOIENA

baina Goiena telebistak partidua grabatuko du, astelehenean *Harmailatik* saioan laburpena eskaintzeko.

**Romero, Mondra zuzentzen**

Mondra ere etxean jokatuko du asteburuan (zapatua, 16:30), Urolaren kontra, baina, aurreratu moduan, bi talde horiek ez dute aukerarik hurrengo fase-rako sailkatzeko, eta talde arrasatearrek hasi dira aldaketak egiten eta lasaitasunez datorren denboraldia planifikatzen. Lehenengo aldaketa entrenatzailearena izan da; izan ere, Aste Santuan adierazi zuen klub zuri-moreak azken bi urteetan entrenatzaile lanetan ibili den Asier Olaizolak ez duela aulkian jarraituko. Oraingoz, Ander Romero kirol zuzendariak hartuko du taldea zuzentzeko ardura.

## Burdinolako jokalariek, gertutik:



**MADDI DELGADO**  
BURDINOLAKO JOKALARIA

**"Jokari edo atezain jokatzen dut"**

"Taldeak dituen beharren arabera atezain edo jokari jokatzen dut, eta bietan nago gustura. Hala ere, atezain moduan konfiantzarekin nabil, eta asko gozatzen dut postu horretan. Horrekin batera, beste kirol jardueretan gizonetakoek eta emakumezkoek bereizita jokatzen dute, eta hockeyan, gure mailan, denek jokatzen dugu batera, eta gauza polita da. Euskadiko Txapelketatik Espainiakora igartzen da maila handitu dela, eta bidaiak ere luzeagoak dira".



**MANEX SALABERRI**  
BURDINOLAKO ATEZAINA

**"Atepean jartzeak inpresioa eman dezake"**

"Burdinolán hasi nintzenean, lehenengo denboraldia jokari egin nuen, baina bigarreneko jada atezain hasi nintzen jokatzen, eta gustura nabil, egia esatearren. Egia da atezain jokatuta pastillak hartzen duen abiadurarekin hasieran inpresioa ematen duela, baina gero, ohitu egiten zara. Berez, kontrarioen jaurtiketen aurrean atezainok pastilla bera ikusten dugu, baina horrekin batera postura jakinak jartzen ditugu gorputzarekin atea ahalik eta gehien betetzeko".

tik zigortu egin gintuzten, mugikortasuna mugatuta zegoenez ezin ginelako partidura azaldu. Pentsa, hiru mila euroko zigorra jarri nahi ziguten", adierazi du taldeko arduradun Agustin Oiangurennek.

Zorionez, errekurtsoa onartu egin zieten eta dagoeneko hiru jardunaldi jokatuta dituzte, eta bi garaipen lortu. Hurrengo hitzordua Valladoliden izango dute eta liga amaiera etxetik gertu izango dute, Bilbon.

## PILOTA Gipuzkoako Lau eta Erdiko partiduak jokoan dira

Oraingo asteburuan Bergaran eta Aretxabaletan jokatuko dituzte Gipuzkoako Lau eta Erdiko Txapelketari dagozkion partiduak. Eta dagoeneko final-laurdenetan dago txapelketa.

Aretxabaletan gaur, egubakoi-tza, jokatuko dituzte kanporaketa partiduak, Iturrigorri frontoian, 19:00etan hasita, eta, guztira, bi norgehiagoka izango dira: kadete mailakoa lehena eta gazte mailakoa bigarrena. Bergaran, berriz, domeka goizean jokatuko dituzte partiduak, 10:30ean hasita. Hiru norgehiagoka izango dira, eta denak izango dira kadete mailako partiduak. Sei pilotarietatik lau bergararrak izango dira.

## SASKIBALOA MUK hiru jardunaldi ditu igoera faserako sailkatzeko

MURI lau jardunaldi geratzen zaizkio EBA kategoriako A multzoko igoera faserako sailkatzeko. Arrasatearrek lehenengo postuan jarraitzen dute, 29 punturekin, eta, gainera, puntu bat gutxiago duten Ulaciak, LBC Cocinasek eta Valle de Eguesek moreak baino partidu bat gutxiago jokatuta dute. Hain zuzen, oraingo asteburuan arrasatearrek etxetik kanpora jokatuko badute ere –Goierriren kontra, zapatua, 18:30–, datorren eguaztenean, hilak 24 (20:00), Iturripen jokatuko dute Santurtziren kontra atzeratuta daukaten norgehiagoka. Publiko gabeko partidua izango da, baina sare sozialetan jarraitu ahal izango da.

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA  
Eskarmentu eta ibilbide handi-ko margolaria da Jesus Mari Lazkano (Bergara, 1960). Euskal Herriko eta nazioarteko areto garrantzitsu askotan izan dira haren bildumak ikusgai; hala ere, "ilusio bereziarekin" estreinatuko du gaur, egubakoitza, bere jaioterriko Aroztegi aretoan *Lazkano. Bitakora koaderno* margolan eta marrazki sorta. **Pozik zaude herrian zure lanak erakusteagatik, eta hala adierazi dizute hainbat herritarrek ere.**

Oso pozik nago, bai; izan ere, orain dela 45 urte egin nuen Bergaran nire bakarkako azken erakusketa, eta, dirudienez, jendeak nire lanak herrian ikusteko gogo du, hainbat lagunek deitu didate-eta erakusketagatik galdezka eta zoriontzen.

**Garai hartako erakusketatik ze oroitzen dituzu?**

Oso ondo gogoratzen dut; Eder Gai altzari-dendan izan zen eta jendez lepo egon zen egun gutietan. 16 urte nituen, herrian egiten nuen bakarkako bigarren erakusketa eta azkena izan zen hura; aurretik, Pol Polen aretoan egin nuen beste bat. Bergarako kaleak, baserriak, mendiak, elizak eta paisaiak margotzen nituen, bereziki.

**Bilbora joan zinen oso gazte zine- la; harrezkero, Bizkaian bizi zara.** Arte Ederrak ikastera joan nintzen, 17 urte nituela, eta Bilbon geratu nintzen; gaur egun, Arteagan bizi naiz.

**Ordurako, pintura kontuetan eskarmentua zenuen, urteetan herri-ko margolariengandik asko ikasita.** Bergarako margolariak elkartzeko ziren txoko bat zegoen hasieran, Zabalotegi dorrean, Seminarioan ondoren, eta herriko plazako Verduri Hall izenekoan geroago. Han hasi nintzen, 9

# "Koadro handiak ikuslea paisaiaren barruan sartzea ahalbidetzen du"

**JESUS MARI LAZKANO** MARGOLARIA

Gaurtik maiatzaren 23ra bitartean izango da Bergarako eskarmentu handi-ko margolariaren 'Lazkano. Bitakora koaderno' bilduma ikusgai Aroztegi aretoan

urte nituela, marrazten ikasten. Topagune ederra zen, belaunaldi askotako margolariak biltzen ginen. Gogoan dut Agustin Amasorrain, Ugalde, Mari Paz Alustiza eta Abdon Juaristi han ibiltzen zirela, eta geroago sartu ziren Juanjo Altuna, Bingen de Pedro, Manu Muniategian-dikoetxea eta beste asko. Margotzen ikasten genuen, bai, baina bizitzari buruz ere asko; irakaspen polita eta aberasgarria izan zen topalekua.

**Eta patua edo kasualitatea, baina Verduri Halletik oso gertu dagoen Aroztegi aretoan erakutsiko dituzue azken lanak.**

[Barre] Hala da, bai, eta sekulako ilusioa egiten dit! Orain dela hiru deitu zidan zinegotzi batek proposamena eginez, eta hasieratik baiezkua eman nion.

Asmoa lehenago egitea zen, baina esku artean beste proiektu batzuk nituen orduan eta aurten egitea adostu genuen. Ekoizpen geldokoa naiz eta denbora behar izaten dut sortzeko. Urteetik urterako programazioa lotzen dut; dagoeneko 2022 eta 2023rako hainbat erakusketa ditut lotuta.

**Lazkano. Bitakora koaderno** izena du Aroztegiarekin. Zer adierazi gura izan duzu?

Erakusketaren oinarritzko ideia bada da; badaia fisikoaz gainera, badaia mentala ere bai. Artistok errealitatearen beste aurpegi bat erakutsi behar dugu, errealitateari aurre egin ondoren hatutako esperientziarekin beste begirada berri bat ipinita; hortaz, erakusketa badaia bat da, errealitatea beste modu baten, beste patxada batekin, ikus-

teko proposamen pertsonala. Mundua nola aldatzen den, guk, gizakiok, nola aldatzen dugun, eta aldaketa horietan dugun erantzukizuna.

**Paisaiak margotzen dituzue; nora eramango gaituzue oraingoan?**

Glaziarrak toki perfektuak dira munduaren aldaketa ikusteko, eta Artikoan egoteko eta margotzeko aukera izan dut; beraz, Artikoko parajeetan, Euskal Herriko itsasoan eta mendietan ibiliko gara. Margotutako mendiak ez dira benetakoak modukoak; izan ere, irudiak puzzle bat bezala muntatzen ditut nik, zatika eraikitzen dut. Adibidez, irudi baten izkina bat Himalaiakoa da, beste izkina bat Piri-nioetakoa, beste bat Alpeetakoa... Ditudan erreferentziak in collage bat egin dut.

**Zenbat eta ze garaitakoak dira?**

Azkeneko sei urteetako lanak erakutsiko ditut. 2014an egin nuen itsasoari buruzko bildumatik abiatuta, harrezkero egingakoak daude. Aretoa ez da handia eta nik formatu handian egiten dut lan; hortaz, hamaika margolan dira, guztira.

**Bi, hiru eta lau metroko koadroak dituzue. Zergatik formatu hori?**

Mark Rothko margolariak zioen ez dela gauza bera "margo bati begiratzea edo margolanean egotea"; eta margolan baten barruan egoteko bere neurriak behar ditu. Ez da gauza bera metro eta erdiko edo lau metroko koadro baten aurrean egotea. Paisaia barruan sentitzeko halako neurriak behar dituzue. Baditut handiagoak ere, zortzi metrokoa, baina ez da sartzen.

**Teknikari dagokionez, zelakoak?**

Gehienak akrilikoa telaren gainean margotutakoak, eta badaude pastelak edo arkatza paper gainean marraztutakoak ere, bi metroko bat eta bi piezakoa horien artean.

**Irune, zure alaba, da erakusketako komisarioa. Pozik?**

Plazera da niretzako. Nire lana oso ondo ezagutzen du, estudioan hazi da. Berarentzako oso naturala da, badaia gehienak familia osoak batera egiten ditugu. Eta zer margotzen dudana ezagutzeaz gain, badaki zer pentsatzen eta zer irakurtzen dudana, liburuak eta erreferentzia bibliografikoak elkar partekatzen ditugu eta asko hitz egiten dugu. Bilboko Alondegian egiten du lan, eta, horrez gain, beste ikuspegi edo erreferentzia batzuk ditu, beste belaunaldi batekoa da... Nahasketak hori beti ona izaten da.

**Ondo moldatu zarete?**

Oso ondo! Berak egin du dena: koadroen aukeraketa, aretoa

## Goiena Klubaren txokoa

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### ERREKI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari-ko Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: apirilak 20

943 25 05 05  klub@goiena.eus

  KLUBA Jatebetea  
[bazkidearen zenbakia]  
688 69 00 07 zenbakia.

### Goiena Klubeko apirilako sariak!

#### Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



#### Sarrerak

Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

**ARRIKRUTZ**  
ARRIK RUTZ

#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremanderinga.org](http://www.harremanderinga.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: klub@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte hartzearen afitzio-eragingo da zozketa  
lehen egun (2021/04/20) goiena.eus webgunean, gurekin batera. Zozketaren emaitza 2021/04/23an  
10:00etan zuzenean emango da. Zozketaren helburua da sariak irabazteko aukera ematea. Zozketaren  
zuzenbidea 1000€koa da. Zozketaren emaitza 2021/04/23an 10:00etan zuzenean emango da. Zozketaren  
zuzenbidea 1000€koa da. Zozketaren emaitza 2021/04/23an 10:00etan zuzenean emango da.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45€

Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!





Jesus Mari Lazkano margolaria, jaioterriko Aroztegi aretoan duen erakusketan. ENKO AZKARATE

ikusita eta gero berak erabaki du zer eta non jarri... Ni ikusle bat izan naiz, bera da erakusketan agintzen duena.

#### Beragan konfiantza duzulako.

Noski! Normalean, ni izaten naiz komisarioa, edo, bestela, oso ondo ezagutzen dudana lagun bat; esaterako, Javier Gonzalez de Duranarekin urte askoan egin dut lan, baina, oraingoan, beste belaunaldi bat sartu gura nuen, eta Irune aproposa da. Hainbat erakusketatan kolaboratu izan du, baina lehenengo aldia du komisario.

#### Erakusketaren katalogoa atera duzue; ze garrantzi du katalogoak?

Oso garrantzitsuak dira katalogoak. Zure lanak erakusteko beste modu bat da; erakusketak epe zehatz bat izaten du eta gura duten denek ez dute joateko aukerarik. Katalogoa oso aukera ona da ez bakarrik koadroak erakusteko, zure ideiak, testuak, bozetoak... erakusteko ere bai. Katalogoari ikuspegi pedagogikoa ematea gustatzen zait, beste gauza batzuk azaldu eta erakutsi ahal dituzulako zabalago. Gauzak bere testuinguruan ipintzeko tresna ona da.

#### Zer jasotzen du honako honek?

Galeria txikia da eta ezin izan ditugu gura beste margolan eraman, eta katalogoak margolan gehiago, koadernoetako marrazkiak, apunteak, testuak... erakusteko aukera eman digu.

#### Aroztegi sartu eta zein gomendio emango diguzu erakusketa ikusteko?

Ez dago instrukziorik, intuizioaren bidez mugitu behar da ikusle. Ez dago pieza nagusirik, bakoitzak aukeratuko du nondik eta zelan ikusi, eta zein den pieza politena, interesgarriena, deserosoa... Ez dago jarraitzeko markatutako biderik. Nire lana amaitu da; orain, publikoaren unea da, eta nik ezin dut ezer esan horri buruz.

#### Erretiroa hartuta zaude, baina irakasle izan zara 37 urtean EHUKO Arte Ederren Fakultatean. Zelako esperientzia izan da?

Oso aberatsa! Urte horietan belaunaldi asko pasatu dira eta

### "ORAIN DELA 45 URTE EGIN NUEN BERGARAN AZKEN ERAKUSKETA, ETA OSO OROITZAPEN POLITAK DITUT"

### "AROTZEGIKO BILDUMAREN IDEIA NAGUSIA BIDAIA DA, BIDAIA FISIKOA ETA BAITA MENTALA ERE"

### "LIBURU BAT IDAZTEN ARI NAIZ; IDAZTEAK IDEIAK ORDENATZEN ETA MARGOTZEN LAGUNTZEN DIT"

bakoitzak bere zalantzak eta erronkak ditu, eta ibilbide horretan egotea pribilegioa izan da. Niretzako inportanteena izan da artea eta pedagogia batera egitea; izan ere, irakaslea naiz, baina egilea ere bai, eta, ikasleek bezala, nik ere sufritu egiten dut lan berri bat sortzen ari naizenean, eta oso ondo ulertzen ditut zalantza horiek. Gustura egon naiz eta prozesu pertsonalerako ere asko ikasi dut.

#### Zure eskuetatik pasatu diren artista horiei begiratu, zelako euskal pintore belaunaldia dator?

Beti esan dut gazteak gu baino hobeak izango direla. Ezberdinak izango dira eta proiektu ezberdinak sortuko dituzte, seguru asko, energiaz beteta egongo direla, eta, horregatik, ahalik eta gehien lagundu behar da. Museo eta arte zentro asko ditugu Euskal Herrian, eta uste dut gazteak gu baino hobeak izango direla, nahiz eta denbora pasatu behar den ikusi ahal izateko. Artista onak beti egon dira hemen, baina mantentzea ez da erraza. Sormen eta asmo aldetik Euskal Herria top da. Topera ari zara beste lan batzuekin. Aurreratu dezakezu zertan ari zaren? Margotzen eta asko idazten ari naiz. Liburu bat argitaratzeko asmoa dut, baina bere erritmoan doa hori ere. Nire proiektuak oso luzeak izaten dira beti. Askok gustatzen zait idaztea; pentsamendua ordenatzeko modu bat da niretzat, eta hobeto margotzen laguntzen dit idazteak.

## ESKELAK

### ESKER ONA



### Arantzazu Askasibar Iturricastillo



2021eko apirilaren 8an hil zen, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

### URTEURRENA

### Timoteo Gantxegi Alberdi

'Etxexiki'



2020ko apirilaren 22an hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilak 18, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, senideen izenean. Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.



Eskela gehiago 42. orrialdean.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN

### DUELA 30 URTEKO MODA DESFILEAK

'Hala Bazan'

Egubakoitza, 21:30/23:30



GOIENA

### KIROL ALBISTEAK ETA ERREPORTAJEAK

'Harmailatik'

Astelehena, 21:30/23:30



GOIENA



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista) Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## OROIGARRIA



**Isabel  
Diego Ortiz  
Jose Ignacio  
Urribarri Jausoro**



*Beti nirekin.  
Maite zaituztet.  
Zuen falta sumatzen dut.*

Eskoriatzan, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Puri  
Diaz Salamanca**



2021eko martxoaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

*Uretan be algaraz  
bizipoz iturri  
lagun alai maitia  
zenbat poz zuk guri  
udaberriko lore  
lehortean euri*

*ta ze duintasunez  
erantzun minari  
nahiz gaur penetan malko  
lodiak isuri  
ze ederra izan dan zu  
ezagutzea, Puri.*

Igerilekuko monitoriak eta kurtsiloko kideak.  
Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Puri  
Diaz Salamanca**



2021eko martxoaren 25ean hil zen, 52 urte zituela.

*Argi guda.  
Joan nahi ez zenuenez, ez noa agur esatera.  
Gero arte diotsut, berriro ikusiko zaitudalako  
eta berriro dantzan egingo dugulako.  
Bitartean, zuk utzitako argiarekin geratzen gara.  
Zure argia, zure indarra, zure ile kixkurra nota bakoitzarekin dantzan.  
Zeren zu, musika zara, Puri.  
Hemen, zuregatik izango gara musika.  
Ez dizut agur esango, gero arte bakarrik.*

'Sevillanas Bergara' taldea.  
Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA



**Eugenio  
Pagoaga Arriola**

2020ko apirilaren 9an hil zen,  
76 urte zituela.



**M. Teresa  
Totorikaguena Uriarte**

2013ko uztailaren 13an hil zen, 69 urte zituela.

Alaba: M. Carmen. Anai-arrebak: Pedro eta Pilar Iturbe, Jose Antonio, Bittori, Matilde eta Cornelio. Ilobak: Luis Pagoaga eta Arantza Pagoaga. Lehengusu-lehengusinak: Mila, Leo eta Kontxi. Eta gainerako ahaideak.

*Bizi garen artean gure bihotzetan eramango zaituztegu.*

Arrasaten, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Juanjo  
Ansoategi Etxebarria**



'Esau'

*Euskal herri libre baten  
eraikuntzan  
bide lagun izan zaitugunok  
garaipena zor dizugu.  
Eskerrik asko, Esau!*

*Aurrera bolie!*

Arrasateko Ezker Abertzalea.  
Arrasaten, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Juan Jose  
Ansoategi Etxebarria**



2021eko apirilaren 3an hil zen, 75 urte zituela.

Fagor Ederlan kooperatibako  
Kontseilu Errektoreko lehendakari ohia  
Fagor Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakari ohia



Arrasaten, 2021eko apirilaren 16an.

## ESKER ONA

**Julio  
Prieto Alonso**



2021eko martxoaren 25ean hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

## ESKER ONA

**Eduarne  
Laborda Astiazaran**



2021eko apirilaren 11n hil zen, 97 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
—  
*Agur, amatxo. Agur, amama.  
Eskerrik asko emandako maitasun eta momentu on guztiengatik.  
Beti egongo zara gugan.  
Maite zaittugu.*

Zure familia.  
Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

## ESKER ONA

**Jose Mari  
Mugica Sorozabal**



2021eko apirilaren 8an hil zen, 59 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.  
—  
*Izar berri bat piztu da Euskal Herriko zeruan.*

Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

## URTEURRENA

**Jesus  
Garitano Macazaga**



1931-02-01 / 2020-04-14

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilak 18,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

—  
*Nahiz eta gure artetik joan,  
beti izango zaitugu gure bihotzean.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, senideen izenean.  
Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

## URTEURRENA



**Paulina  
Errasti Irasuegi**



Mariano Retolazaren alarguna

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 100 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilak 18,  
11:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan.

Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerririk asko.  
Bergaran (Angiozar), 2021eko apirilaren 16an.

## URTEURRENA



**Emilio  
Acebo Cañizo**



2020ko apirilaren 14an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilak 18,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerririk asko, senideen izenean.  
Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**M. Jesus Escudero Juan**

2021eko apirilaren 7an hil zen, 53 urte zituela.

*Plazer bat izan da zu ezagutzea.  
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*Kasablankako (San Isidro) jai batzordea.  
Oñatin, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Felix Altube Leibar**

2020ko apirilaren 14an hil zen, 73 urte zituela.

*Ez zaitugu sekula ahaztuko.*Etxekoak.  
Aretxabaletan, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Ane Olarte Gorosabel**

2021eko martxoaren 27an hil zen, 40 urte zituela.

*Zure irribarre ta algara gogoan, beti eruango zaitxugu bihotzian.*Zure kuadrilla.  
Arrasaten, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Maria Luisa Barandiaran Balanzategi**

(Markoetxerri baserrikoa)

*Goizian argi hastian,  
ene leiho-hegian  
txori bat pausatzen da eta  
goratik hasten kantatzen.*Maitasunez, Axun.  
Arrasaten, 2021eko apirilaren 16an.

## OROIGARRIA

**Mikel Arriaran Azkargorta***Lepoan hartu ta segi aurrera!*Zure lagunak.  
Arrasaten, 2021eko apirilaren 16an.

## ESKER ONA

**Mikel Arriaran Azkargorta**

2021eko apirilaren 11n hil zen, 54 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko apirilaren 16an.

## ESKER ONA

**Antonia Arana Etxabe**

(Patxi Oyangurenen alarguna)



2021eko apirilaren 3an hil zen, 96 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko apirilaren 16an.

## ESKER ONA

**Andres Arregi Igartua**

'Sevilla'



2021eko apirilaren 11n hil zen, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2021eko apirilaren 16an.

## URTEURRENA

**Maria Arregui Idigoras**

Fortunato Barrenaren alarguna



2020ko apirilaren 11n hil zen, 97 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilak 17,  
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiaren.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2021eko apirilaren 16an.

## URTEURRENA

**Joaquin Rodriguez Pombar**

2020ko apirilaren 7an hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, apirilak 18,  
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiaren.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, senideen izenean.  
Bergaran, 2021eko apirilaren 16an.**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker  
ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena  
Klubeko bazkideendako 166 €► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en:  
165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €**Goiena: irakurriena Debagoienean.****Oroilore**Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu*Gure artean agurtutako  
guztiei euren bidea aurkitzen  
lagundu diegu, orain arte  
bezala, eta guztiek izango  
dute agur berezia Oroiloren.**Gure eskerrik beroenak guran  
izan duzun konfiantzagatik  
eta maitasunagatik.***Ion, Mario, Iban eta Maribi**Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

Eskela gehiago 41. orrialdean.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Oñati.** Atikoa salgai Atzeko kalean. Bi logela, bainugela eta sukalde-egongela. 43 metro koadro. Horrez gain, 14 metro koadro terraza, 10 metro ki ganbara eta 12 metroko garajea. Prezioa: 200.000 euro. 605 72 64 43 edo 696 36 97 17

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Familia bat gara eta hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Horrelakorik izanez gero, deitu zenbaki honetara. 688 63 46 24

**Bergara.** Neska bergararra errentan hartzeko etxebizitza bila. Presazkoa da. 690 75 61 18

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

## OÑATI

Ile-apaindegi baten laguntzailea behar da, egun erdiz. 646 92 22 13

**Antzuola.** Etxeko lanetan esperientzia handia duen norbaiten bila gabiltza. Deitu 661 94 37 19 telefono zenbakira.

## 402. ESKAERAK

**Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza.** Lurrak eta atariak garbitzeko eskaintzen dituz zerbitzuak, sukaldeko laguntzaile gisa edo adinekoen laguntza

eta laguntza gisa. 642 98 98 06

**Arrasate.** Esperientzia handia duen neska gaztea, haurrak zein txakurrak zaintzeko prest. Telefonoa: 618 26 63 61

**Arrasate.** Neska arduratsua orduka zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu. 615 06 28 04

**Arrasate.** Orduka etxeko lanak egiteko gertu nago, zapatu arratsalde edo domeka goizetan. Telefonoa: 685 77 66 21

**Debagoiena.** Denetarik garbiketarako egiten eta ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 632 12 42 42

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 661 04 51 49

**Debagoiena.** Erizain teknikari laguntzaile titulazioa duen emakumea, esperientziarekin eta arduratsua, ospitalean gauak pasatzeko eskaintzen da. 695 02 08 92

**Debagoiena.** Esperientzia duen neska gertu nagusiak zaindu edota garbiketarako egiteko. Orduka edo egunez. 697 86 49 00

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: nagusiei kalera lagundu, mandatuak egin eta abar. Baita denetarik garbiketarako ere: tabernak, atariak, baserriak eta abar. Autoa daukat. Telefonoa: 645 72 92 87

**Debagoiena.** Gizona nagusiak zaintzeko edota atari eta abarrak garbitzeko gertu. Soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 643 73 62 36

**Debagoiena.** Lan egiteko baimena daukat eta pertsona nagusien zaintzan zein garbiketa lanetan jarduteko prest nago. Telefonoa: 606 64 16 09

**Debagoiena.** Mutila lanerako prest. Esperientzia dut erakuntzan, zaintzan edota banatzaile lanetan. 677 29 87 99

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen jarduteko gertu nago, orduka edo ebexan bertan bizi izaten. Titulazioa daukat. Telefonoa: 611 18 91 55

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzen, etxe zein atariak garbitzen, lisatzen edota txakurrak zaintzen lan egingo nuke. 641 44 16 30

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egingo nuke arratsaldetan edo asteburuetan. Titulazioa eta esperientzia handia. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 20 35 71

**Debagoiena.** Neska arduratsua zaintza lanak egiteko. 637 12 15 95

**Debagoiena.** Neska gertu adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Etxeko eta atarietako garbiketarako egiteko. 643 59 76 06

**Debagoiena.** Neska gertu adinekoak zein umeak zaintzeko. 631 75 03 97

**Debagoiena.** Neska gertu adinekoak zein umeak zaintzeko. Zerbitzari lanak tabernan ere bai. Eguneroko prest. 653 59 45 60

**Debagoiena.** Neska gertu ostiral, zapatu eta domekatik garbiketara eta lisatze lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 611 24 26 64



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorasti.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA:

- Menderriki, 75 m<sup>2</sup>, 3 logela, karpoko potolo, biatzera sartzea. 120.000€
- Matxistegi, 96 m<sup>2</sup>, 4 logela, terrazekin, igogailua. 139.500€ PREZIO JEITSIERA
- Matxistegi, 60 m<sup>2</sup>, 3 logela, terraza, igogailua. Biatzera sartzea. 140.000€
- Bontzekale, 85 m<sup>2</sup>, 2 logela, berriak. 115.000€ PREZIO JEITSIERA
- Boli, 180 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, terraza, bi garaje, biatzera sartzea. 340.000€
- Fozikazuri, 100 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, garajea onakoa. 198.000€
- Bidekarretate, 46 m<sup>2</sup>, logela 1, terraza, igogailua, biatzera sartzea. 150.000€
- Zubietegi, 54 m<sup>2</sup>, 3 logela, berogailua, biatzera sartzea. 100.000€
- Alameda Etxea, 340 m<sup>2</sup>, triplex, berriak, garajea. Biatzera sartzea. 350.000€
- Askarrentz, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, terraza, berriak. 45.000€
- Askarrentz, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela, terraza, biatzera sartzea. 100.000€
- Bovere, 70 m<sup>2</sup>, 3 logela. Garaje onakoa. 110.000€ PREZIO JEITSIERA
- Ibargarai, 54 m<sup>2</sup>, 2 logela, igogailua, biatzera sartzea. Garaje 2 onakoa. 216.000€
- Menderriki, 75 m<sup>2</sup>, 2 logela, biatzera sartzea. 149.000€ PREZIO JEITSIERA
- Semeentolatzi, 75 m<sup>2</sup>, 2 logela, parkinga, biokoa, biatzera sartzea. 175.000€
- San Antonio, 78 m<sup>2</sup>, berriak, igogailua jabearen kintara. 99.000€ PREZIO JEITSIERA
- Urteaga, 115 m<sup>2</sup>, 3 logela, terraza eta garajea onakoa. Berriak. 73.000€
- Zubiete, 70 m<sup>2</sup>, 3 logela, biatzera sartzea, eguzkiak. 114.192€

## GARAJEA:

- Espalio, 13,42 m<sup>2</sup>, garaje itxia. Karabonak sei daitezke. 18.000€ PREZIO JEITSIERA

## LOKALAK:

- Ibargarai, 78 m<sup>2</sup>, ka itxia, bi sarrera, 3 bainuak. Lehen eskidologia. 125.000€
- A. Fleming, (poligonozko) 50 m<sup>2</sup>, komertzio eta garajea ditu. Bi sarrera ditu. 45.000€
- Zubiete, 50 m<sup>2</sup>, bi sarrera ditu, kaleak eta portakak. 47.000€

## OSINTXU:

- Oñate, 64m<sup>2</sup>, 2 logela, terraza handiak, igogailua. Biatzera sartzea. 78.000€
- Oñate, 77m<sup>2</sup>, 3 logela, berriak, biatzera sartzea. 100.000€
- Oñate, 75m<sup>2</sup>, 3 logela, terraza handiak. 63.000€ Askara onakoa

## UBERA:

- Bovere eta 15 hektareako lursola (pinak, zuloak) 340.000€ PREZIO JEITSIERA

## ANTZUOLA:

- Kolekaren, 75 m<sup>2</sup>, 3 logela, igogailua, biokoa, eguzkiak. 180.000€
- Bidekarretate, 54 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berriak. 80.000€
- Bidekarretate, 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Berriak. Biatzera sartzea. 120.000€
- Erriakale, 78 m<sup>2</sup>, 2-3 logela, igogailua, biatzera sartzea. 125.000€
- Borne, 77 m<sup>2</sup>, 2 logela, igogailua, terraza. Biatzera sartzea. 115.000€
- Kolekaren, 79 m<sup>2</sup> - 77 m<sup>2</sup>. Berriak. 61.000€ - 51.000€

## ELGETA:

- San Roke, duplex, 83 m<sup>2</sup>, berriak, biatzera sartzea. 190.000€.

## SORALUCE:

- A. Goleaga, 60 m<sup>2</sup>, 3 logela, balkoiak ederra, eguzkiak, biatzera sartzea. 58.000€
- Roldak, GARAJE biatzera, 65 m<sup>2</sup> bekatuak, berriak onakoa. 60.000€ bekatuak

## ZORION AGURRAK



ARAMAIO  
**Uxue Ezkurra Errasti**  
Apirilaren 16an, 7 urte.  
Zorionak, polit hori!  
Zazpi urte potolo! Egun  
zoragarria euki deizula  
eta patxo eta  
besarkada erraldoi bat!



ESKORIATZA  
**Eñaut Arenaza Villar**  
Apirilaren 14an,  
urtebete. Zorionak,  
mutikote! Urteko bat!  
Ondo-ondo pasatu eta  
jaso laztan potolo bat  
etxeko danon partetik!



OÑATI  
**Jesusa Urrestarazu**  
Apirilaren 13an, 103  
urte. Zorionak, Jesusa!  
Segi orain arteko  
moduan.




ARAMAIO  
**Nahia Garcia**  
Apirilaren 12an,  
urtebetetzea. Zorionak!  
Etxekoan partetik.



OÑATI  
**Unai Sanchez Arroioabe**  
Apirilaren 11n, 5 urte.  
Zorionak, Unai!  
Egun polita euki eta  
disfrutatu zeure eguna!  
Patxo potolo bat danon  
partetik!




BERGARA  
**Ane Gartzia Perez**  
Apirilaren 11n, 14  
urte. Zorionak urte  
askotarako, Ane!  
Ondo-ondo pasatu  
eguna eta besarkada  
handi bat familia  
osoaren partetik!  
Patxo bat.




ARETXABAETA  
**Alberto Oianguren**  
Apirilaren 8an, 99 urte.  
Zorionak, aitxaitxa!  
Ondo pasatu zure  
egunean eta  
besarkada handi-handi  
bat familia osoaren  
partetik!



ARRASATE  
**Paule Juldain Alcalde**  
Apirilaren 7an, 2 urte.  
Zorionak etxeko izar  
politeneri!



ARRASATE  
**Enaitz eta Iradi Ibarrondo Belategi**  
Apirilaren 6an,  
urtebete. Zorionak,  
maitiak. Jada urteko  
bat. Aitaxoren eta  
amatxoren bi argituak  
zarete eta asko maite  
zaituztegu.



ARRASATE  
**Aratz Sanzberro Iria**  
Apirilaren 4an, 7 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Egun ikaragarria  
pasatu eta pilo bat  
disfrutatu egun berezi  
hau! Patxo potolo bat  
etxekoan partetik!  
Asko maite zaitzugu!




OÑATI  
**Eider eta Maren Calzada Guridi**  
Apirilaren 4an, 11 urte.  
Zorionak! Maren eta  
Eider, ondo-ondo  
pasatu zuen eguna.  
Muxu handi asko,  
etxekoan eta familia  
danaren partetik!




ARRASATE  
**Ihabar Lete Gardoki**  
Apirilaren 3an, 3 urte.  
Zorionak eta patxo  
handi bat familia  
osoaren partetik!



BERGARA  
**Inge Berraondo Albisua**  
Marxoaren 30ean, 2  
urte. Zure irribarrak  
alaitzen gaitu!




OÑATI  
**Danel Guridi Olalde**  
Marxoaren 29an, 10  
urte. Zorionak, Dane!  
10 urte, bi esku  
beteta! Ondo pasatu  
zure eguna. Asko  
maite zaitzugu.  
Muxu handi bat  
etxekoan partetik.



ARRASATE  
**Ander Canales Diez**  
Marxoaren 29an, 9  
urte. Zorionak, Ander!  
Ondo pasatu zure  
eguna, maitia! Muxu  
asko "Distrito 33"-ko  
bizilagunen eta,  
bereziki, zure  
aiton-amonak Cipri eta  
Angelinen partetik!


## TXUTXU-MUTXUAK



1

## 1. 50 urte ezkontuta


Benitto Barrena eta Nati Egaña oñatiarrek apirilaren 3an bete zituzten urrezko ezteiak. "Aitajunari eta amandeari, zorionak eta patxo handi bat etxeko denon, eta, bereziki, Alazneren partetik, egun berezi honetan".



2

## 2. 63 urte ezkontuta

Manuel Moreno eta Isabel Martin bergararrak 1957ko apirilaren 6an ezkontu ziren. "Zorionak bioi, bihotz-bihotzez, etxeko denon partetik! Segi orain arte moduan, zoriontsu izaten, eta gu zoriontsu egiten".



ARRASATE  
**Libe Zubillaga Olabe**  
Apirilaren 13an, 6 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



ESKORRIATZA  
**Beñat Arana Romero**  
Apirilaren 13an, 8 urte.  
Zorionak, politx hori!  
Ondo-ondo ospatu zure eguna familia eta lagun artean. Askok maite zaitugu, txapeldun!



ARRASATE  
**Maialen Velez de Mendizabal Otero**  
Apirilaren 13an, 13 urte. Zorionak, printzesa. Milaka patxo eta besarkada, familiako guztien partetik. Oso ondo pasatu zure egunean.



ARRASATE  
**Izadi Bragado Alvarez**  
Apirilaren 12an, 10 urte. Zorionak gure etxeko printzesari! Jarraitu zure ametsak egi bihurtzen, beti bezain irribarretsu. Pilo bat maite zaitugu!



ARRASATE  
**Laia Ezkurra Iturbe**  
Apirilaren 12an, 9 urte. Zorionak, maitia! Disfrutatu eguna eta zorionsu izan! Muxu mordoxka bat danon partetik.



ELGETA  
**Xare Zabala Sarasketa**  
Apirilaren 12an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna etxeko danon, eta bereziki, Inharren partetik.



BERGARA  
**Irati Inza Marcos**  
Apirilaren 12an, 9 urte. Zorionak, txiki! Ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.



ARRASATE  
**Garazi, Iruñe eta Amets**  
Apirilaren 12an, 13an eta 14an, 24 urte. Apirilako traka! Kimikarixa, diseinatzailea eta erizaina... Santamasa pasatu die ta ondion be 24ak datorren urteko Marixutan ospatu biher. Bitxarten asko disfrutatu, hirukote! Zorionak!




ARRASATE  
**Eider Rubio Bidaburu**  
Apirilaren 11n, 6 urte. Zorionak, potxola! Sei urte! Ondo-ondo ospatu! Muxu handi bat etxeko danon partetik!



OÑATI  
**Katrin Lazkano**  
Apirilaren 11n, 5 urte. Zorionak, potxola! Egun poliita pasatu! Muxu bat etxeko danon partetik!




ARAMAIO  
**Erik Garcia**  
Apirilaren 11n, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoen partetik.



OÑATI  
**Izaro Bellido Gonzalez**  
Apirilaren 10ean, 9 urte. Zorionak, maitia! Primeran pasatu zure eguna. Askok maite zaitugu. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI  
**Ani Idigoras Garcia**  
Apirilaren 10ean, 3 urte. Zorionak, polit hori! Primeran pasatu zure egunean, aitatxoren, amatxoren eta Libereren partetik, besarkada eta musu handi bat. Maite zaitugu!



ARRASATE  
**Araitz Teixeira**  
Apirilaren 10ean, 7 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo ospatu zure eguna, Araitz. Muxu asko familiako guztien partetik, printzesa!



BERGARA  
**Isolda Beristain Laskurain**  
Apirilaren 9an, jada 10 urte! Zorionak, neska handi! Eta muxu handi-handi bat familia osoaren partetik.



ARRASATE  
**Irene Iturbe Ceme**  
Apirilaren 9an, 9 urte. Zorionak, maitia, zure eguna heldu da! Egun zoragarria pasatuko dugu. Muxu handi-handi bat familia osoaren partetik!



OÑATI  
**Leire Maiztegi Lete**  
Apirilaren 8an, 10 urte. Zorionak, pitxin! Ondo ospatu zure eguna eta ondo pasatu. Muxu potolo bat. Etxekuen eta familiaren partetik.




OÑATI  
**Erlantz Alberdi Elorza**  
Apirilaren 6an, 9 urte. Zorionak, txapeldun. Muxuak familiaren partetik eta ondo-ondo pasatu zure eguna.



OÑATI  
**Auritz Gorosabel Urrutia**  
Apirilaren 6an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Familiara danaren eta, bereziki, Eleneren partetik, muxu handi bat eta segi holakua izaten!




OÑATI  
**Eñaut Ugarte Lopez de Okariz**  
Apirilaren 6an, urtebete. Zorionak, pitxin! Zure lehen urtebetetzea allau da. Muxu poloto bat! Askok maite zaitugu!



OÑATI  
**Ane Aranzeta**  
Apirilaren 6an, 2 urte. Zorionak, printzesa, bi urte. Ze azkar pasatu dan, txapelduna! Musu handi bat etxeko danon eta, batez be, Joanen partetik.



ANTZUOLA  
**Maddi Alonso Berezibar**  
Apirilaren 5ean, 11 urte. Zorionak, Maddi! Ailegatu da azkenian zure eguna! Familiaren partetik, askok maite zaitugu!



ARRASATE  
**Beñat Mendizabal Miguez**  
Apirilaren 5ean, 22 urte. Zorionak Arrasateko sukaldari onenari! Disfrutatu eguna Madril aldetik eta bueltan egongo gara. Arrasateko gazterixa.



OÑATI  
**Ganix Mendibe Garai**  
Apirilaren 5ean, 7 urte. Zorionak eta musu handi bat etxeko bihurrienari, batez ere Ainhizeren partetik!



BERGARA  
**Ainere Gallastegi Lete**  
Apirilaren 4an, 8 urte. Zorionak, sorgintxo! Milaka txokolatzeko muxu etxeko danon partetik! Infinitoraino eta bueltan maitez zaitugu!



ARRASATE  
**Markel Errasti Canales**  
Apirilaren 4an, 6 urte. Zorionak, Markel! Muxu asko familiako guztien partetik. Berezi Alazne, June, Aitor eta Haizea.



BERGARA  
**Markel Lamikiz Crespo**  
Apirilaren 2an, 3 urte. Zorionak, pitxin. Ondo pasatu eguna. Musu potolo bat denon partetik.



BERGARA  
**June eta Lide Villar**  
Apirilaren 2an, 9 urte. Zorionak, potxola! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean! Besarkada handi bat, maittasunetz bete! Segi horrela!



ARRASATE  
**June eta Lide Villar**  
Zorionak, June eta Lide! Junek apirilaren 2an, 20 urte eta Lidek 3an, 17. Ondo-ondo pasatu! Muxu bat aitarien eta amamaren partetik.



BERGARA ETA ESKORRIATZA  
**Maider Barbero eta Ane Gallego**  
Maiderrekin apirilaren 2an eta Anek 8an. Zorionak, bikote. Familiaren partetik, ondo pasatu zuen egunak. Maite zaituztegu.



OÑATI  
**Mattin Goitia Osinaga**  
Apirilaren 1ean, 6 urte. Zorionak, maitia! Sei urtetzar jada; ze handi! Patxo handi bat maite zaitugun danon partetik eta ondo-ondo pasatu!



OÑATI  
**Maddi Biain Ugarte**  
Apirilaren 1ean, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, Maddi! Belarritik bost tirakada! Patxo handi bat familiako danon, eta bereziki, Alixen partetik.



ARETXABALETA  
**Intza Atxaga Arrese**  
Martxoaren 31n, 11 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat danon partetik.



ARETXABALETA  
**Maialen Fernandez Arenaza**  
Martxoaren 31n, 20 urte. Mila kilo zorion, Taxof! Muxu potolo-potolo bat kuadrillako danon partetik.



OÑATI  
**Ane Ormazabal**  
Martxoaren 29an, 28 urte. Zorionak, 'AneO'. Ondo-ondo pasatu eguna! Mua!




OÑATI  
**Haitz Biain Agirrezabalaga**  
Martxoaren 29an, 3 urte. Zorionak, polit hori! Askok maite zaitugu. Muxu pila bat familiaren partetik.



ARRASATE  
**Ekain Alvarez Fuentes**  
Martxoaren 28an, 9 urte. Zorionak, Ekain! Zortzi urte, maitia! Patxo handi bat etxeko guztien partetik.




ARRASATE  
**Luis Mari Garcia Miguel**  
Martxoaren 28an, 59 urte. Zorionak, Piteras! Oso ondo ospatu zure eguna. Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun guztien partetik.



ARRASATE  
**Enrique Reyes**  
Martxoaren 27an, 61 urte. Zorionak, Enrique! Egun zoragarria pasatu. Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun partetik.



ARRASATE  
**Ixone Zuriarrain Arcauz**  
Martxoaren 26an, 14 urte. Zorionak, maitia, zelako azkar handitzen ari zaren. Espero dugu, familia osoaren partetik, egun oso poliita pasatzea. Askok maite zaitugu.



ARRASATE  
**Danel Delgado Saenz**  
Martxoaren 26an, 3 urte. Zorionak, maitia! Hiru urte jada. Mila muxu etxeko guztien partetik. Askok maite zaitugu.



ARRASATE  
**Maria Sanchez Sanchez**  
Martxoaren 26an, 61 urte. Zorionak, Mari! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagun partetik.



ARRASATE  
**Maren Lopez Sanchez**  
Martxoaren 25ean, 7 urte. Zorionak, Maren! Patxo handi bat etxekoen partetik! Ondo ospatu eguna, printzesa!

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 16

## OÑATI Janari bilketa

## Lesbosera

Eroskin, Eroski Errekalden, Errekaldeko dendan, Super BMn eta San Migel Kooperatiban jasoko dituzte janariak, gaur, bihar eta etzi. *Oñatin, 10:00etan.*

## OÑATI Odol ateratzea

Aurrez hartu behar da ordua, 943-00 78 84 telefonoan. *Enpresagintzan, 16:30etan.*

## ARETXABALETA Arroparen kontsumo arduratsuari buruzko hitzaldi-tailerra

Aurrez eman behar zen izena. *Arkupen, 17:00etan.*

## BERGARA 'Lazkano. Bitakora koadernoak' erakusketa

Gaurtik maiatzaren 23ra arte ikusgai. Margolari bergararrak 2013tik 2020ra egindako margolanak erakutsiko ditu. *Arozegin, 18:00etan.*

## BERGARA Musikenekeo hari laukotea eta Musika Eskolako orkestra sinfonikoa

Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua. *Seminarixoa, 18:30etan.*

## ARRASATE Garikoitz Mendizabalen eta German Ormazabalen kontzertua

Udaberriko XVII. Musikaldiaren baitan. Edukiera mugatua. *Kulturaten, 19:00etan.*

## BERGARA Konbo taldea

Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua. *Seminarixoko karpán, 19:00etan.*

## ESKORIATZA 'Literatura juntaixe'

Liburuen gomendioak eta zuzeneko musika. Gonbidapenak eskatzeko: 943-71 31 35 edo 674 11 19 55. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ARRASATE Margo taldekoen erakusketa

Taldeko kideek egindako lanak ikusgai, hilaren 24ra arte *Kulturaten, 20:00ak arte.*

## ARRASATE Zuntza2021 taldearen elkarretaratzea

Erdigunean zuntz optikorik gabe bizi diren edota lan egiten duten herritar guztiak gonbidatu dituzte. *Herriko Plazan, 20:00etan.*

## ZAPATUA 17

## ARRASATE Baserritarren azoka

Arrasateko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Seber Altuben, 09:00etan.*

## ESKORIATZA Soinuari eta argiztapenari buruzko ikastaroa

Josu Lazkanorekin. Gaur egingo dute lehen saioa. *Zaldibar antzokian, 10:00etan.*

## ARAMAIO 'Nerabeen aisialdirako aukerak Aramaion' batzar irekia

Proposamenak egiteko aukera. *Osoko bilkuren aretoan, 11:00etan.*

## ARAMAIO 'Emakumeak mugimenduan' tailerra

Oihane Vicente irakasleak gidatuko du saioa, eta Amaia Arantzabalek eta Idoia Asurmendik musika jarriko dute. Aurrez eman behar zen izena. *Eskolako gimnasioan, 11:00etan.*

## OÑATI Plastilina eta 'slike line'-a

3 eta 8 urte arteko umeendako, Txalokak gidatutako saioan. Eguraldi txarra bada, ludotekan. *San Martin auzoan, 11:00etan.*

## ARRASATE Ludoteka ibiltaria, Erguinen

3-12 urte artekoendako. Aurrez eman behar da izena. *Itxaropena plazan, 11:30etan.*

## ARAMAIO 'Señora' sariketaren lehenengo saioa

Haizea Arana, Oihane Perea, Itsaso Piquer, Maddi Aiestaran, Miren Artetxe eta Alazne Untxalo bertsoan. *Kultura etxean, 17:00etan.*

## ARAMAIO Arabako binakako bertsolari txapelketa

Hiru bikote lehiatuko dira; tartean, Xabi Igoa eta Andere Arriolabengoa

aramaioarrak. Gai-jartzailea Lierni Altuna izango da. *Izarrako kultura etxean, 17:30etan.*

## BERGARA 'Arratsalde bat operan' ikuskizuna

Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua. *Seminarixoa, 17:30etan.*

## ANTZUOLA 'Erik eta Win' ikuskizuna

Antzerkia, bertsolaritza, musika eta umorea bateratzen dituen saioa. Sarrerak, hamar euro. *Torresoroan, 18:00etan.*

## OÑATI Dantza tradizionalen erakustaldia

Parte hartuko dute lurretako Mikel Deuna dantza taldeak eta Irungo Duguna dantza taldeak. Sarrerak, bost euro. *Plazako frontoian, 18:00etan.*

## OÑATI Broken Legacy eta Hellwatchen taldeak

Metal core, grove eta death metal doinuak entzuteko aukera. Sarrerak, hiru euro. *Gaztelekuan, 18:30etan.*

## ARRASATE Aris hirukotea

Udaberriko XVII. Musikaldiaren baitan. Edukiera mugatua. *Kulturaten, 19:00etan.*

## DOMEKA 18

OÑATI Bertso saio feminista Iruñako Vergeleko ekintzarekin, elkartzasunez. Sarrerak, hamar euro. *Gaztetxean, 12:00etan.*

## ESKORIATZA 'Poltsen kustomizazioa' ikastaroa

Umeendako eskulan tailerlean norbanako bakoitzak bere poltsa marraztuko du emango zaion ereduarekin, eta egindako lana etxera eramango du. *Ibarraundin, 17:00etan.*

## BERGARA 'Kaixo, Stoltz jauna. Hor zare?' ipuin musikatua

Hasiberrien eta haurren abesbatzak eta talde instrumentala. Apirilean Musika ekimenaren baitan. *Seminarixoa, 17:30etan eta 19:00etan.*



GOIERRIKO HITZA

## ARRASATE Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal

Udaberriko XVII. Musikaldiari hasiera emango dion kontzertua egingo dute biek ala biek. *Metamorfosis* izeneko emanaldia egingo dute, txistuarekin eta pianorekin lagunduta. Edukiera mugatua. *Gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.*

## ESKORIATZA 'Non dago Mikel?' dokumentala

Mikel Zabalzaren desagerpenari buruzko lana zuzendu du Amaia Monterok. Sarrerak aurrez erosi behar dira kiroldegian, hiru eurotan. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ARRASATE Entreatre laukotea

Udaberriko XVII. Musikaldiaren baitan. Edukiera mugatua. *Kulturaten, 19:00etan.*

## ARAMAIO 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Doluari buruz Iñaki Peñak egindako lana. Sarrerak, debalde, online edo leihatilan. Edukiera mugatua. *Kultura etxean, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 19

## OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

## ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

## ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

## BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

## ARETXABALETA 'GSR etorkizunera begira' hitzaldia

GSR kooperatibako kudeatzaile Marije Zabaletak egingo du berba adinekoen egoitzari buruz, Basotxok gonbidatuta. *Arkupen, 16:00etan.*

## BERGARA Piano ikasleen kontzertua

Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua. *Seminarixoa, 18:30etan.*

## BERGARA Musikoterapiari buruzko hitzaldia

Maite Vicuña egingo du berba, Apirilean Musika ekimenaren baitan. *Irizar jauregian, 18:30etan.*

## MARTITZENA 20

## ARRASATE Abaroaren urteko batzarra

2020ko diru kontuak eta laburpena, 2021erako aurrekontua eta presidente berriaren aukeraketa izango dituzte mahai gainean, besteak beste. *Kulturaten, 17:00etan.*

## BERGARA Piano eta gitarra ikasleen kontzertua

Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua. *Seminarixoa, 17:30etan.*

## OÑATI Noka ikastaroa

Jabetze Eskolaren barruan. *Euskaldun Berria gelan, 18:00etan.*

**ANTZUOLA 'Ezezagunerako bidaia: mundua, klima eta ekologia krisian' hitzaldia** Iñaki Petxarromanek egingo du berba.  
*Torresoroan, 18:00etan.*

**OÑATI Psikologia irakurle tailerra**  
Mary Shelley idazlearen *Frankenstein* liburuari buruzko saioa, Silvia Fondrak gidatuta.  
*Lburutegian, 18:30ean.*

**BERGARA Txistu taldearen eta flauta ikasleen kontzertua**  
Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua.  
*Mariaren Lagundiako elizan, 19:00etan.*

**BERGARA Biolontxelo ikasleen eta hari taldearen kontzertua**  
Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua.  
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Natura bizia' filma**  
Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zine Erakustaldiaren saioa. Amaieran, solasaldia, Lexeia Larrañaga eta Alex Gutierrez zuzendariekin.  
*Zinema aretoan, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 21

**ELGETA Garbigune ibiltaria**  
Egun osoan batuko dituzte herritarrek utzitako gailuak.  
*Salbador kalean, 10:00etatik 21:00etara.*

**BERGARA Apirilean Musika: dantza ikasleen emanaldia**  
Edukiera mugatua.  
*Seminarixoan, 17:30ean.*

**OÑATI Itzal txotxongilo tailerra**  
8 urtetik gorakoendako, Zurrunka taldeko Eñaut Gorbearekin, jolasa, irudimena eta sormena lantzeko.  
*Kultura etxean, 17:30ean.*

**ARETXABALETA 'Ganbaran aurkitu dudana altxorra' ipuin kontaketa**  
Iñaki Carreterorekin, 4 eta 8 urte arteko umeendako.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**OÑATI 'Automatizazioa: Produkzio modu desberdinen aukera eta arriskuak kontrajartzen' hitzaldia**  
Mondragon Goi Eskolako irakasle Luka Eciolazak, Skura Kooperatibako Jaione Martinezek eta LABeko Ekintza Sindikaleko Idazkari Xabier Ugartemendiak egingo dute berba.  
*Santa Ana antzokian, 18:30ean.*

**BERGARA Perkusio eta trikiti ikasleen kontzertua**  
Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua.  
*Seminarixoan, 18:30ean.*

**OÑATI 'Varados' dokumentala**  
Helena Tabernak zuzendutako lana.  
*Zinema aretoan, 18:30ean.*

**ARRASATE Literatura solasaldia**  
Emile Zolaren *Therese Raquin* liburuaren gaineko saioa, Luisa Etxeniketik gidatuta.  
*Kulturaten, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Euskalduntze berantiarra salatzen' hitzaldia**  
Aitzol Altuna Enzunzak egingo du berba, Zuztarrak Errotuz hitzaldi zikloaren baitan.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA Klarinete, biolin eta biola ikasleen kontzertua**  
Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua.  
*Mariaren Lagundiko elizan, 19:00etan.*

**BERGARA Helduen kontzertua**  
Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua.  
*Musika eskolan, 19:30ean.*

## EGUENA 22

**OÑATI Garbigune ibiltaria eta traste zaharren bilketa**  
Egun osoan.  
*Olakuan, 10:30etik 21:00etara.*

**ARRASATE 'Rodarika' ipuin kontaketa**  
5 urtetik gorakoendako saioa, proiektioekin, Liburuaren Egunaren harira. Aurrez eman behar da izena.  
*Bibliotekan, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Revelando estereotipos que no nos representan' hitzaldia**  
Yolanda Dominguezekin, gaztelaniaz. Izen-ematea apirilaren 19ra arte: *berdintasuna@aretxabaleta.eus* edo Arkupen.  
*Arkupen, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Literatura solasaldia**  
Marcos Giralt Torrenteren *Tiempo de vida* liburuaren gaineko saioa, Ane Zapaterok gidatuta.  
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**BERGARA 'Musika kalera' emanaldia**  
Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Apirilean Musika ekimenaren baitan. Edukiera mugatua.  
*Seminarixoko karpan, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Cárceles bolleras' dokumentalaren aurkezpena**  
Cecilia Montagut zuzendaria eta aktoreetako bat egongo dira ekitaldian, solasaldia egiteko.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

**OÑATI 'Otra ronda' filma, zineklubean**  
Thomas Vinterberg zuzendariaren lana. Sarrerak, bost euro.  
*Zinema aretoan, 19:00etan.*

## EGUBAKOITZA 23

**BERGARA 'Baltasar sagutxo eta pentagrama enea' musika tailerra**  
Apirilean Musika ekimenaren baitan.  
*Seminarixoan, 17:30ean.*

**ESKORIATZA 'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' lehiaketaren sari banaketa**  
Edukiera mugatua.  
*Zaldibar antzokian, 18:30ean.*

**ESKORIATZA 'Sorginen ehiza Euskal Herrian XVI. eta XVII. mendeetan' hitzaldia**  
Asisko Urmenetak egingo du berba. Era berean, salgai egongo dira *Sugarren mende* liburuak. Sarrera, debalde, edukiera mugatuarekin.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**El agente topo**  
Domeka: 19:00.

**Tess eta ni (euskaraz)**  
Domeka: 16:00.

### OÑATI

#### SEMINARIXOIA

**Non dago Mikel?**  
Egubakoitzetik astelehenera: 19:00.

**Tess eta ni**  
Zapatua eta domeka: 16:30.

### EIBAR

#### COLISEO

**Mortal Kombat**  
Zapatua: 18:00.  
Domeka: 16:00.

**Los Estado Unidos conta Billie Holiday**  
Zapatua: 18:00.  
Domeka eta astelehena: 18:30.

**Cuñados**  
Zapatua: 16:00.  
Domeka: 16:00, 19:00.  
Astelehena: 19:00.

### ANTZOKIA

**Mortal Kombat**  
Domeka eta astelehena: 19:00.

### GASTEIZ

#### GORBEIA

**Los croods**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:20.  
Domeka: 18:00, 17:20.

**Raya y el ultimo dragon**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.  
Domeka: 12:00, 17:00.  
Astelehenera: 16:50.

**Dardara**  
Egunero: 19:15.

**Monster Hunter**  
Egunero, domeka izan ezik: 19:15.  
Domeka: 12:00, 19:15.

**Nomadland**  
Egubakoitzetik domekara: 19:10.  
Astelehenera: 17:10.

**Tom y Jerry**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:10.  
Domeka: 12:00, 17:10.

**Godzilla vs Kong**  
Egubakoitza eta zapatua: 16:50, 19:05.  
Domeka: 12:00, 16:50, 19:05.  
Astelehenera: 17:15.

**Cuñados**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:35, 19:30.  
Domeka: 12:00, 17:35, 19:30.  
Astelehenera: 19:30.

**Otra ronda**  
Egubakoitzetik domekara: 16:45, 19:00.  
Astelehenera: 19:00.

**Amanece el Calcula**  
Egunero: 19:20.

**¡Upss 2!**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:30.  
Domeka: 12:00, 17:30.

**Mortal Kombat**  
Egunero, domeka izan ezik: 17:00, 19:10.  
Domeka: 12:00, 17:00, 19:10.

**Una joven prometedora**  
Egunero: 16:50,

19:05. 00:00.  
**Tom eta Jerry**  
Domeka: 12:00.

### FLORIDA

**Nomadland**  
Egunero: 19:10.  
**Tom y Jerry**  
Egubakoitza, eta astelehenera: 17:05.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:05.

**Cuñados**  
Egubakoitza, eta astelehenera: 17:15.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:15.

**Mortal Kombat**  
Egubakoitza, eta astelehenera: 17:00, 19:10.  
Eguna: 17:00.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:10.

**Una veterinaria en la Borgoña**  
Egunero: 19:25.

**Una joven prometedora**  
Egunero: 16:50, 19:05.

## KRITIKA

### Nomadland ★★★★★

**Zuz.:** Chloé Zhao. **Herr.:** AEB (2020). **Aktoreak:** Frances McDormand, David Strathairn. **Iraupena:** 108 minutu.

## Arima alderraiak

### ANTONIO ZABALA

Oso harreman bereziak sortzen dira *Nomadland* pelikulako pertsonaien artean. Euren artean sortze diren hartu-emanak oso estuak dira, baina iraupen laburrekoak. Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldean zehar bueltaka dauden pertsonak dira. Euren furgonetekin edo autokarabaneekin mugitzen dira. Leku bat aukeratzen dute, lana topatu eta hortik denbora labur batera alde egiten dute beste toki bat topatu arte... Eta horrela, behin eta berriz, eta sustraiak bota gabe. Euren artan konexio berezia sor daiteke, baina hortik ere ihes egiten dute, loturarik gabe, euren bidearekin jarraitzeko. Hainbat pertsonak, lana eta etxea galdu edo maite duten pertsonaren heriotza jasan

dutelako, errepidera jotzen dute, euren bizitzekin jarraitzeko eta bizi diren gizartetik edo bizimodutik alde egiteko. Arima alderraiak dira: alde batetik bestera mugitzen, toki finkorik topatu barik.

Filmak, hasieran, dokumental itxura du. Erreportari bat erabili beharrean, istorioaren pertsonaia nagusiari, bidean topatzen dituen pertsonen beraien istorioak kontatzen dizkiote. Ezagutzen ari gara nomadak diren pertsonen istorioak, baina,aldi berean, pertsonaia nagusia ezagutuko dugu: bere sentimenduak, kezkek eta egindako bidaia sentikorra. Dokumentua eta fikzioa oso modu egokian bateratzen ditu filmak, eta ukitu poetikoa lortzen du.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

## Adingabekoak edo

Normalean, gure alabatxoei ohera joateko esaten diegunean, ez digute lehenean kasurik egiten. Atzera eta aurrera ibiltzen gara egunero errepikatzen dugun dinamika baten. Hori bai, egoera berezietan badakite arduratsu jokatzeko gu atzetik ibili beharrik gabe.

Pandemia garaiotan hori datorkit burura, hainbatetan agintariak gainontzeko herritarrekiko daukaten jokamoldea ikusita. Adierazi ohi digute neurri gogorragoak hartu beharko dituztela momentuan daudenak betetzen ez baditugu. *Otsoa dator* ipuina gogoratu didate Nafarroako osasun kontseilariaren hitz harrigarriak: "Esta ola [laugarrena] va en serio". Ondorioz, herritar asko dinamika horretan sartzen gara; adibidez, itxiera perimetrala amaitu bezain pronto, kostara joanez.

Horrekin batera, agintariak beti dute zer leporatu beste herritarrei; azkena, aztarnariei datu guztiak ez ematea. Beraien inefizientziak -txertaketa motela edo aztarnari eskasia hasieran-, aldiz, justifikazioa daukate: "Egoera berria da"; "Mundu guztia antzera dabil".

Inoizko populaziorik formatuena eta patermaternalismoa nagusi! Esperantza gure umeengan jarri behar.

## BUKATZEKO



Lexeia Larrañaga dokumentalaren zuzendaria eta Peio Murua kameraria filmaketaren une batean, Aizkorrin. AVIS PRODUCTIONS

# 'Natura bizia': zineman da Lexeia Larrañagaren lana

Euskal Herriko hogeita bi natur lokalizaziotan filmatu dute dokumentala, eta bertako faunan eta floran jarri dute fokua filmaketak iraun duen 280 egunetan. Gaurtik aurrera zinema aretoetan egongo da ikusgai bergarar zuzendariaren lehen film luzea

**Jone Olabarria** BERGARA

Dokumentalak ikusten hazi zela azaldu du Lexeia Larrañaga bergarar zuzendariak. Arte Ederretan lizentziaduna, unibertsitatean zela lehen bideokamera erosi eta Doñanako parke naturalean lehen enkargua jaso zuenetik, ikus-entzunezkoen alorrean aritu da lanean. Bere lehenengo film luzea eta hiru

urte inguruko lana da gaur estreinatuko den *Natura bizia* dokumentala.

**Euskal Herriko biodibertsitatea**

Euskal kostaldetik hasi eta Nafarroako Pirinioetara eta Bardenaino, paisaiaren biodibertsitatea eta balioa azpimarratu nahi izan dutela azaldu du: "Oso paraje aberatsak eta ezberdinak



Lexeia Larrañaga bergararra. A.P.



Dokumentalaren fotograma batzuk. A.P.

ditugu gurean. Itsaslabar mal-kartsuak, itsaso amaigabea, magiaz beteriko basoak, kareharrizko mendi altuak... Guztiek bizipen ahaztezinak eskainiko dizkigute".

Faunak ere protagonismo berezia hartu du: "Munduko zeta-zeto handien artean egingo dugu igeri, gertutik biziko dugu Europako tximeleta ederrenaren metamorfosia, eta baita bisoi europarraren eguneroko momentuak, esaterako".

**Une "ezin aproposagoan"**

Gaurtik hasita ikusgai izango da pantaila handian *Natura bizia*. Gaia zinemara eramatea ez dela erraza azaldu du Larrañagak, baina, hala ere, une "ezin aproposagoa" dela uste du: "Bizi dugun egoeran, naturaren garrantziaz jabetu gara, eta zaintzean indarra egin beharraz".

## JON OLIVARES

GOIENA TELEBISTA

APIRILAREN 21EAN, EGUIAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUKO IKASLEEK

AKTOREARI EGINDAKO ELKARRIZKETA

JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTAKO 'GALDEGAZTE' SAIOAN

**goiena**  
Zu hemen zaude.

